comida, cose un poco, ve un poco la tele. Sigue duchándose sola, de momento («yo me ducho cuando me levanto, no puedo esperar»), pero ya no le dejan limpiar los cristales (hasta tener casi 90 años lo hacía), ni las cortinas (que lo ha hecho hasta no hace demasiado). Reconoce que, aunque Patxi tiene razón, le cuesta un poco obedecerle.

Celebró con gran ilusión el día de su centenario, rodeada de la familia, de los vecinos, al son de la música de los txistularis. A decir verdad, no cuesta mucho esfuerzo hacerle aflorar esa sonrisa tan suya, y esperamos que estas palabras escritas la amplíen un poco más.

En la conversación que tuvimos te prometí, Agustina, que te llevaría a casa el ejemplar de *Oarso* de este año de tu centenario. Hementxe duzu, Agustina. On egin eta bixi bizi!



Patxi Arozamena Linazasorok eskuratua.



Miguel Navarro Juanicorena:

FUTBOLISTA RENTERIANO

José Luis Insausti Urigoitia

Parece que fue ayer y han pasado sesenta años desde que Miguel Navarro Juanicorena inició una vida deportiva en el mundo del fútbol. Fueron 20 años de dedicación y entrega este deporte, paseando siempre con orgullo el nombre de Errenteria-Orereta. Entiendo que Miguel es merecedor de que se plasmen en las páginas de la revista *Oarso* su nombre y su gran trayectoria deportiva.

A lo largo de la historia han existido en el mundo del fútbol profesional en Errenteria-Orereta varios jugadores importantes que marcaron una época; es el caso de Miguel Navarro Juanicorena, nacido en Errenteria-Orereta el 9/12/1946. Nació y vivió en la calle Magdalena y en otra época de su vida también vivió en el barrio de Alaberga. Miguel fue el tercero de los cuatro hijos que tuvo el matrimonio formado por Eluterio Navarro Huici de Goizueta y Joxepa Juanicorena Santesteban de Zubieta; sus otros hermanos son, Bautista, Jesus Mari y Arancha.

Miguel estudió en las escuelas Viteri y en Artes Oficios. Era un joven muy estudioso y al mismo tiempo muy deportista destacando sobre todo en el fútbol. Su historia en el mundo de fútbol comenzó en los equipos playeros del Istillu y Ereintza en infantiles, incorporándose al equipo juvenil de los Luises de Rentería. A partir de este equipo inicia lo que luego sería una brillante carrera futbolística llegando al profesionalismo.

En las categorías inferiores Navarro, como se le conocía en el ámbito deportivo, ya destacaba por sus grandes cualidades, se veía que era un chico que tenía mucha visión de juego e inteligencia. Era uno de los jugadores más listos, en el medio campo sabía leer el juego de una forma que no era normal en jugadores de su edad y le acompañaba un gran físico.

Navarro era en el fútbol un jugador con mucha ilusión y dedicación para conseguir lo que para él podía ser un sueño, que era llegar a ser futbolista profesional, aunque en aquella época, la élite aún quedaba lejos, su ilusión iba a llevarle a ella. Lo que yo recuerdo y destacaría de Miguel Navarro,

S.D. Eibar. Campo de fúbol de Ipurua, temporada 68-69. Arriba de izquierda a derecha: Aranegui, Muñoa, Berriozabal, Arguiñano, Castillo, Murguiondo. Agachados de izquierda a derecha: Beistegui, La Casa, Navarro, Compostiza, Gil.



como he dicho, era la gran ilusión y dedicación que se le veía, un jugador fiel a unos valores de esfuerzo y sacrificio que aprendió desde muy pequeño, su mentalidad y su inteligencia, el empeño, la constancia, la atención, la perseverancia, todo ello con su humildad, con esa capacidad de aprendizaje y ser buen compañero; muy centrado siempre en el campo pudo llegar a ser profesional del fútbol.

En definitiva, podemos decir que desde muy pequeño el fútbol fue el centro de su vida.

Miguel siempre comenta que no olvidará en su vida sus logros con los diferentes equipos, sin embargo, siempre recalca que sus mayores logros siempre fueron sus compañeros de los diferentes clubes donde jugó, como todos los valores y enseñanzas que le dieron durante esos años.

Como vemos desde sus inicios, la gran trayectoria del centrocampista Miguel Navarro cautivó a varios equipos importantes; algo debió hacer bien el mediocentro renteriano cuando se fijaron en él los técnicos del Athletic, realizando el grueso de su carrera profesional entre Eibar, Bilbao y Burgos.

Cuando en 1969 ficha por el Athletic Club, lo integra en su equipo filial de segunda división hasta 1971. Su oportunidad de debutar en el primer equipo le llegó finalmente en la temporada 1971, cuando asciende al primer equipo para ser integrante de la primera plantilla del Athletic Club donde permanecerá hasta 1973. Con el Athletic tiene una copa del rey (entonces del generalísimo).

Al final de la temporada 1973, fichó por el Burgos C.F. En este equipo permaneció ocho temporadas, cuatro en segunda división con el que ascendió a primera división y cuatro en primera división. El primer año en primera división era ya considerado uno de los pesos pesados del equipo, donde lució el brazalete de capitán con el que llegó a superar los 100 encuentros en primera división. Con el Burgos, tiene una liga de segunda división con su correspondiente ascenso a la primera división.

EQUIPOS DONDE JUGÓ MIGUEL NAVARRO:

Luises de Rentería, C.D. Rentería, C.D.Touring, S.D. Eibar, Athletic Club, Athletic de Bilbao y Burgos C.F.

Luises de Rentería: 1963-1964
A mitad de temporada ficha por el Rentería.

C.D. Rentería: 1964-1965
A mitad de temporada ficha por el Touring.

C.D. Touring: 1965-1966-1967-1968

S.D. Eibar: 1968-1969

Bilbao Athletic: 1969-1970-1971

Athletic Club: 1971-1972-1973

Burgos C.F. : 1973-1981

PARTIDOS JUGADOS EN SEGUNDA Y PRIMERA DIVISIÓN

En primera división
102 partidos.

En segunda división
132 partidos.

Partidos de copa
47 partidos.

Se retiró al término de la temporada 1981 en el Burgos C.F. siendo su capitán después de una brillante carrera futbolística. Miguel Navarro fue uno de los últimos grandes iconos del balón en cultivar un fútbol de elegancia, consciente de la necesidad de embellecer su propio estilo con un innato sentido de la colaboración del juego.

Los que le conocimos jugar, fue un jugador atípico, su aspecto se diferenciaba del resto y su talento lo compaginaba con su carácter guerrero, con una actitud competitiva y mentalidad ganadora compitiendo al máximo, se convirtió en ídolo de los aficionados del conjunto burgalés. Según la prensa burgalesa Miguel fue uno de los mejores jugadores que pasó por toda la Historia del Burgos. Un año fue reconocido como el mejor jugador profesional burgalés.

Miguel tuvo que tomar una decisión importante cuando su carrera futbolística comenzó a ser prometedora y le resultaba difícil compaginarla con sus estudios y proyectos de futuro laboral, se vio obligado a dejar la empresa Niessen en la que trabajaba. Cuando terminó su carrera futbolística estuvo trabajando como representante de una empresa de calzado en toda la zona norte.

Me figuro que Miguel tendría de pequeño un sueño de poder jugar en el equipo de su pueblo, el C.D. Touring, y de poder llegar a ser profesional, y tuvo la suerte de conseguirlo y sus sueños se hicieron realidad. Una trayectoria impecable pegada al balón, desde la calle Magdalena hasta convertirse en una leyenda del fútbol vasco.

Detrás de un balón, se fueron tejiendo los sueños, así como el mío el de otros muchos pequeños más. Tardes incansables, noches interminables, con el mismo dicho de siempre, "el último gol gana", así transcurrió el tiempo, y hoy nos hemos llenado de canas.

Los niños de nuestra época crecimos dándole patadas a un balón; viviendo cada semana la apasionante aventura de ir a ver los partidos al campo de Larzabal, para ver de cerca a los jugadores que tanto admirábamos, aquellos

C.D. Touring. Campo de Larzabal, temporada 66-67, entrenador Ángel Segurola. Arriba de izquierda a derecha: Illumbe, Ibarzabal, Chuma, Marchel, Navarro, Arana. Agachados: Silva, Anabitarte, Silvan, Murua, Elias, Macazaga.



partidos de fuerza, ya que pocas veces estaba el campo en buenas condiciones, solía estar muy embarrado y se jugaba con un balón durísimo y muy pesado; era el fútbol que había en aquellos años de nuestra infancia y juventud. Antiguamente se veía a más niños en las calles jugar al fútbol y Navarro era uno de ellos, con quien jugábamos los amigos en la calle Magdalena. Hoy con este artículo sobre Miguel Navarro Juanicorena, revivimos aquellos años de infancia y juventud.

Los que jugamos en el campo de Larzabal, sigue siendo un campo añorado todavía, un terreno de juego añorado por los románticos que optamos por el césped natural. Un estadio del que aquellos que hoy formamos parte del listado de exfutbolistas remarcan que "fuimos unos privilegiados por haber podido jugar en aquel gran terreno de juego, por sus dimensiones y por la hierba natural de la que hacía gala". Allí se vivieron jornadas de gloria, y del mismo salieron jugadores que militaron en equipos de la máxima categoría nacional como es el caso que nos trae hoy con Miguel Navarro Juanicorena.

Hoy, años después, bueno, muchos años después de aquellas épocas colegiales, el balón sigue siendo parte importante de nuestras vidas, no sé de la vida de los demás amigos del balón, pero sé que aún tenemos un amigo en común, que es redondo, caprichoso como pocos, consentido cuando se le trata con clase y que al final de cuentas sí es nuestro gran amigo.



Campo del C. F. Burgos, temporada 73-74.
De izquierda a derecha: Miguel Navarro (en el Burgos) y Luciano Murillo (en la Real Sociedad) enfrentados.

Me figuro que Miguel tendría de pequeño un sueño de poder jugar en el equipo de su pueblo, el C.D. Touring, y de poder llegar a ser profesional, y tuvo la suerte de conseguirlo y sus sueños se hicieron realidad.

Después de dejar el Burgos y el fútbol profesional, Miguel Navarro siguió vinculado con el deporte, concretamente con el futbol playero y con los frontones, ya que la pelota siempre fue y es otra de sus grandes aficiones, aunque han pasado muchos años Navarro no olvida esa época gloriosa de su vida.



C.D. Touring. Campo de Larzabal, temporada 65-66, entrenador Pepe Martínez. Arriba de izquierda a derecha: Zabaleta, Alfonso, Guzmán, Navarro, Cienfuegos, Echarri. Agachados: Macazaga, Irastorza, Garcia, Arrieta, Usandizaga.



C.F. Burgos. Campo del Plantío Burgos, temporada 79-80. Arriba Navarro el 1 por la derecha de Capitán.

C.D. Touring. Campo de Larzabal, temporada 65-66. Arriba de izquierda a derecha: Pepe Martinez, Zabaleta, Segurola, Marchel, Guzmán, Ibarzabal, Navarro. Agachados: Cendoya, Usandizaga, Aznar, [?], Salaverría.



EL FÚTBOL EN LOS NIÑOS, NIÑAS Y JÓVENES.

Muchos/as niños/as sueñan con convertirse en futbolistas profesionales algún día. Para lograr ese objetivo, es esencial que los niños/as y jóvenes tengan la motivación adecuada para entrenar y mejorar constantemente.

Los/as niños/as y jóvenes necesitan sentirse motivados para mantenerse comprometidos y concentrados en su entrenamiento y desarrollo en el fútbol. La motivación es esencial para el éxito de cualquier deportista, ayuda a superar obstáculos para mantenerse en sus objetivos, la motivación puede ayudar a mejorar el rendimiento en los campos, y a tener más confianza en sí mismo.



El éxito no es la victoria, sino el esfuerzo que pusiste en ella, nunca pierdas de vista tus sueños, ellos son la clave de vuestros éxitos, la perseverancia es la clave del éxito en cualquier campo; si realmente te gusta el fútbol lucha por ello, no te rindas, todos los días es una nueva oportunidad para mejorar.

Muy importante en el fútbol con los niños/as y jóvenes, es saber que es un constante aprendizaje. Tienen que disfrutar y los errores, los fallos no tienen que ser reprochados y recalcados constantemente ni por el entrenador ni padres, ellos tienen que ver los fallos, y la única forma de aprender es disfrutar y ver los fallos como algo normal del fútbol.

LA VIOLENCIA EN EL FÚTBOL

El fútbol está considerado como uno de los deportes con más seguidores en el mundo y aunque sus adeptos acudan a los campos para ver a sus jugadores y disfrutar del juego, también nos encontramos en muchas ocasiones, tanto dentro como fuera del campo, situaciones de violencia que empañan de manera drástica el sentido de lo que cualquier deporte, y más uno de equipo, desea transmitir.

Sin lugar a dudas, para muchos, el fútbol es más que un deporte, para mí es una pasión que produce emociones, alegrías y tristezas. Me gusta acudir a los campos de fútbol para disfrutar de las emociones que nos da el fútbol, cantar, aplaudir y festejar, desde luego, respetando siempre a los demás para evitar cualquier tipo de problema que nos ponga en riesgo. Desafortunadamente en algunos momentos nos ha tocado de todo un poco, aficionados enfurecidos porque perdió su equipo y agreden verbal y físicamente a otros. Afortunadamente no nos ha pasado nada que lamentar.

El fútbol es más que correr con un balón pegado al pie durante noventa minutos o más, de un lado a otro en el campo; para mí, es un compromiso, una forma de vida, porque se

Hoy, años después, bueno, muchos años después de aquellas épocas colegiales, el balón sigue siendo parte importante de nuestras vidas, no sé de la vida de los demás amigos del balón, pero sé que aún tenemos un amigo en común, que es redondo, caprichoso como pocos, consentido cuando se le trata con clase y que al final de cuentas sí es nuestro gran amigo.



requiere jugarlo con la cabeza fría y practicarlo con los pies bien calientes, tener buena actitud, entrega, disciplina, dar el todo por el todo y jugar con el corazón. El fútbol es único porque hay que tener técnica para realizar grandes jugadas como un buen pase, recorrer la banda, en fin, muchas cosas que lo hacen único y diferente.

Pero lo más valioso del fútbol es cuando los jugadores defienden su camiseta con amor, dedicación y entrega, ya que les da un sentido de pertenencia que los identifica y los une como equipo, no como algunos que solamente buscan lo económico. El fútbol te enseña a defender a un compañero cuando le cometen una falta, a darle ánimos al que falló un penalti, a motivar a quien perdió las esperanzas de ganar y continuar, pero, sobre todo, te enseña a comunicarse y a trabajar en equipo.

Desafortunadamente no todo en el fútbol es bueno, ya que existen acciones que lo manchan hasta con sangre. A veces, a lo largo de la historia del fútbol mundial, hemos visto cómo pasiones negativas generan escenas de mucha violencia en los campos entre los integrantes de los dos equipos o en las calles y en las gradas entre los "aficionados".

Es urgente que las autoridades estatales y autonómicas, los directivos, dueños de los equipos de fútbol y la sociedad en general, lleven a cabo las estrategias necesarias para garantizar la seguridad dentro y fuera de los estadios con la finalidad de erradicar la violencia que hemos vivido en un deporte de trascendencia mundial, ya que no se debe ni podemos permitir que una actividad deportiva termine nuevamente en tragedia. Es verdaderamente indignante y reprochable que sigamos en un estado de violencia que mancha la imagen no solo del deportista, sino del mundo entero.

Fomentemos, entre todos, el respeto y los buenos modales, como se da en otros deportes, y tratemos de eliminar todas las conductas irrespetuosas y violentas en los campos de fútbol. Disfruta y diviértete con el fútbol y el deporte en general.

Que viva el fútbol.

C.D. Touring. Campo de Larzabal, temporada 67-68. Arriba de izquierda a derecha: Novoa, Recondo, Díez, Modesto, Marchel, Navarro, Arana, Mendia. Agachados: Murua, Silvan, Zugasti, Ferreres, Gonzalo, Silva.





Bilbao Athletic, temporada 69-70. Arriba de izquierda a derecha: Aizpuru, Cenitagoya, Raul, Gomez, Birichinaga, Laria. Agachados: Doro, Navarro, Hormaza, Rojo II, Arraiz.



C.D. Instillu. Playa de La Concha, 1962. Arriba de izquierda a derecha: Herrera, Rojo, Vázquez, Vergara, Cristobalena, Celayeta. Agachados: Modesto, Elberdin, Navarro, Marchel, Macazaga.



Athletic de Bilbao

Nestor Basterretxea GUREKIN

Koldo Ordozgoiti Juanenea

Nestor Basterretxea Arzadun artista handiaren jaiotzaren ehungarren urteurrena bete da aurtengo maiatzaren 6an. Horren harira, 2024. eta 2025. urteetan Euskal Herri osoko kultur eragile eta erakundeek Nestor Basterretxea mendeurrena ospatuko dute. *Oarso* urtekariak bat egiten du Basterretxea mendeurrenarekin eta ekarpen moduan Nestor Basterretxeak Errenteriari eman dion ondarea ezagutzera eman nahi du. Basterretxea gurean da.



2010-04-23
Nestor Basterretxea Izaro aurrean Eusko Legebiltzarraren domina jasota.
Eusko Legebiltzarraren funtsa

Euskal Herri osoko hainbat erakunde eta kultur entitate elkartu dira arte plastikoetan, diseinuan, arkitekturan, zinemagintzan eta euskal kulturaren sustapenean Nestor Basterretxeak (Bermeo, 1924-05-06 – Hondarribia, 2014-07-12) egin zuen ekarpen izugarria gogora ekartzera zuzendutako jardueretan.

Eusko Jaurlaritzak artistaren familiarekin elkarlanean sustatutako mendeurrenerako egitasmoak Nestor Basterretxearen ondarearen zabaltasuna, oparotasuna eta bere lanak izan zuen sakontasuna azaltzeaz gain, Basterretxearen gizarte konpromisoa eta bere lanak Euskal Herriko irudimen kolektiboan izan duen eragina erakutsi nahi du.

Mendeurrenaren bultzatzailea den Peio Agirre komisario eta arte kritikariaren hitzetan, *Nestor Basterretxea XX. mendeko eta XXI. mendearen hasierako euskal artista garrantzitsuenetako bat izan zen. Artista, edozein diziplinaren*

gainetik: eskultorea, margolaria, marrazkilaria, zinemagilea, diseinatzailea, eta abar, ARTISTA. Nestorren bizitza anekdotaz eta abenturaz betea ageri da, baita artearen alorrean egindako aurkikuntzez ere. Alegialari aparta zen, istorio-kontalari petoa, beti bere bizi-esperientzian eta irudimenean oinarritua. Hirurogeiko hamarkadaz geroztik, euskal artearen eta kulturaren pizkunde modernoak Nestor Basterretxearengan du eragile nagusietako bat. Nestor utopiaren artista izan zen, artista eskuzabala, ausarta eta, batez ere, librea. Modernitateari buruz zuen begirada zorrotza antzinatera eta folklorera ere hedatzen zen, herri-izaerara.

IBILBIDE OPARO BATEN KRONIKA

Nestor Basterretxea Arzadun Bermeon (Bizkaia) jaio zen, 1924ko maiatzaren 6an. Fernanda Arzadun zuen ama eta Francisco Basterretxea, aita. Ama ekintzailea izan zuen, Emakume Abertzale Batzaren bultzatzailea, eta aita, berriz, politika bizi izan zuen pertsona. Francisco Basterretxea Zaldibar EAJ-PNVko diputatua Errepublikako Gorteetan eta Errepublikako Konstituzio Auzitegiko kidea izan zen.

Primo de Rivera jeneralaren diktadura garaian jaio zen Nestor eta horrek eragin zuzena izan zuen bere ponte-izenean. Diktadoreak izen euskaldunak debekatu zituen, eta Nestorren aitak, haserre, uko egin zion erabilera arrunteko izenei eta *Iliada*ko izen mitikoa aukeratu zuen bere semearentzat. Izen bakana Bermeoko bataio izenetan.

Bermeon jaio eta Bizkaiko kostako herrian hazi eta hezi zen Nestor. Bertan egin zituen ikasketak. Ume zoriontsua izan zen haurtzaroan. 1936ko estatu kolpeak eta ondorengo gerrak guztia aldatu zuen. Nestorrek 12 urte zituela utzi behar izan zuen jaioterria. Gerra zibilak hala behartuta, familiak erbestera jo zuen. Bost urte eman zituzten Ipar Euskal Herrian eta Frantzian, leku batetik bestera, hasi Donibane Lohizunen eta gero Parisen, Berck Plagen eta Aix-en-Provencen bizi izan ziren. Bigarren Mundu Gerrak Europatik ihes egitera behartu zuen Basterretxea-Arzadun familia. Argentinara 1942ko apirilaren 15ean iritsi ziren, Alsina pakebotean Marseillan hasitako 441 eguneko bidai odisea baten ostean. Nestor Basterretxeak hamaika urte emango zituen Argentinan.

1942an Buenos Airesen kokatu zen Basterretxea-Arzadun familia. Eta han hasi zen lanean eta ikasten Nestor Basterretxea gaztea. "Hemeretzi urterekin iritsi nintzen Argentinara. Ailegatu berritan, Jose Bago mediku donostiarrarekin egin genuen topo. Bagok marrazketarako nire trebetasunak ezagututa, Nestlé multinazionalaren publizitate-agentzia batean eskaini zidan lana".

Eraikuntzako ikasketa teknikoak egin zituen Huergo Institutuan eta pintura eskolak hartu zituen Emilio Pettoruttirekin. Buenos Airesko Saski Naski dantza taldean dantzaria eta dekorazioaren sortzailea izan zen. Garai horretan, Jorge Oteizaren laguna egin zen.

Bere lehen aldiko arte lan haietan, Jose Clemente Orozco mexikar muralistaren eragin sakona agerikoa du Basterretxeak. Argentinan



Autorretratoa Buenos Airesen, 1945
Basterretxea - Irurzun familia funtsa

eta Uruguain talde erakusketan esku hartu zuen eta pintore gazteentzako Altamira beka lortu zuen lehiaketa bidez eta 1949ko atzerritarren saria irabazi zuen. 1950ean, banakako erakusketa jarri zuen Peuser aretoan, Buenos Airesen.

Aparejadore ikasketak bukatuta, 1951an Maria Isabel Irurzun Urkia, euskal jatorriko argentinarrarekin ezkondu zen. Maria Isabel Irurzunek eta Nestor Basterretxeak bost seme-alaba izan zituzten.

Ezkonberriek, Espainiara egindako eztei bidaia baliatu zuten Europara bueltatzeko, lehendabizi Madrilera eta ondoren Euskal Herrira.

Etorri berritan, Jorge Oteizak bultzatuta, 1952an Arantzazuko kriptarako horma-irudien lehiaketara aurkeztu eta irabazi zuen Nestorrek, *ex aequo*. Lana erdi egina zuela, eliz hierarkiak geldiarazi zuen eta margo guztiak ezabarazi zituzten.

1956an, Tarragonako Unibertsitate Laboraleko horma-irudiak margotu zituen.

1957an, banakako erakusketa bat jarri zuen Madrilgo Sala Negra aretoan. Equipo 57 taldearen sortzaileetako bat izan zen. Talde hori berehala utzi zuen.

1958ko Bruselako Nazioarteko Erakusketako Espainiar Pabiloiko talde artistikoaren kidea izan zen.

Basterretxea diseinu industrialaren arloan hasi zen, eraikuntzaren enpresaburu eta abangoardia artistikoaren mezenasa zen Juan Huarteri esker. Horren eskutik, 1958an diseinuan lanean hasi zen orduan sortutako Madrilgo H Muebles enpresan.

Madrilen bizi zirela, Nestor Basterretxeak eta Jorge Oteizak Euskal Herrira bizitzera etortzearekin amets egiten zuten. Hori bideratzeko, orube bat erosi zuten Irunen, Bidasoa ibaiaren ondoan, mugatik gertu; bertan; Basterretxeak, Oteizak eta Luis Vallet arkitektoak, hiruren artean, kutsu arrazionalistako lantegi-etxe bat diseinatu eta eraiki zuten. 1958an, Irunera, lantegi-etxera, joan ziren bizitzera.

1960an, margolaritzatik eskulturara igaro zen Nestor, planoaren miaketaren bidez. Urte horretan Madrilgo Neblí Aretoan arbel eta marmol multzo baten erakusketa egin zuen.

Irunen kultura- eta enpresa-jarduera bizia mantentzen zuen, eta era askotako herri-proiektu eta -ekimenetan parte hartzen zuen. 1961ean, beste bi bazkiderekin batera, altzari modernoetan espezializatutako Espiral denda sortu zuen Donostian eta bertan jarraitu zuen diseinatzaile-lanetan. Ia aldi berean, 1962an, Irungo Biok enpresako bazkide eta diseinatzaile nagusia bihurtu zen. 1963an Frontera Films Irún, SA ekoiztetxea sortu zuen Fernando Larruquertekin batera. Hiru film labur dokumental zuzendu zituzten, *Operación H* (1963), *Pelotari* (1964)



Nestor Basterretxea Saski Naski dantza taldean, 1946
Basterretxea – Irurzun familia funtsa



Basterretxea Irurzun familia, Amparoren etxean Basterretxea – Irurzun familia funtsa







Basterretxea-Irurzun familia funtsa



Euskal artzainari omenaldia eskultura



eta *Alquézar. Retablo de pasión* (1966), eta film luze bat, *Ama Lur* (1964-1968).

1965ean, Sao Pauloko Biurtekorako espainiar estatutik deitutako eskultore bakarra izan zen.

Euskal arte abangoardirako Gaur taldearen sortzaile eta kidea izan zen (1966). Hamarkada oparo horretan, arkitektura-lanak ere egin zituen Ander Basterretxea bere anaia txikiarekin batera. Arkitekturan eta Hirigintzan lizentziatua, Ander 1960an Ameriketatik itzuli zen eta Irungo estudio-etxean kokatu zen. Bi anaien arteko harreman emankorra hasi zen, Nestor diseinatzaile eta Ander arkitekto.

1966az geroztik, zenbait eskultura publiko enblematiko eraiki zituen Nestorrek; besteak beste: *Gorazarre Iztueta dantzariari*, Donostia (1967), *Araba/Gorazarre Pio Barojari*, Donostia (1972), *Gorazarre itsasoan hildako marinelei,* Pasai San Pedro (1973), *Bakearen usoa*, Donostia (1988), *Bakardadea*, euskal artzainen monumentu nazionala, Reno, Nevada, AEB (1989), *Urbidea,* Arriarango urtegian, Gipuzkoa (1993), *Euskal Herriak euskal artzainari*, Oñati (1998), *El Árbol* , euskal kolektibitatearen oparia Argentinari eta Buenos Aires hiriari, Thays parkea, Buenos Aires (2000).

1969an, Bilboko Grises galerian erakutsi zituen bere argazki esperimentalak.

1972 eta 1975 artean, hainbat eskultura egin zituen *Euskal Kosmogonia* sailaren baitan. Aita Joxe Migel Barandiaranek 1936ko gerraurrean argitaratutako *Euskal Mitologia* lanean oinarritutako eskultura sortak euskal mitologiako pertsonaiak irudikatu zituen. Garai horretan ere, *Eguzki Lore* saila egin zuen.

1978an Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren presidentea izan zen.

1979an Bartzelonako Joan Miró Fundazioak *Basterretxearen eskultura* erakusketa antolatu zuen.

Nestor Basterretxea eta Jorge Oteiza, Sabin-etxerako proiektua, 1979
Basterretxea – Irurzun familia funtsa

Hainbat kartel eta lelo diseinatu zituen: *Bai euskarari*, Euskaltzaindiaren kanpainarako ikurra (1978), *Gernikako Estatutua bai*, Euskadiko Estatutuaren aldeko kanpainaren irudia (1979), besteak beste.

1979an, *Gernikako Arbolari omenaldia* eskultura egin zuen Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalaren eskariz.

1980tik 1983ra bitartean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko aholkulari-lanak egin zituen eta Euskal Herrian arte garaikidearen zentro bat egiteko ideiaren sustatzailea izan zen. Europako hainbat herritan ibili zen Rufino Basañez bilbotar arkitektoarekin eta Jose Luis Isasa musikariarekin batera, diziplina anitzeko talde buru gisa. *Benchmarking* bidaia horien xedea arkitektura multifuntzionalei buruzko informazioa biltzea zen, euskal zentro kultural



Gernikako Arbolari omenaldia eskultura Eusko Legebiltzarrean



Izaroren muntaketa
Legebiltzarraren Osoko
Bilkura aretoan
1983ko urtarrila
Basterretxea – Irurzun
familia funtsa

handi bat eraikitzeko eredu baten bila. Hainbat kokaleku gogoan hartu ziren -Alhondiga, Bilbon, edo Urdanibia jauregia, Irunen- inoiz gauzatu ez zen ideiarako.

Jaurlaritzaren kultura-aholkulari gisako Basterretxearen zereginaren ondorioa da *Gure Artea* arte plastikoen saria, 1982an Eusko Jaurlaritzak sortua.

Basterretxeak hainbat arkitektura-proiektu gauzatu zituen, hala nola Oteizarekin Irunen partekatu zuen etxebizitza-tailerra (1955-1957) eta inoiz gauzatu ez ziren beste hainbat proiektu, esaterako, Oteizarekin batera Sabino Arana Fundazioarentzat Bilbon proposatutakoa (1979), Deustuko Unibertsitateko liburutegi proiektua (1985) edo Lemoizko zentral nuklearra zientziari eskainitako parke bihurtzen zuen *Atlantida* proiektua (2001-2002).

1983an Eusko Legebiltzarraren irudi eta ikurra den *Izaro* eskultura egin zuen. Ganbera legegilearen ikurra sortzeko konkurtsoa irabazi zuen Nestorrek; horren ondorioz, *Izaro* -zazpi adarreko alegiazko haritza- da Eusko Legebiltzarraren ikur instituzionala. Haritz-egurrez egindako eskultura trinkoa, Gernikako Zuhaitz Zaharraren inkrustazioak ditu bere baitan eta goitik zaintzen ditu Legebiltzarreko eztabaidak 1983an, Nestor Basterretxearen ikuskaritzapean, Ganberaren buru-horman kokatu zenetik. Iraganean, elizate eta euskal lurraldeetako batzarretan egiten zen moduan, egun, hitzaren eta herri-burujabetzaren egoitza den Euskadiko Legebiltzarrean ezbaiak, akordioak eta legeak zuhaizpean, Nestor Basterretxeak sortutako *Izaro*ren gerizpean gauzatzen dira.

*Izaro*ren sortze urte berean, 1983an, Basterretxeak Arantzazuko kriptako freskoak egin zituen, hogeita hamar urte lehenago pentsatutakoaz guztiz bestelako proiektu berri bat margotu zuen Arantzazun.

1987an, erakusketa antologiko bat eskaini zion Madrilgo Arte Garaikideko Espainiako Museoak.

Lehenengo Amerikari omenaldia (1992) eskultura polikromoen multzoa, Basterretxeak telebistarako *Arte y culturas en la América prehispanica* (1988-1992) dokumental sailean islatu zituen Kolon aurreko kulturei buruzko hainbat urtetako ikerketaren emaitza da. *Euskal Kosmogonia* sailekoeskulturekin Euskal Herriko kristautasunaren aurreko munduarekin egin zuen moduan, Basterretxeak Ameriketako herrien jatorria eta tradizioa ulertzeko asmoz, tamaina ertain eta frontalitate nabarmeneko eskultura multzo bat garatu zuen, jainkoen, animalien irudien, erritoen edo hirien izenak eta izanak birsortuz, artearen bitartez.

2004an bere bolumetria arkitektonikoen proiektuak erakutsi zituen Donostiako San Telmo Museoan. *Bolumetria* terminoa erabili izan zuen Basterretxeak arkitektura-proiektuei erreferentzia egiteko. Proiektu utopikoak dira eta paperean baino ez ziren gauzatu. Esaterako, bere




Argizaiola eskultura

eskulturaren izaera arkitektonikoaren adibide garbia da *Argizaiola* eskultura, artistak marrazki eta argazki bitartez jatorrizko eskultura eraikin proiektu bilakatu zuen.

2005eko urriaren 18an, Eusko Ikaskuntza - Caja Laboral Humanitate, Kultura, Arte eta Zientzia Sozialetako saria jaso zuen Donostiako Miramar Jauregian.

2005eko azaroaren 3an Eusko Jaurlaritzaren Lan Onari saria jaso zuen.

2006an, bere memorien liburua argitaratu zuen: *Crónica errante y una miscelánea* (Alberdania).

2006an *Olatua* izeneko altzairuzko eskultura eraiki zuen Bermeoko portuan; eskulturan, inoiz ahaztu ez zuen bere jaioterriari idatzi zion: "Bermeo, nire herri maitea, zu zara olatu erraldoi baten indar zoragarria".

2011n, *Eusko Europazaleak* eskultura jarri zen Gasteizen, Eurobasque Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluaren 60. urteurrena ospatzeko.

2013an, *Nestor Basterretxea: Forma eta unibertsoa* izeneko atzera begirako erakusketa eskaini zion Bilboko Arte Ederren Museoak, Peio Agirrek komisariotuta.

2013an, *Lurraren alde* eskultura jarri zen Meatzalde Goikoa eskultura parkean, Trapagaranen.

2014ko uztailaren 12an zendu zen Nestor Basterretxea Arzadun. Gizona hila, bere oroitza eta bere artea gurekin da, betirako.

2020an, Kutxa Kultur Arteguneak *Nestor Basterretxea argazkigintzaren bitartez* erakusketa eskaini zion.

2020an, Eusko Legebiltzarraren 40. urteurrenaren harira, Legebiltzarrak eta Bilboko Arte Ederren Museoak elkarlanean, Peio Aguirrek komisariotutako *Izaro-Nestor Basterretxea* erakusketa antolatu zuten. Omenaldi erakusketa Eusko Legebiltzarraren egoitzan ikusgai izan zen 2020tik 2022ko udaberrira arte.



Gernikako Arbolari omenaldia eskulturaren lagapena Kutxa Fundazioak Eusko Legebiltzarrari
2021-07-10



Eusko Europazaleak eskultura

bajtemetxea

ERRENTERIAN

Nestor Basterretxeak hiru artelan izan ditu gurean, Errenterian.

Eguzki lore saileko ***Eguzki lore Agirrena*** eskultura 1975ean jarri zen ikusgai Biteri kaleko **Juli kafetegian** eta han izan da duela hiruzpalau urte arte, kafetegia itxi zen arte.

Horrez gain, bi obra publiko ditu Basterretxeak Errenterian:

- **Barrengoloiako gunean 1979an** eraiki zuen ***Mairubaratz-Zizailu*** mahai eskultorikoa. Basterretxearen obra hau Listorretako parkean eta beraz, Aiako Harria Natura Parkean kokatua da.

- Hogei urte geroago, **1999an,** jarri zen ***Zalduna*** eskultura **Kaputxinoetako-gainean**, orduan zabaldu berria zen Errenteriako saihesbidearen bide-ertzean.

Goazen hiru artelanak, banan-banan ezagutzera.

JULI KAFETEGIKO *EGUZKI LORE AGIRRENA* ESKULTURA (1975)

Basterretxeak Errenterian izan dituen obren artean, Biteri kaleko Juli kafetegian ikusgai izan zen *Eguzki lore* sortako *Agirrena* eskultura izango da, dudarik gabe, gehien ikusitako artelana. Begi askok begiratu eta ikusitakoa, agian jakin gabe Nestor Basterretxearen artelan bat zela.

Eguzki lorea, eguzkiaren lorea edo *Carlina acanthifolia* landarea, gure inguruko mendietan modu naturalean hazten den kardua da. Bere gain du espiritu txarrak uxatzeko eta etxeak babesteko gai dela dion legenda eta sinesmena. Horrela jaso zuen Aita Barandiarenek eta horretan oinarrituta egin zuen Nestor Basterretxeak *Eguzki lore* izeneko eskultura seriea.

1965eko uztailaren 17an ateak ireki zituenetik Juli kafetegia izan zen Errenteriako kafetegi ezagunenetako bat eta Biteri kaleko giroaren epizentroa. Ez zaigu hau kontatu behar urte horiek bizi izan ditugunoi, baina duela bizpahiru urte kafetegia itxita eta izena galduta, idatzita utzi behar da gerorako eta urte haiek ezagutu ez dutenentzat.

Kafetegiaren sarreran, eskuineko paretan eskegita, Basterretxearen *Eguzki lore Agirrena* agur egiten zien eta bere babesa eskaintzen zien kafetegiko bezeroei. Egunez, kafea, pintxoa, bermuta edo edozein kontsumizio hartzen zutenei eta gauez, parrandan zirenei.

Eguzki lore sailekoa, 1975ean haritz zurez egindako tamaina handiko (97 x 113 x 7 cm) eskultura da *Agirrena*.

Juli kafetegiaren jabea izan zen eta eskultura erosi zuen Joxean Agirrek kontatu digu *Eguzki lore Agirrena* eskulturaren historia. *Hondarribiko erakusketa batean ikusi nuen eskultura. Gogoan dut non izan zen erakusketa, San Pedro kaleko taberna batean jarri zuten, Josu Zabala hil zuten kalexkaren ondoko taberna batean, garai hartan erakusketak antolatzen ziren bertan*



100. *Eguzki lore Agirrena,* 1975
Madera de roble
97 x 113 x 7 cm
Colección José Antonio
Aguirre y familia



Eguzki lore Agirrena, Formak eta Unibertsoa eta Basterretxea Antológica katalogoetan







Eguzki lore Agirrena Bilboko Arte Ederren Museoan 2013

Obra aparta iruditu zitzaidan eta erosi egin nuen. 1975. urtea zen. Data horrekin eta gure abizenarekin agertzen da Eguzki lore eskultura hau dokumentazioan. Nestor Basterretxeak gure izena jarri baitzion Eguzki lore honi: Agirrena, horrela bataiatu zuen.

Eskultura 1975ean bertan jarri genuen kafetegiko eskuineko horman, barraren frontean eta Julin izan da, sartzen ziren guztiei ongi etorria eginez, duela hiruzpalau urte arte.

Eguzki lore hau adiskidetasun handi baten hasiera izan zen. Nestor Basterretxea askotan egon zen gure kafetegian. Gizon aparta zen Nestor, mundu guztiarekin kolaboratzeko prest. Berarekin izan genuen harremana bikaina izan zen, eta horren ondorioz, gainera, Basterretxeak Errenteriako beste hainbat elkarterekin kolaboratu zuen, ikastolarekin esate baterako.

Erakusketa mordo baterako utzi izan dugu Agirrena eskultura, baina ez naiz horiek zerrendatzera ausartzen, batzuk ahazteko beldurrez. Eskatu diguten guztietan utzi dugu, azkeneko aldiz Bilboko Arte Ederren Museoak 2013an antolatu zuen "Nestor Basterretxea: Formak eta Unibertsoa" erakusketarako.

Eskulturak presentzia handia hartzen zuen gure kafetegian. Gogoan dut nola behin, bi anaiok Basterretxearekin geunden, lekualdaketa horietako bati begira, eta nola esan genion Nestorri horma hutsik geratzen zela Eguzki loreren presentziarik gabe. Basterretxeak Jorge Oteizaren Pietate bat eskaini zigun eta horrela, Oteizaren eskultura Julin egon zen ikusgai gure Agirrena etxera itzuli zen arte.

Azkenean, minez, eskultura saldu behar izan dugu, oraintsu. Bere tamaina eta presentziagatik, Eguzki lore eskulturari leku egoki eta duina zor zaio, gure etxean eta gure seme-alabenean ez genuena. Bekatu barkaezina zatekeen Agirrena bezalako artelan bikain bat biltegi batean uztea, eta saldu egin behar izan dugu.

BARRENGOLOIAKO *MAIRUBARATZ-ZIZAILU* MAHAIA (1979)

Agian oso jende gutxi jabetuko da Barrengoloian, Listorretako parkean eta Aiako Harriko parke naturalean baitan, badela Nestor Basterretxearen beste artelan eder bat, mahai bat.

1979an, orduan garatzen ari zen Barrengoloia-Listorreta aisialdi-gunerako erabilerarako arte lan bat egitea eskatu zitzaion Nestor Basterretxeari. Mobiliario diseinuan aditua, parkerako mahai bat egitea eskatu zitzaion artista handiari. Basterretxearen erantzuna Barrengoloian dugun mairubaratz eta zizailu baten arteko uztardura den adreiluz eta egurrez egindako mahaia izan zen. Eskultura bat, aisialdi-mahai bilakatuta. Errenteriako udalaren enkargua, ICONAk ordaindu zuen.

Milaka lagunek erabilia, gutxi batzuen joera txarrak galzorian utzi zuen artelana. Zorionez, Errenteriako udalak bultzatuta eta Kutxa Fundazioak eta Basoa elkarteak diruz lagunduta, 2007an berritu zen mairubaratz-zizailu mahai hau. Nestor Basterretxeak, artelanaren egileak eta Errenteriako alkateak, Juan Carlos Merinok, berritzearen aurkezpenean parte hartu zuten. 2007ko maiatzaren 25ean izan zen eta urte bereko *Oarso* urtekariak Nestor Basterretxearen lanaren berri eman zuen.

Egun txukun azaltzen da arte lan hau. Agian mereziko luke, bere baitan duen plaka txikiaz gainera, beste moduko aurkezpenen bat. Sortzeko arrazoia izan zuen funtzioa bikain betetzen jarraitzen du eskultura honek, artelana izateaz gainera, parkeko mahai on bat da. Zain dezagun.

















NESTOR BASTERRETXEAREN LANA LISTORRETA-BARRENGOLOIAN

Basoa Fundazioa

Euskal Herriko mendietako eskumen administratiboak orain dik Espainiako (CONAren (Instituto para la Conservación de la Naturaleza) eskuetan zeudenean, erakunde honek Gipuzkoako hainbat mendi komunaletan erabilera publikoa sustatu asmoz, Bermeoko den Nestor Basterretxea eskultoreari enkargatu zion, besteak beste, gaur egun Listorreta-Barrengoloian kokatuta dagoen lana.

Bertan ikusi daitekeenez, gurutzetan ugari dauden mahai eta eserlekuz osatutako egitura bat. Harriz eta adreiluz egina, 1979 urtean egindako Basterretxearen lan honek hamarkada hauetan mantenimendu gutxi jaso badu ere, 2006an Basoa Fundazioa eta Kutxarekin Udalak sinatu zuen Hitzarmenari esker, eskultorearen lana berritu ahal izan da.

Izan ere, aurtengo maiatzaren 25ean "berrinauguratu" zen Nestorren lana, Udalak obra hau iraunkorki bere onean mantentzeko konpromisoa hartu duelarik. Hala agindu zuen Juan Carlos Merino alkateak bertako ekimenean zeuden



Nestor Basterretxearen beraren eta Kutxa (Javier Lomas) eta Basoa Fundazioko (Jorge Askasibar) arduradunen.

Ez da ahaztu behar non dagoen kokatuta lan hau: Listorretan, Aiako Harriko Parke Naturala eta Garraitzi Komunitarioko Lekuaren (GKL) sarrera nagusietako baietan, hain zuzen. Obra honen ondoan, Parke Naturaleko Informazio-Bulego bat jarri da aipatutako Hitzarmenaren baitan; 2006an udaberri eta udan naturgune babestu honen bisitarien fauna, flora eta bioeniztasunari buruzko informazioa kudeatzen zaietenik, antolatutako hainbat irteera gidatu ahaztu gabe. Era berean, egutiliko energiaz elikatzen da Bulegoko argindarra.

Esan behar da, Parke Naturalean lehen aldiz gauzatu direla kutxako informazio eta komunikazio-ekimenak, ruhiz eta 1995. urtetik indarrean egon Aiharbe eta Parke Natural osoaren babesa.

Benetan, obore bat da Erenteriako biztanlaentzat Euskal Herriko eskultore nagusietako batek sortutako lana gure herri-lurretan gordetzea. Eskerrik asko Nestor.



Al acto de reinauguración de esta restauración asistió, además de autoridades municipales y representantes de Kutxa y Fundación Basoa, el propio artista Nestor Basterretxea.

KAPUTXINOEN-GAINEKO *ZALDUNA* ESTELA (1999)

Nestor Basterretxeak gurean duen hirugarren artelana 1999an jarri zen, Errenteriako saihesbide berria eraikitzearekin batera. Kulturarako %2a programaren barruan gauzatu zen estela hau Kaputxinoen gaineko bidegurutzean, Gipuzkoako Foru Aldundiko herri-lanen departamentuak ordainduta eta honen jabegokoa da.

Zalduna izeneko estela, tamaina handiko eskultura da (400 x 500 x 2,5 cm), 3.925 kg pisua du eta burdinazko pieza bakarraz osatua da; bi alboetan eta azpian dituen txarrantxa bitartez itsasten da tokian eta berariaz eskulturarentzat eraiki zen hormigoi armatuzko oinarriari.

Zalduna eskultura lau haizetara irekia eta errepideen bidegurutze baten ertzean kokatua da. Ibilgailuen joan-etorri handiko eremu batean egoteagatik, agente atmosferikoekiko zuzeneko esposizioagatik eta kalte antropikoengatik (pintadak) hondatu eta zaharberritu behar izan







zen. 2017ko abenduan desmuntatu eta Mendieta galdategira lekualdatu zen konpontzeko. Bien bitartean, *in situ* saneatu eta zaharberritu zen eskulturaren zementuzko oinarria. Metalezko egituraren eraberritze eta margotze lanak amaitu ondoren, 2018an berriro muntatu zen Basterretxearen estela bere kokalekuan.

Ia muntatu bezain laster, *Zaldunak* beste eraso bat jasan behar izan zuen, pintadak egin zizkioten bi aldeetan eta eskulturaren oinarrian. Bitxia bada ere, "ekintza" erreforma egin aurretik jardun zuten jaun-andere berberek egin zuten, horrela erakusten dute pintadek. Penagarria da Basterretxearen ehungarren urteurrenean eskultura hau horrela ikustea. Etorkizun garbiagoa mereziko luke.

AMAIA

Ikusi eta ikasi dugu, Nestor gurean da. Izan bedi hau Basterretxea ahazten ez duen herri oso baten oroitzapena.

Esker onak: Basterretxea – Irurzun familiari, Artium Museoari, Eusko Legebiltzarrari eta Joxean Agirre jaunari.







Ana Mari Ugalde Ugarte

MUGITUA IZAN DA

Nagore Pérez Fernández

Emakumezkoei begiradarik onena.
XIV. Mariasun Landa Sariak, 2024.

Zure begiek haren begiekin topo egiten dutenean, ez dakizu haur batenak ala emakume heldu batenak diren. Dirdira bera darie. Irakasle zorrotza omen zen, eta, zelatari isilaren talaiatik begira, nabari zaizkio irmotasuna, norabide argia. Irribarrea zabaltzen duenean, ordea, hainbat egitasmori ilusioz beterik ekin dien norbaiten jakin-mina azaleratzen da, haur baten plazer-zantzuak. Begi dirdaitsuak eta irribarre bihurriak. Ibiltzean, emeki zapaltzen du lurra, hauskorra balitz bezala. Lurra, ez bera. Eta Andres, ondoan.



Ana Marik Patxi Altunaren *Euskera, ire laguna!* liburua zerabilen gau-eskolan

Ana Mari Ugalde Ugarte Errenterian sortu zen, 1944an. Hona dakargu gau-eskolan euskara-irakasle jardun zuelako 1972tik 1975era bitarte. Egiten duguna norberaren zati bat besterik ez da, baina; ez gaitu definitzen. Eta haren isla itsasoak diruditen ibaiak bezain zabala da. Emakumeei ezarritako oztopoez gaindi aritu da: antzezle, irakasle, lau seme-alabaren ama. Ana Mari.

Sustraiak Zumaian eta Hondarribian ditu, eta bere euskarari eutsi zion umetan amaren jaiotetxera, Oikiara, joaten zelako uda partean. Euskara berritzen zuen han, zeren, hemen, erdararako joera handia baitzen orduan. Beti izan da «saltsera» eta, saltsak saltsa, Ereintza elkarteko antzerki-taldean ibili zen ezkondu aurretik. Ereintzaren lanari esker, izan ere, badira garai horretako argazki bat edo beste, 50. urtemugaren bueltan kaleratutako liburu batean, eta taldearen nondik norakoen berri ere ematen da. Hantxe agertzen da Ana Mari; ez da zaila nor den bereiztea. Antzerkian zebilela ikusi zuen euskara atera beharra zegoela, bide horretatik jarraitu behar zela. Andoni Korta izan zuten zuzendari, eta haren pazientzia du gogoan, eta zeinen giro ona zeukaten. Inportantea izan zen.

Gazte ezkondu, eta antzerkia utzi zuen. Lehenago ezin izan zuenez ikasi, oinarri hori bereganatu nahi zuen: lehenik, batxillergoa, eta geroago, irakasle-ikasketak. Artean amaitu gabe zituela, Luzuriagako bulegoan hasi zen lanean. 1968an utzi zuen, eta bost urte egin zituen bere beste kontuekin, baita etxean ere. Orereta ikastolako bulegora jauzi egin zuen handik, eta, irakasle-ikasketak amaitutakoan, irakasle jarri zen bertan, eta hortxe jarraitu zuen, LHko 3. eta 4. mailetako ikasleen tutore, harik eta erretiroa hartu zuen arte.

Euskaldunak ziren, baina hori ez zen nahikoa eskolak eman ahal izateko. Ondorioz, Patxi Altuna euskaltzain izandakoaren metodoa erabili zuten, eta egilearekin berarekin prestatu ziren horretarako.

Ana Mari eta Andres 1966an ezkondu ziren, eta lau seme-alaba izan dituzte. Andres eremu sindikalean zebilen, eta diktaduraren azken urteetako giroa, irrika eta beharra zirela eta, gau-eskolak sortzeko ideia agertu zen, euskara eta euskal kultura sendotu eta zabaltzeko. Horretarako, irakasleak behar ziren,



Andres eta Ana Mari.

eta bilaketa nonbait hasi behar zen: etxean, esate baterako. Hartara, biak ala biak hasi ziren euskara irakasten, eta gau-eskolan jardun zuten 1972tik 1975era bitarte, beste sei irakaslerekin batera. Herriko apaizen kontzientzia dela medio, eliz aretoak utzi zizkieten, ongi moldatzen ziren-eta haiekin. Izan ere, ikasteko interesa izan zezaketenengana heltzeko modu bat hori izan zen, elizakoen laguntza. Rafael Bandresen kroniketan ere eskolaren berri ematen zen. Eta askok pozarren eman zuten izena. Garai horretan, zazpi talde egon ziren martxan, hirurogei ikasle inguruz osatuta. Astean pare bat aldiz ematen zituzten klaseak, arratsaldeko zazpietatik aurrera-edo, jendeak ahal zuenean. Dena musu-truk egin zuten. Lan horretan sartu ziren kezka soziala zutelako: herria euskalduntzeko beharra ikusten zuten, eta euskararen zein euskal kulturaren beharra. Kultura izatea gaztelania jakitea zelako, eta, Ana Mariren osabak zioen bezala, «kalera jaisteko erdara jakin behar da», baserritarrei barre egiten zieten eta.

Euskaldunak ziren, baina hori ez zen nahikoa eskolak eman ahal izateko. Ondorioz, Patxi Altuna euskaltzain izandakoaren metodoa erabili zuten, eta egilearekin berarekin prestatu ziren horretarako. Harengana jo zuen Andresek laguntza eske. Aditzari buruzko ikastaroak ere eman zizkien, eta astean behin elkartzen ziren, Andres haren bila joanda. Ordezkoren bat ere bidali zuen inoiz. Errepikapena omen zuen oinarri metodoak, galde-erantzunak, eta hiztegia ere ikasi behar zuten etxean. Hiztegirik gabe, ez baituzu hitzik. Bada behin eta berriz entzun eta idatzitako hitz horiek oraindik gogoratzen dituen ikaslerik, baita liburua gordetzen duenik ere. «Beltzez jantzitako emakume bat...». Barruraino sartu zitzaion. Ana Marirekin ez zegoen denbora galtzerik. Berak ez zuen denbora galtzerik. Hasieran hasi eta amaieraraino jarraitzen zuen. Ama zen jada garai horretan, eta inoiz ere bere etxean eman zuen klasea. Poztu egiten zen ikasleek jarraitu egiten ziotela eta ulertzen zutela ikustean. Horrekin ordainduta dago dena.



Ereintza elkarteko antzerki-taldeko partaide batzuk. Ana Mari eskuineko lehenengoa da. 1962.
Iturria: *Errenteriako seme alabak*.



Ereintza elkartea. 1961.
Ana Mari makurtuta dago.
Bigarrena da eskuinetik hasita.
Iturria: *Errenteriako seme alabak*.

Andresek eta Ana Marik lau haur izan dituzte. Horri lana, gau-eskolako klaseak (astean bi saio gehi prestaketa-saioa) eta Ana Mariren irakasle-ikasketak batu behar zaizkio. Dena batera. Azken batean, haientzat egundoko ahalegina izan zen gau-eskolan irakasle ibiltzea. Ana Mariren amak asko lagundu zien garai horretan, bestela... nola? Baina kezka soziala zuten energia-iturri, kezka kolektibo bat. Horrek bultzatuko zituen goizetik gauera arte. Ahalegin horrek emaitza ekarri zuela jakitun dira, eta uste dutena baino oparoagoa: ereiten diren haziek beren fruituak izaten dituzte beti, nahi direnak edo beste batzuk. Ikasi zuten, lagunak egin zituzten, irakatsi zuten, eta garaiko ikasleetako batzuek euskaraz hitz egiten dute gaur egun ere, batez ere Ana Mariren amaren jaiotetxera praktikatzera joan zirenek. Horrek eta egindako lanak gogobetetzen ditu biak. Izan bedi testu hau ahalegin horren aitortza ere. Eskerrik asko.

Franco hil zenean eta egoera aldatzen joan ahala, gau-eskola utzi egin zuten, beste batzuek lanarekin jarraituko zutelakoan. Beste zeregin batzuk zituzten.

Baina, non dago etxearen eta plazaren arteko muga, lerro ikusezin baina sendo hori? Zer uzten dugu muga horren alde batean eta zer beste aldean? Nork zeharkatu dezakete muga hori? Emakumeok etengabe hautatu behar dugu non kokatu? Eta zeren trukean, hautu oro?

Ana Marik mugaren bi aldeetan egotea erabaki zuen. Horretarako babesa eta ausardia izan ditu, baditu. Etxean eguzki-izpietatik eta begietatik urruti gelditu behar omen zuena plazaraino eraman zuen, plazaren erdi-erdian ipini zuen. Eta kalean soilik egon zitekeena etxeraino eraman zuen, inork ikusi nahi ez duen bazterrera, interdependentziaren eta gorputz soilen bazterrera.

Beharbada, ez zen jabetu eredu izan zitekeela beste emakume batzuentzat. Gau-eskolan, aitzitik, bazegoen arretaz begiratzen zion emakume gazte bat, haren hitzak ondo gogoratzen dituena oraindik: haziak lur emankorra aurkitu zuen.

Ana Marik dioen bezala: «mugitua izan da»

Pilartxo Olaskoaga Juanikorena,



ERRENTERIAREKIKO KONPROMISOAREN IBILBIDEA

Jaio garen herria, hazi garen herria, bizi izan garen herria... Herriak norberaren izaeran, munduari begiratzeko eta ulertzeko eran, eta lurrari sustraitzeko moduan eragiten digu.

Maite Ruiz de Azua Lizaso

Komunitateari nortasun berezia ematen dio, baina gutako bakoitzari nortasun indibiduala garatzeko gune ezberdinak ere eskaintzen dizkigu. Herrikideok historia, ohiturak, bizipenak, edota gertaerak bereganatu egiten ditugu, hortaz, lekuko ez ezik protagonista ere bihurtzen gara, eta eragile-papera hartzen dugu herriak gure herria izaten jarrai dezan.

Errenteriaren nortasunaz arituko gara, oso profil zehatza duena. Herriarekiko harreman horretan erakundeak, elkarteak, hainbat talde, kuadrillak, ikastetxeak eta mota askotako eragileen ekarpenak aipa daitezke, baita izen-abizen ugari ere, eta mugimendu horretan nonahi aurpegi aski ezagunak aurki ditzakegu.



Errenteria Hiria Kulturgunean, *Bidegileen bila* antzezlana, Ereintza elkartearen 50. urteurrenean (2008-10-11). Ezkerretik eskuinera: Sabin Irastorza, Atanasio Arruabarrena, Arantza Perez Gaztelu eta Pilartxo Olaskoaga

Hau guztia aipatuta, pertsona batzuk burura etorriko zaizkizue zalantzarik gabe, eta meritua inori kendu gabe, lerro hauek guri etorri zaigunari eskainiko dizkiogu, bera Pilartxo Olaskoaga Juanikorena da.

Badakigu Pilartxo Olaskoaga-Mikel Ugalde tandema banaezina dela irudituko zaiela askori, baina oraingo honetan Pilartxorengana hurbilduko gara, bera protagonista, Errenteriarekin daukan lotura ezagutzera.

Errenterian jaioa da Pilartxo, Morrongileta kalean, hain zuzen ere. Ama, Irene Juanikorena, zubitarra zen, baina gaztetan lan egitera iritsi zen gure herrira, Urangatarren etxean, eta berehala egoitza berrira egokitu zen; aita, Florentino Olaskoaga, ordea, Errenteriakoa zen. Bikoteak bi seme-alaba izan zituen: Joakin eta Pilartxo. "Gurasoak alaiak eta irekiak ziren", gogoratzen du Pilartxok, baita amaren euskararen doinu berezia eta aitaren izaera herrikoia. Etxean euskara, euskal zaletasuna, sinismena eta lanarekiko konpromisoa ziren balio nagusiak. Haurtzaroko Errenteria desberdina zen, kontatzen du Pilartxok, Morrongileta kalean baratzak eta bidezidorrak zeuden. Saltzaileak (esne-banatzaileak eta antxoa-saltzaileak, besteak beste) etxeetara etortzen ziren. Bera, haurra zela, etxe inguruan ibiltzen zen beti, eta pasadizoen artean hauxe gogoratzen du: "Nere amak denda txiki bat zeukan eta askotan laguntza behar izaten zuen. Gogoan dut egun batean ogi bila bidali ninduen Lekuonara, Erdiko kalean zegoen dendara, bidean nekatuta eseri nintzen Pekingo erreka gurutzatuz zegoen harrizko petrilean eta ogi pare bat uretara erori zitzaizkidan. Ze larritasuna amari esan beharra! Garai hartan dendetan ez zeuden tresna aurreratuak, ama azkarra zen labainarekin, txorizo xerrak fin-finak egiten. Txorizo gutxirekin ogia bete egin behar zen".

Garai hartan mutilen formazioari garrantzi handiagoa ematen omen zitzaion gizartean. Horrela, berak mojen eskolan ikasi zuen, gaztelaniaz, ohikoa zen bezala, baina hori "ez zen arazorik izan euskara biziki etxean mantentzeko, eskolatik erdaraz etorri, baina atetik sartu orduko euskara zen hizkuntza bakarra". Lehenengo mailako ikasketak burutu ondoren, kontabilitatea ikasi zuen Miren Gezalaren akademian, eta 15-16 urte zituela, irakasle honen bitartez, Fenix

gabardina-lantegiko bulegoan lanean hasi zen.

Adin horrekin, gutxi gorabehera, euskara zein euskal gogoa bultzatzeko kezka sortu zen berarengan eta bere lagunengan, zerbait egiteko beharra ikusten zuten, eta aldi berean lagun hurkoari laguntzeko nahia piztu zitzaien. Horregatik Elizaren mugimenduaren barruan sorturiko JIC (Juventud Independiente Católica) taldera hurbildu ziren, non Maria Jesus Urruzolaren laguntzaz euskal dantza taldea sortu zen.

Badakigu Pilartxo Olaskoaga-Mikel Ugalde tandema banaezina dela irudituko zaiela askori, baina oraingo honetan Pilartxorengana hurbilduko gara, bera protagonista, Errenteriarekin daukan lotura ezagutzera.

1958an Ereintza elkartearen sorrera Errenteriako euskal kulturgintza sustatzeko prozesuan erabakigarria izan zen, eta bertan gazte asko, Pilartxo tartean, parte hartzera animatu ziren. Hasiera hartako Andoni Kortaren laguntza gogoratzen du bereziki: "Gizon apala, euskalzalea, pazientzia handikoa, maitagarria, eta guzti horri esker antzerki taldea sortu zuen. Berak antzerkiak bilatu, egokitu, bakoitzaren izaera kontuan izanda, paperak banatu eta pazientzia handiz, gurekin orduak sartuz, Alameda zineman emanaldia Madalenetan izaten zen. Herriko jendea pozik joaten zen, denok elkar ezagutzen genuen, eta beraiekin guk ere gozatzen genuen". Euskal jaiak, antzerkia, dantza... horretan joaten zitzaizkien gaztetako igandeak, baina hau guztia tuberkulosia zuten gaixoei laguntzeko gogoarekin uztartuta egiten zuten, gaixoak egungo Amara ospitalea den eraikinean ingresatuta egoten ziren. "Garai hartan bisita gutxiago izaten zutenez, beraiekin hitz egin... kanpoko aldean dantzatzen genien zinta dantza, arkoak, edo arrantzaleak. Gure nahia poz pixka bat ematea zen. Beraiek teilatupeko terraza zuten luzera guztian, gelatik atera eta dantzan ikusten gintuzten ahal zutenek".

Aipatu dugunez, oso gazterik hasi zen lanean, baina bere lehenengo lantokia laster utzi zuen. Felix Oiarbide etxe-eraikitzaileak bere bulegoan lan egitea proposatu zionean, baiezkoa eman eta 42 urtez, hau da, erretiroa hartu arte, Oiarbiderekin lan egin zuen. Berarekiko hitz goxoak ditu Pilartxok, "apala, hurbila, errespetu handiz jokatzen zuena", lana eta familia uztartzeko erraztasunak ere ematen zizkion.



1966an, Donostiako Sanatorioan dantzatzen. Eskubitik lehenengoa, Pilartxo



2008ko Inauterietan

"Nere aldetik saiatu nintzen beti berari ahal nuen ondoen erantzuten, bulegora zetozen guztiak ongi hartu eta ahal nuena lagundu". Bulegotik hainbeste errenteriar pasatu ziren, non guztien ezaguna egin zen.

Ereintza elkarteko kide izateak Pilatxoren bizitzarako beste alderdi aipagarri bat izan zuen, izan ere, gazte talde horretan ezagutu zuen Mikel Ugalde eta bere bikotekide bihurtu zen. Orduan Pilartxok 19 urte zituen, Mikelek 26, eta ordura arte bakoitzaren bidea oso desberdina bazen ere, balore berdintsuak zituztela konturatu ziren. Bi urte geroago ezkondu ziren.

Adin horrekin, gutxi gorabehera, euskara zein euskal gogoa bultzatzeko kezka sortu zen berarengan eta bere lagunengan, zerbait egiteko beharra ikusten zuten, eta aldi berean lagun hurkoari laguntzeko nahia piztu zitzaien.

Ezkondutako lehenengo urteak ez ziren errazak izan, aitortu digu Pilartxok: "Nere gurasoen etxera (ezkondu ginen), ez genuen etxe batean sartzeko poltsarik, nere amak denda utzi zuen nik lanean jarraitzeko. Handik hamar hilabetetara Idurre jaio zitzaigun. Orduan ez zegoen haurtzaindegirik eta amak zaindu zuen. Hor bukatu ziren nere ekintzak, antzerkiak, dantzak".

"Nere egitekoa trukatu zen Idurre jaioa zenez, lana bukatutakoan erosketak egin eta etxera, alaba goxatu berarekin egon, hitz batean familia eta lana neretzako izan ziren lehenengo egitekoa".

Halaxe igaro ziren lehen urte horiek, bulegoko lanetik etxeko lanera. Alde batetik, familia atenditzeko egoera berriari aurre egin behar zion; bestetik, elkarrekin eskaintza ezberdinak aztertu ondoren, Mikel hainbat lanetatik pasa zen, euskararekiko eta euskaltasunarekiko konpromisoa garatzen lagunduko zion aukeraren bila. Honetan ere Pilartxoren parte hartzea ezinbestekoa izan zen, elkarrekin "aztertzen genituen alde onak eta alde txarrak, herriaren eta euskararen aztarna jarraitzeko asmoz". Beraz, erabaki horiek posible izan ziren Pilartxoren etengabeko laguntzari esker, baita lasai bizitzeko bere lanaren egonkortasun ekonomikoari esker ere.

Alabak 18 hilabete zituela, beste erronka bati heldu zioten. Dirudienez, Mikelek bere formakuntzarekin lotutako Filosofia Eklesiastikoaren ziurtagiria Erroman lor zezakeela jakin zuten. Orduan, urte batez, Erromarako bidaiak hasi ziren. Joan-etorri horietan Pilartxok familiaren eta ekonomiaren euskarri izaten jarraitu zuen. "Haruntzean, Hendaiara trenera laguntzen nion, agurtzea gogorra izaten zen, 24 orduko bidaia. Zetorrenean, berriz, Felixek, nere nagusiak, autoan eramaten gintuen Idurre eta ni Hendaiara. Ze poza!!!", gogoratzen du. "Titulazioa lortu zuen, baina konbalidazioa egiteko lau asignatura gainditzeko Valentziara joan behar zuen. Haritz jaio zitzaigun egunean, 6:30ean jaio eta Mikelek trena zeukan 9etan, Haritz eta ni ondo geundenez, hantxe joan zen Valentziara".

Mikelen lan-aldaketetan eta helburuetan Pilartxo zutabe bihurtu zen, askatasunez bat egin zuen, bidea erraztea izan baitzen hartutako bere bizitzako erabakia. Eskuzabaltasuna goraipatu nahiko genuke, nahiz eta bere hitzetan ez hauteman, apaltasun handiz hitz egiten baitu horretaz guztiaz: "Nere ekintza guztiak utzi behar izan nituen, dantzak, antzerkiak, bixitak eta abarrekoak. Garai hartan Andra Mari Abesbatza sortu zuten. Neri abestea asko gustatzen zitzaidan, eta ahotsa hor nonbait neukan, baina nola utziko nituen haurrak amarekin ni entsaiora joateko?".

Lehentasuna familian jarri du beti, hori oso argi du Pilartxok, baina horrek ez du eragotzi herrian presentzia handia izatea, eta nabarmenago egin da lanaren eta familiaren kargak arindu diren heinean. Nola ahaztu inauterietako mozorro bereziak eta Errenteriako kaleetan egiten zituzten parodia dibertigarriak! Bikotea ikusteko zain egoten ginen denok. Umorea oparitzea izaten zen xedea: "Guretzako garrantzitsuena beti izan da jendea barrez ikustea, bizitzan egun grisak asko daude. Oso gogoan izan ditugu ezinduak..., beren etxepean jarri eta ikusi zezatela beraiekin geundela. Abesti denen egilea Mikel izan zen beti. Jendea kantuan jarri, euskaraz noski poztu, eta gozatu arazi". Laguntzaile papera betetzen zuela komentatzen duen arren, antzezpenaren prestaketak Pilartxok egiten zituen: "Nik prestaketetan gauari ordu asko kendu izan dizkiot. Erdizka ibiltzea ez zait gustatzen, duintasunez eta pozez baizik". Azken xehetasuneraino, modu berean Inude eta Artzainak konpartsaren desfilean ikus genezakeen, dotore-dotore jantzita.

Gaur egun, gurasoengandik jasotako balioak bere bizitzaren ardatza dira, une oro gogoan ditu eta praktikara eramaten jarraitzen du oso aktibo eta pozik, transmisioa ez eteteko. Fedeari buruz eta nola bizi duen, honako hau esaten digu: "Goizean jaiki beranduenez 8etan Otoitz egin hurbiltasunaren otoitza gaizki pasatzen ari direnak, gaixotasunaren menpe daudenak, bakardadean bizi direnak, buruko arazoarekin dabiltzan gazteak...". Astean behin otoitz talde batean parte hartzen du eta euskal dantza saioetara ere joaten da. "Erlijioak asko eman dit, nik neronek nere erara bizi izan dutelako. Jesusen bizitza izan da nere eredu. Elizak asko aldatu behar du. Horrelako tirabirak izatea, aldaketa sakon bat lortzeko, penagarria iruditzen zait.



Inude eta Artzainak konpartsan.

Umorea oparitzea izaten zen xedea: "Guretzako garrantzitsuena beti izan da jendea barrez ikustea, bizitzan egun grisak asko daude.

Baina lasai, nik bizi dut Jainkoaren presentziak bakea ematen dit, eta laguntzen dit begiak zabalik izaten, aldameneko norbaitek nere beharra baldin badu konturatu nadin". Beste zutabe bat familia du, Mikel beti ondoan, eta "seme-alabak eta hiru bilobak gure barruan sentitzen ditut, eta egunero, egun bat galdu gabe, gogoan ditut, eta betirako. Askotan pentsatzen dut beraiek nola bizi ote duten".

Naturaren pertzepzioa ere fedearen bidez jasotzen du: "Naturak Jaunarengana hurbiltzen nau. Izadiak, txoriaren kantuak, errekaren ur soinuak, belarraren usainak, mendiaren kolore aldaketak, eguzkia dela medio, egunsentia, eguzki sartzeak...". Euskararen alde lanean bizitza osoa igaro du, "hizkuntzak harremanetarako, otoitzerako asko eman dit: goxotasuna, hurbiltasuna...".

Errenteriak zer eman dion eta errenteriarrei zein mezu helarazi nahiko liekeen galderei erantzunez, hau esan digu: "Errenterian jaio, bizi, herria eta herritarrak maitatu, bertako sentitu, eta herriko zenbait ekintzatan parte hartuz eta gozatuz bizi. Madalenetan *Centenario*a entzun orduko hankak dantzan jartzen zaizkigu, bandaren atzetik joatean (batez ere lotsa galdu nuenean), hasieratik bukaera arte ezin gelditu. Xanti eta Maialenekin egin genuen esketxa ere oso polita izan zen.

Euskararekiko nere eskaria errenteriarrei, euskara maitatzeko, erabiltzeko, ez dadila trakestu. Ikastolan, gaurko eskoletan, euskaraz irakasten da, ez da gure garaian bezala. Guk bultzatu genuen ikastola, gure seme-alabek euskaraz ikasketak egin zitzaten. Joxean Artzek esaten zuen bezala, *Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik*".

Bukatzeko, alde batetik, Pilartxori eskerrak eman nahi dizkiogu bere pertsonaren ateak ireki dizkigulako. Bestetik, herriaren arimaren mekanismoa herrikideek egin eta martxan jartzen dutela ikusita, Pilartxori eskerrak berriz ere Errenteriatik jasotako guztia umiltasunez, umorez, gogoz, konpromisoz biderkatuta itzuli diolako.



Pilartxo eta Mikel bilobekin:Leire, Ainhoa eta Urko.

Txomin Perurena: ORGA ETA BIZIKLETA

KapitaneneKOa

ORGA izan zen Txomin Perurenak aukeratu zuen bidea afizio bat – bizikleta zaletasuna -, ofizioa – txirrindularitza - bilakatu ahal izateko. Joan den mendeko 50eko hamarkada hondarrean, ORGA eta bizikleta uztartu ziren Txominen bizitzan, oraindik hamalau urte bete gabe, mutikoa zenean, denbora eta leku jakin batean, Errenterian, Madalen ermita ondoko mekanika-tailer batean. Istorioa hurbila baino gehiago etxekoa dut eta ezagutzera eman nahi nuke, ahanzturatik ateratzeko eta ORGA horren protagonista izan ziren gizon-emakumeak eta garai bateko Errenteria gogora ekartzeko.

Iaz hil zen Txomin Perurena Telletxea (Oiartzun, 1943-12-15 / Donostia, 2023-06-08). Bere hitzek osatuko dute historia hau, baina ez zuzenean hartuak. 2019an hitzordua egina genuen gai honi buruz mintzatzeko, ez genuen aukerarik izan; pandemia etorri zen gero eta ez nuen izan hemen kontatuko dena berarengandik zuzenenean jasotzeko modurik. Txominek istorio honen hainbat zantzu eta oihartzun utzi dizkigu egin zituen elkarrizketetan eta berak idatzitako kroniketan. Perurenaren hitzak erabiliko ditut memoria eraikitzeko. Beste batzuen artean, Euskadi Irratian 2012an Joxe Mari Apaolazak egindako elkarrizketan eskainiak, Arantxa Elizegi Egilegorrek jasotakoak *Berria*n 2013ko uztailaren 28an argitaratutako elkarrizketan eta Txominen 75. urteurrenaren harira Oskar Ortiz de Guineak egin zion eta *El Diario Vasco*n 2018ko abenduaren 15ean argitaratuko elkarrizketan. Horrekin batera, Txominen eta ORGAren arteko historia argitzeko, Antonio Aranburu Ordozgoitik –lehengusuak- bere testigantza eskaini dit. Esan bezala, istorio hau familiakoa dut.

Euskaltzaindiaren Hiztegiak "zamak eramateko erabiltzen den bi edo lau gurpileko ibilgailu" gisa definitzen du orga. Ez da hori hemen ORGAk izango duen esanahia, garaje baten izena baizik. Errenterian kokatutako ORGA horretara Txomin iristen ikusteko, lehendabizi urte batzuk atzera eta Oiartzuna jo behar dugu. Istorio guztiek hasiera bat dute eta honek Altzibar auzora garamatza eta handik Astigarragako Bentara, Errenteriako ORGAra iritsi aurretik. Bide hori bizikletaren pedalei eraginda egin zuen Txomin Perurenak.

TXOMIN BIZIKLETAN ORGA BIDEAN

Txomin Perurenak bizikletarako afizioa ume-umetatik izan zuen. Oiartzuarra jaiotzez eta izatez, "ni beti oiartzuarra" harro zioen Txomin Perurena Telletxeak. "Aita [Fermin] Goizuetakoa, ama [Juanita] Lesakakoa, San Anton edo Endara auzokoa; eta ni, nahiz eta hamaika urterekin herritik atera eta Oiartzunen baino denbora gehiagoan bizi izan Donostian eta Madrilen, beti izango naiz oiartzuarra, bertan jaio nintzelako".



Perurena Benta.

Zortzi-hamar urteko mutikoa, bere haurtzaroko Altzibar auzoan umetan heldu zion txirrindularitza zaletasunari Perurenak, bizikleta bat izatea oraindik urrutiko ametsa zuen garaian. "Gu txikitan Altzibarren bizi ginen, eta, jendea auzoko tabernetan sartzen zenean, maiz bizikletak kanpoan utzi, eta, gu mutil kozkorrak, isil-isilik haiek hartu, nola edo hala hankak sartu kuadro tartetik eta atzera eta aurrera ibiltzen ginen, eta gero, ahal bazen inor konturatu aurretik, lehengo lekura itzuli. Askotan, gainera, bizikletako katearekin trabatu, zikindu eta min hartu ere bai. Jendeak bazekien nola ibiltzen ginen, besteren bizikletekin, baina ezagutzen gintuzten, eta ez ziguten gauza handirik esaten. Bizikleta bat ez zuen edonork. Niri ilusio handiena egiten zidan amaren lehengusu bat Irundik Oiartzuna etortzen zenean, bere bizikleta gainean. Halakoetan, haren bizikleta hartuta ibiltzen nintzen batera eta bestera. Baina haren senarrak ere bazuen familia auzoan, eta haiek ere bizikletan ibili nahi izaten zuten, eta hantxe ibiltzen ginen borrokan. Hura izaten nuen nik ilusio handiena".

Txominek hamaika urte zituenean, 1953an, bere aita-amak, Fermin Perurenak eta Juanita Telletxeak, Astigarragako Bentako taberna eta etxearen parte bat hartu zuten alokairuan eta familia osoa, gurasoak eta lau anai-arrebak (Mari Karmen, Txomin, Bixente, Pakitatxo) bentara joan ziren bizitzera eta lanera. Lehenagotik ere bazen bertan taberna, "Venta de Otegi" edo "Venta de Astigarraga" izenez ezaguna. Handik aurrera, Perurenatarren egoitza eta taberna bilakatuta, Astigarragako Bentak familiaren izena hartu zuen, Perurena. Astigarragako Bentan bizi izan zen Txomin ezkondu zen arte; Perurenaren hitzetan, "ni astigartar adoptatua izan nintzen 11 eta 23 urte bitartean".

Eskolan ikasi, etxean tabernako lanetan lagundu, hazi eta hezi zen Txomin umea. "Hasieran gustura joaten nintzen eskolara. Oiartzundik Astigarragara joan ginenean, izeba batekin egin nituen urte pare bat, eta orduan ere oso gustura joaten nintzen, baina gero Errenteriara bidali ninduten, arteak eta ofizioak ikastera, eta han ez, han ez nengoen batere gustura. Han zeuden gazteak ni baino aurreratuago zeuden, eta ez nintzen eroso sentitzen".



Matxain tailer-dendaren jatorrizko kartela, egun.

Astigarragako bentako tabernako lanak behartu zituen Perurenatarrak bizikleta erostera, ibilgailu moduan. Txominen hitzetan, "bizikleta izan zen guretzako erremienta bat, beste baserri eta etxe askotan izaten zen bezala, lanerako erremienta bat". Zergatik eta zertarako? Txominek emandako erantzuna ezin argiagoa da: "lanera joateko edo erosketak egiteko garraio modua zelako. Periko Matxainek prestatu zigun gure lehen txirringa, ez karrerak egiteko, mandatuak egiteko baizik. Familia osoarentzako bizikleta mistoa, badakizu, koadroan barrarik ez duen horietako, neska eta mutilentzat balio zuen, ez baitzen etxean gehiagorako iristen. Harekin ibiltzen ginen bai Errenteriara, bai Astigarragara, bi herri horietara gehienbat, enkarguak egiteko. Txirringarik gabe, oinez joan beharra zegoen. A ze aldea!".

Txirrindularitza-zaletasunaren harra barru-barruraino sartua zuen Perurenak. "Pentsatu, gu haurrak ginela, karrerak ikustera joaten ginen etxe ondotik pasatzen zirenean, bidoiak ematera eta abar. Eta euria zenean eta goitik behera etorri behar zutenean, goian jarri beharrean behean jartzen ginen nola erortzen ziren ikusteko".


Peugeot
BP
LUIS OTAÑO
BP
Cycles PEUGEOT - BP

Txirrindularitza gustuko kirola zuen eta lasterketak bere etxe ondotik, Perurena taberna aurretik, pasatzen ziren. Garai hartako heldu eta haurrentzat erreferentziazko kirola zen txirrindularitza eta Oiartzungo eta Perurena tabernako lagun arteko giroan bizikleta zaletasuna nagusi zuen Txominek. "Jendeak txirrindularitza asko bizitzen zuen, txirrindularitza tenporada asko bizitzen genuen, gogoratzen naiz jendea tabernatik etortzen zenean, nahiz zuzenean ikusi ez, baina gutxienez irratian entzun eta ezagutu eta hitz egiten zen. Afizioa inguruan handia zen eta gero lagun artean, hiru bizikleta baziren ea zein lehenago, lasterketan".

Gainera, denbora hartan oso gertuko erreferenteak eta idoloak zituzten txirrindularitza zale haiek, hala nola Luis Otaño, errenteriarra edo Joxe Mitxelena, oiartzuarra, jardunean ziren txirrindulariak biak ala biak. Edo Periko Matxain bera, txirrindulari profesionala 1947tik 1954ra bitartean. Matxainek Errenteriako Nafarroa hiribidean, Papelerako zubi aurrean zuen bizikleta tailer zaharra imana bilakatu zen gazte zaletu haientzat. Gisa horretan, tabernaren beharretarako eta familia osoarentzat Matxaini erositako lehen bizikleta hark areagotu zuen Txomin mutikoaren ametsa. "Mandatutarako bizikleta. Gero lagunen artean lasterketak sortzen dira. Txirrindularitza jarraitzen genuen eta denbora asko ematen genuen Matxainen tailerrean. Velosolex, Orbea edo Mobylette [motor] bat eman izan balidate, ziurrenik ez nintzen txirrindularia izango".

Ez zuen oraindik lasterketetarako bizikleta propiorik eta utzitako txirringekin korritu behar zuen Txomin umeak, "Fermin Niñok eta bere koadrilak (Morrondo, Burutaran, Beloki, Ortiz de Guinea anaiak...) bizikletaz igotzen ziren Astigarragako bentaraino eta eskutik helduta ekartzen zidaten karreretarako bizikleta bat. Niñok bere bizikleta gainean, esku ondoan hartu beste bizikleta bat niretzako, eta bentaraino ekarri. Beraiekin joaten nintzen kilometro mordoxka egitera. Eta bentara bueltatu ondoren, hartu berriz Feminek ekarritako bizikleta eta bere etxera. Eta hori ez behin bakarrik, baina askotan". Lagun taldeak utzitako bizikleta horrekin egingo zituen Txominek ibilbide luzeko lehen irtenaldiak, "Errenteria-Oiartzun-Astigarraga ibilbidetik kanpo egin nuen lehen irteera Eibarrera izan zen, Arrateko Igoera ikustera joan ginen. Joan-etorria egin genuen eta gero bizikleta hartu eta etxera bueltatu ziren".

Ohiko ibilbidea Errenteriara eta Astigarragara zuen Txominek, tabernarako enkarguak zirela medio. 2018ko Espainiako *Vuelta*ko 10. etapak Zamora probintziako Fermoselle udalerrian izan zuen helmuga. Txomin Perurenak honako hau idatzi zuen *El Diario Vasco*ko hurrengo eguneko bere kronikan: "Fermoselle, bisitatzeko aukerarik izan ez dudan herria da. Baina, bitxia bada ere, txirringaz egin izan nituen lehen irteerak Fermoselle zuten helmuga. Gure tabernarako erosketak egiten nituen Errenterian [Jardin txikian kokatutako] izen bereko janari-dendan. Bere jabea, zamorarra, Fermosellekoa zelako deitzen zen horrela".

AFIZIOTIK OFIZIORA ORGAREN BITARTEZ

Etxetik kanpo lanean hastea erabaki zuen hamahiru urteko umeak, tabernako lana ez baitzuen gustuko. Txomin Perurena 1957an hasi zen lanean, laguntzaile, orduan ireki berria zen ORGA garaje-tailerrean. Abendukoa izanda, hamalau urte oraindik bete gabeak zituen Perurenak lanean hasi zenean. "Enkarguetara joateko egunero-egunero pasatzen nintzen ermita aurreko garaje horren paretik eta ate ondoan geratzen nintzen begira. Egun batean, etxean ezer esan gabe, *pintxe* bat behar ote zuten nagusiari galdetzera atrebitu nintzen. Mekanika lana asko gustatzen baitzitzaidan. Gero mekanikako lanak baino gehiago garbiketak eta horrelakoak egin behar izan nituen... Badakizue *pintxe* lana zein izan ohi den... Lana eskatu eta eman zidaten eta horrela, hamalau urtetatik eta hamasei urte arte hantxe aritu nintzen lanean".

Bere 75. urteurrenaren harira egindako elkarrizketetan, 2018an, galdetu zioten Perurenari noiz bihurtu ahal izan zuen afizioa ofizio. Txominek aho bizarrik gabe erantzun zuen, "txirrindulari egiteko arrazoietako bat tabernan



ORGA garajea hirurogeiko urteetan

ez bukatzea izan zen. Bueno, guk bagenuen taberna bat Astigarragako bentan, baina niri ez zitzaidan hango lana gehiegi gustatzen, eta Errenterian Madalenako ermita aurrean zegoen tailer batean hasi nintzen lanean. Orga tailerrean, ORGA, ORdozgoiti-GArcía. Bi nagusi nituen, bata goierritarra, bestea aragoiarra; Ordozgoitik Domingo eta Garciak Txomin deitzen ninduten".

Garai hartako beste gazte batek, Antonio Aranburu Ordozgoitik, gogoan du Txominen *pintxe* lan garai hori. Antonio Aranbururen hitzetan, "1957ko irailean hasi nintzen lanean ORGA garajean, ordurako Txominek laguntzaile lanak egiten zituen tailerrean. Piezak garbitu, garajea txukundu, erremintak eta ordekoak ekarri, mandatuak egin eta garajeko lanetan laguntzea zen bere egitekoa. ORGAn izan nintzen bitartean, *pintxea* izan zen Perurena bertan. Ogi puska bat baino hobea, mutil zintzoa zen eta beti bere bizikletarekin gora eta behera, horrela gogoan dut Txomin".

Berrogeita hamabost urte geroago, 2012an, Txomin Perurenak gogoan zituen oraindik garajean egindako lanaren bitxikeria batzuk: "artean ez zegoen labadora eta horrelakorik, eta ni arduratu behar nintzen buzoa garbia izateaz. Larunbat arratsaldean etxera ekarri, igandean eskuz garbitu eta ahal zen bezala lehortu. Astelehenean buzo garbia zeraman bakarra ni nintzen".

Ezin jakin Txomin Perurenak gogoan izango ote zuen ORGAko *pintxe* moduan bete zuen beste lan bitxi bat. 1959ko udaberrian, hamabost urteko garajeko *pintxeak* bere ohiko zereginei umezain izatea gehitu baitzion. Perurena haurtzaina izan zen, kangurua. Umearen amak enkarguak egiten zituen bitartean, Kapitaneneko haur jaioberria gobernatzea izan zen bere lana. Zeregin gehigarri hori garajeko lana baino garbiagoa zen, eta hilabete gutxi batzuk iraun zion. Umezain lanen ordain gehigarri gisa, Txominek txokolate ogiarekin jasotzen zuen, garai hartan benetako kutixia. Horrela kontatu izan didate, bederen.

ORGA garajean irabazitako diruarekin eta amaren konplizitatearekin erosi ahal izan zuen Txomin Perurenak bere lehen lasterketarako bizikleta. "Gogoan dut oraindik zenbat irabazten nuen ORGAn *pintxe* lanagatik. Hileko 600 pezeta ziren, hamabostean behin kobratuta. Irabazitako diru guztia, ohi zen moduan eta gure aitak erakutsi zigun bezala, amari ematen nion". Perurena-Telletxea familiaren etxean, amak zeraman etxeko gobernua. "Etxeko martxa amak kontrolatzen zuen. Oso ondo gogoratzen naiz,

aitak soldata kobratzen zuenean eta orduan hamabostetik hamabostera kobratzen zen, sobre marroi batean sartuta amari ematen ziola eskura, gure aurrean. Eta gero igandea ailegatzen zenean amak ematen zizkion bere gastuetarako hogei duro. Hori Altzibarren bizi ginenean. Euskal Herriko beste etxe askotan bezala, fundamentua amak jartzen zuten".

Eta ama izan zen bere zaletasunean aurrera egiten Txomini lagundu ziona. "Amak, erdi gordeka, lagundu zidan. Gaur egun, bizikletan hasteko laguntza asko daude; garai batean, norberak bere poltsikotik jarri behar zuen. Neronek ere amari esker egin nuen; aitak jakin izan balu zenbat balio zuen aldagailuak edo tubular batek, botako zuen txatarretara bizikleta!".

Matxainen bizikleta-tailer eta dendan erosi zuen Perurenak lasterketarako txirringa, epeka pagatuta. "Koadroa Altsasuko Letona markakoa zuen, Simplex materialarekin hornitua. Ez Campagnolo batzuk, merkeenak baizik. Bizikleta xumeena. Hark niri egin zidan ilusioa, egungo bizikleta onenak ere ez zidan egingo. Garai hartan platoaren aldagailuak hagaxka bitartekoak izan ohi ziren, baina nire bizikleta hark plato eta piñoien aldagailuak, biak, palanka bitartekoak eta goian zituen, koadroan. 5.000 pezeta kostatu zitzaigun Matxainen, epeka pagatuta. Kartilatxo bat bazuen Matxainek, eta pixkanaka ordaintzen joan ginen".

ORGA garajeko garaia gogoan zuen Txomin Perurenak, txirrindulari iristera izateko, hazi eta hezitzeko, balio izan baitzion. Ez zen gutxiagorako, egunero entrenatzen zen lanera joan aurretik. Horrela zioen Perurenak: "Errenterian lan egiten nuen eta egunero entrenamendu bera egiten nuen. Jaiki eta oraindik barraurik, bizikletaz Bentatik Astigarragara jaitsi, handik Hernani eta Urnietara eta Andoainetik pasata Donostiara, azkenik Errenteriara iristeko. Errenterian, kafesnea zopekin eta ´´Lingotin`` txokolatetxo bat janez gosaldu, eta bederatzietarako lanera. Hori astelehenetik larunbatera, egunero".

Antonio Aranburu Ordozgoitik Txominen beste entrenamendu modu bat du gogoan.





Letona koadroa eta Simplex aldagailua.

"Garai hartan, beste lantegien moduan, ORGA garajean lanaldia zatitua genuen eta orduko ohitura zen eguerdiko otordua norberak bere etxean egin eta bazkalostean, arratsaldean, berriro lanera itzultzea. Perurenak ere horrela egin ohi zuen. Baina, eguerdian bere etxean –Astigarragako Bentan- bazkaldu ondoren, arratsaldean lanaldiari ekin baino ordu erdi lehenago bueltatzen zen tailerrera. ORGA garajearen inguruan erlojuaren kontrako hiri-zirkuitu bat muntatu zuen Txominek. Garai hartan ez zegoen ia trafikorik, ez auto eta ez kamioi askorik, semaforo eta zebra-biderik ez; ia ezer ez, eta bueltak nahiko azkarrak ziren, dena libre baitzen. Errenteriari buelta osoa ematen zion, Isatsetik Zamalbideraino eta buelta Agustinetatik, garajera. Nik kronometratu egiten nuen, arrebak ekarritako kronometro batekin. Ordu erdi ematen zuen Txominek

1961-10-08 Bergara.
ADAGOR
Lasterketaren hasiera eta txirrindulariak Uzarraga iturrian (Toribio Jauregi Funtsa).





itzulika, egunero, astelehenetik larunbatera. Buelta bakoitzak minutu gutxi batzuk irauten zuen, eta nik kronoarekin neurtzen nion: ¨Emaiok, mutil! Segundoan habil!¨ Eta Txomin amorratuta bueltaka. Horrela entrenatzen zuen".

Gisa horretan, ORGAn lanean zela, iritsi ziren Txominek korritutako lehen lasterketak. "Hamalau urte izango nituen eta Astigarragako Bentatik Altzibarrera joan ginen koadrilan bertan antolatzen zuten karrera bat ikustera. Iritsitakoan, lagunak animatzen eta zirikatzen hasi zidaten ateratzeko, eta halaxe egin nuen. Hasierara gindoazela ordea, atzekoak bizikletarekin jo eta katea atera zidan. Denak baino beranduago abiatu nintzen eta lasterketa guztia atzetik egin nuen eta horrela amaitu nuen. Hala ere, helmugan Iñaki Etxeberriaren amak, Julita Riverok, lore sorta bat eman zidan. Ez zitzaidan aho-zapore onik geratu ezbeharragatik, horregatik beti esan ohi izan dut nire lehen lasterketa Nuarben korritu nuela, baina lehenengo lore sorta Altzibarren eman zidaten. Nuarben ere ez nuen irabazi. 15 urte nituen, lehiatzeko adinik ez eta "no federados" gisa atera nintzen, 25-26 urteko jendearekin lehiatzera. Ez dakit tarteko helmugak irabazi nituen ala ez, baina gaztetxo eta borrokalaria izanik, Nuarbeko apaizak -Astigarragakoa bera- hogei zentimoko eskupekoa eman zidan. Lasterketa Urnietako batek irabazi zuen".

Antonio Aranburu Ordozgoitik ezin du zehaztu noiz arte izan zen Txomin Perurena lanean ORGA garajean, "Errenterian hemeretzi hilabete egin nituen, 1957ko irailean iritsi eta 1959ko martxoan joan nintzen eta Perurenak han segitzen zuen, Txomin karrerista hasi zenerako ez nengoen han".

Astelehenetik larunbatera lana egin garajean, goiz eta arratsaldez bizikletan entrenatu eta igandeetan irtenaldiak eta lasterketak egiten eman zituen Txomin Perurenak hamalau eta hamasei urte bitartea. Denbora horretan erabaki zuen txirrindulari izan nahi zuela eta 1960an eman zuen pausoa. "Arre edo so egiteko garaia iritsi zen. Afizionatuetan korritu ahal izateko adina izan nuen lehen urtean utzi nuen lana



1962-09-23 Txomin Perurena irabazle Bergarako Algodonera San Antonio II Criteriumean. Touring-Louit Caobania (Toribio Jauregi Funtsa).



1963-03-19 Txomin Perurena irabazle Bergarako Algodonera San Antonio III Criteriumean. Touring-GAC Mobylette. (Toribio Jauregi Funtsa).





1964-05-17 Txomin Perurena etapa irabazle Bergarako Mendekoste lasterketan. Olarra. (Toribio Jauregi Funtsa).



garajean. Hamasei urteak beteak nituenean, hori bete arte ezin baitzen jubenila izan eta nik urteak abenduan betetzen ditut".

Txomin Perurenak 1961eko urte hasieran utzi zuen ORGA garajea, hamasei urte bete berritan. Une horretatik aurrera, Txomin Perurenak txirrindularitza bidea jorratu zuen. Hernaniko ADAGOR Peña Otaño taldean hasi zen korritzen Perurena, Paulino Goikoetxearen zuzendaritza pean; talde horrekin lortu zituen Txominek beheko mailetako –jubeniletako- lehen garaipenak.

1962an, Txomin Perurenak Periko Matxain kirol zuzendaria zuen Touring-Louit Caobania Errenteriako txirrindulari taldearekin fitxatu zuen. Matxain funtsezkoa gertatu zen Txominen kirol ibilbidean, arestian ikusi dugun moduan, eta bereziki une horretatik aurrera.

Hemezortzi urte bete ondoren, 1963an amateur izatera pasa zen. Txominen hitzetan, "Touring Caobania/Touring Mobylette, Olarra eta azken urtea afizionatuetan, 1965ean, Fagorren izan zen". Ibilbide sendoa izan zuen Txominek bere amateur garaian, Olarrarekin eskualdeetako Espainiako txapelketa irabazi zuen, ondoren 1964ko Bidasoako Itzulia eta 1965eko Etorkizuneko Tourreko etapa bat, non Espainiako selekzioarekin parte hartu zuen.

Txomin Perurenari amateur izatetik profesional izatera pasatzeko unea iritsi zitzaion. 1966an gertatu zen, eta Txominek ondo hausnartuta hartu zuen erabakia, izan bazituelako bestelako aukerak. Perurenak modu naturalean egin zuen amateurretik profesionalerako urratsa, Periko Matxainek zuzentzen zuen Fagor taldearen eskutik. "Ni hasi nintzen urtean sortu zen Fagor afizionatuetan eta hurrengo urtean pausoa eman nuen profesionaletara Fagorrekin, taldearekin batera. Nire karreran, lehen pertsona klabea Periko Matxain izan zen. Niretzako suerte handia izan zen Fagor atera zela afizionatuetan eta hurrengo urtean (1966an) profesional mailako taldea egitea". Hortik aurrerako ibilbidea ezaguna da.

ORGA GARAJEA

ORGA garajea Frantzisko Ordozgoiti Aizpeolea eta Mariano Garcia Lasheras bazkideek sortu zuten. Enpresaren izena bi bazkideen abizenen akronimo bat zen.

ORGA garajearen historiaurrea Errenteriako Estensoro y Quiroga/Transportes San Jose garraio enpresan hasi zen. ORGA garajeko bi bazkideak Segundo Izpizua kalean kokatutako garraio enpresan elkar ezagutu zuten. Frantzisko "Pako" Ordozgoiti kamioi txoferra zen, Estensororen eskutik etorri zen Errenteriara eta Transportes San Joseko ibilbide luzeko garraioetan lan egiten zuen. Estensoro y Quiroga garraio-enpresako mekanika arduraduna zen Mariano "Bigotes" Garcia. Bien eskarmentua izan zen garaje berriaren hazia.

ORGA garajea ere bizi-proiektu baten emaitza izan zen. Pako Ordozgoiti eta Feli Juanenea 1957an ezkondu ziren. Bizitza berriari begira, ezkon kideak atzean utzi nahi izan zuten bakoitzaren lehenagoko ogibideak, Felik Mendiola jatetxeko zerbitzari lana eta Pakok ibilbide luzeko garraio-gidari lana, eta bien aurrezkiekin enpresa berria abiarazi zuten. Antonio Aranburu Ordozgoitik gogoratzen duen moduan, "Osaba Pakok txofer lana utzia zuen, errepidea utzi zuen,


GARAJE ORGA
REPARACION GENERAL DE AUTOMOVILES
María de Lezo, 19 RENTERIA Teléfono 55.688
Factura N.º
Sr. D.
de de 196
PESETAS

ORGA garajearen faktura.



ORGA sozietatea eratzeko kontratua.



ORGA garajea zabaltzeko udal baimena.



ORGA garajearen orubea egun.

izeba Felirekin ezkondu zenean. Garajean lanean izan nintzen garaian txofer lan bakar bat egiten zuen osabak Transportes San Joserentzat , San Joseren kamioi berriak Pasaiako portutik atera eta Errenteriaraino ekartzen zituen. Ibilgailu berrien "bedeinkapena" tio Pakoren zeregina zen".

ORGA sozietatea eratzeko kontratuaren arabera, Frantzisko "Pako" Ordozgoiti bazkide kapitalista zen, eta Mariano "Bigotes" Garcia bazkide industriala. Enpresaren hasierako kapitala 100.000 pezetako ekarpena izan zen, eskudirutan eta horregatik bazkide kapitalistak urteko % 4ko interesa kobratu behar zuen amortizatu gabe geratzen zen kapital ordainduagatik. Enpresaren mozkinen % 50a kapital xehatua amortizatzera bideratu behar zen, eta beste % 50a enpresaren funts komunera. Bi bazkideek egunean, astelehenetik larunbatera, gutxienez 8 orduz lan egingo behar zuten, 48 ordu astean, eta horren truke soldata jasoko zuten.

Garajea Madalena ermitaren aurrean kokatu zen, Maria de Lezo kaleko 18. zenbakian, Arruabarrena familiaren jabetzako pabiloi batean, lehenago Arruabarrenatarren kamioien garajea izan zena. Topoko biaduktuaren aurrean, Astigarragako errepidearen oinean eta Errenteriako garraio-enpresen epizentroan kokatua, solairu bakarreko pabilioiak albo batetik muga egiten zuen Magdalen-alde etxean kokatutako Bordondo tabernarekin, eta mugakidea zen atze-aldetik Fabril Lanera enpresaren Tintoreria Sin Rival lantegiarekin. Pabiloia alokairuan zegoen eta hasierako kontratuaren arabera, hilean bi mila pezeta ordaindu behar ziren, hilaren 5a baino lehen, eskudirutan.

ORGA garajea 1957an inauguratu zen, baina sorrerako dokumentu guztiak 1958koak dira (pabiloiaren alokairua otsailaren batekoa da, irekitzeko udal lizentzia maiatzaren hamarrekoa da eta sozietatearen sorrera irailaren batean sinatu zen). Ezin da zehaztu zein hilabetetan zabaldu zen ORGA tailerra, Antonio Aranburu Ordozgoitik hasiera puntu bat jarri digu, bera soldaduska egiteko Errenteriara etorri zenean garajea jada zabalik baitzen. "1957ko irailean iritsi nintzen garajera. Ordurako tailerra irekita

zegoen, denbora zeraman lanean, baina ez dakit zenbat. Han ziren jada, osaba Pako eta Bigotes, bi bazkideak. Biak bertan lana egiten zuten. Pako Ordozgoitik kudeaketa eta administrazioa zeraman, erosketa eta antzeko lanez arduratzen zen eta garajeko lanetan laguntzen zuen eta Mariano ``Bigotes´´ Garciak zuen mekanika lanaren ardura. Bigotesek sortu zuen garajeko lan taldea. Mariano Garcia Calatayudekoa zen eta handik ekarri zituen Francisco "Pako" Royo Conesa, mekanika burua eta Bigotesen iloba zen Pichorrico, laguntzailea azken hau. Txomin Perurena osabak eta Bigotesek kontratatu zuten. Txomin eta Pichorrico, *pintxe* moduan zeuden biak ala biak".

Antonio Aranburu Ordozgoiti soldaduska dela medio etorri zen Errenteriara. Hau da bere istorioa. "Soldaduskara boluntario joan nintzen. Boluntarioen soldadutzak 20 hilabete irauten zuen eta destinoa aukera zitekeen. Nik soldaduska Loiolan egin nahi nuen, tio Pako eta tia Feliren etxean bizi ahal izateko, Kapitanenean. Hemezortzi urterekin hasi nuen soldadutza, 1957ko irailean, eta hemeretzi urterekin amaitu nuen, 1959ko martxoan. Kapitanenean bizitzeaz gain, ORGA garajean egiten nuen lan. Eta horri esker, garajean irabazitakoarekin nire gastuetarako dirua ateratzen nuen. ORGA garajean lagundu egiten nuen, beti ere lana inori kendu gabe. Mantenua eta ostatua osaba-izebaren etxean eta gainera patrikarako diru zerbait. Guztira, Errenterian hemeretzi hilabete eman nituen. Denbora horretan, Maria de Lezo eta Madalen kale inguruak osatu zuen nire mundu txikia. Han zegoen ORGA tailerra eta han inguruan ziren beste garajeak. Eta Madalen kalean tabernak. Lana bukatu ondoren, osabarekin joaten nintzen. Bere semea nintzela uste zuten, berdinak ginen. Tio Pakoren antza nuen".

ORGATXO BATEN INGURUAN ORGAKOAK

ORGAko protagonistak elkarrekin azaltzen dituen argazki bakarra aurkitu dugu. Antonio Aranburu Ordozgoitik Errenteria utzi ondorengoa da, 1960ko madalen jaien data ingurukoa. Eguna ezin dugu gehiago zehaztu. Kokapena bai, ORGA garaje ondoan hartu zen, argazkian ageri den fatxada Magdalen-alde etxekoa da, etxe ataria eta Bordondo taberna sumatzen dira atzean.

Argazkian ditugu ORGA honen lau protagonista: haurraren atzean, eta eskuinetik ezkerrera: Pako Ordozgoiti Aizpeolea, "Bigotes" Mariano Garcia Lasheras eta Pako Royo Conesa. Eta haurraren ondoan, ezkerraldean, *Pichorrico*.



Ibon Zugasti Arrese

TXIRRINDULARI BATEN AMETSAK



Jose Luis Insausti Urigoitia

Nor da Ibon Zugasti Arrese? Ibon Lezon jaio zen 1972ko abenduaren 17an. Altzako Santiago Zugasti eta Lezoko Piedad Arrese senar-emazteen seme zaharrena da, beste anaiak Eneko eta Goretti dira. Ibonek Lezoko ikastolan eta Pasaiako lizeoan ikasi zuen. 18 urte bete arte Lezon bizi izan zen, eta Bartzelonara joan zen bere lehen lanbidean trebatzeko. Diseinu grafikoko ikasketak egin zituen Bartzelonako Unibertsitatean, eta argitaletxe txiki bateko zuzendari izatera iritsi zen. Txirrindularitzan hasi aurretik, beste kirol batzuk probatu zituen, hala nola futbola eta arrauna. Arraunean, kadeteen kategorian, Espainiako txapelduna izan zen, Koxtape lemazainarekin, Mikel Ugartemendia, Sistiaga, Lasurtegui eta Oyarzabal arraunlariekin.



Ibonek arrauna uzten du Bartzelonara joatean eta hiri horretan bertan bizikleta bere bidean gurutzatu zen bere bizitza betiko aldatzeko. Unibertsitatera joateko bizikletaz joan behar zuen eta pixkanaka-pixkanaka egunero entrenatzen eta igandeetan mendira mendiko bizikletan irteten hasi zen. Egun batean dena pedalei eragiteagatik uztea erabaki zuen arte.

1993an atera zuen BTTko lehen lizentzia, eta bizikletaren munduan hasi zuen bere kirol-ibilbidea, amateur gisa, mendiko bizikletaren diziplinan, Alkon-Bike Romanes taldearekin. 2005etik aurrera, errepideari ere ekin zion. Amateur garaian, Ibon Zugastik, beste lehiaketa batzuen artean, Kataluniako Bide Txapelketa irabazi zuen 2006an, Grans Classiques 2006ko Sailkapen Orokorra eta Kataluniako Txirrindularitza Federazioaren 2007ko Rankinga, Mossén Borrás trofeoa, Lezoko Santa Krutz trofeoko txapelduna, Mendiko sari bat eta tarteko helmugak, guztiak Saunier Duval-Montcada taldearekin.

2008tik aurrera, Azysa taldearekin, Kantabriako Itzulia eta Salamancako Itzulia irabazi zituen, Sabadell saria irabazi zuen, Luis Muñozen Oroimenezkoa Sabiñanigon, Bartzelonako Opena irabazi zuen, 2009an Castellóko Itzulia, Avilako Itzulia eta Sevillako Itzulia irabazi zituen, eta zilarrezko domina lortu zuen 2009ko Espainiako Errepideko Txirrindularitza Txapelketan, Elite maila amateurrean Kantabrian jokatu zena, Irungo San Pedro Trofeoa eta mendia irabazi zituen, Carlos Cabrera Memoriala, Carmonako Hiri Klasikoa, San Antonio trofeoa Renedon. Garaipen horiei esker, urtea RFECeko eliteko ranking amateurreko 1. postuan amaitu zuen, eta D-C sailkapeneko 1. postuan.

2010ean Sant Vicent saria, La Vall d'Uixó eta Mendiko saria, Junedako Udalaren Saria, 2011 taldeak fitxatu zuen, amateurra bera ere, Vitaldent Val d'Aran taldearekin, nahiz eta lasterketa batzuetan zedituta egon zen MMR-Spiuk taldean. Aurten, garaipen garrantzitsuenak Cursa Ciclista del Llobregat eta Toledoko Itzulia dira, eta erregulartasuna, Critérium Navas eta mendiko saria, Hospitalet mendiko inaugurazio sari nagusia. Gainera nazioarteko egutegi bat jokatu zuen UCI America Tourreko lehiaketetan ohorezko postuak lortuz, Grans Klasikoetako sailkapen nagusian lehena geratuz.

Nahiz eta txirrindulari amateurra izan, bere gaitasun eta erresistentzia fisiko handiak, eskalatzaile bezala bereziki, UCI Europa Tourreko 2.2 mailako lasterketa profesional batzuetan parte hartzea erraztu zion, Pirinioetako Tourra eta Enpordako Gerrikoa, besteak beste, 2009ko Enpordako Gerrikoan bigarren postua lortu zuen, 2011ko laugarrena, eta 2010eko Pirinioetako Tourrean seigarrena. 2011n bederatzigarrena izan zen 2.2 mailako UCI Amerika Tourreko bi lehiaketatan MMR-Spiuk taldearekin, zehazki Tour do Rio eta Boliviako Itzulian, non, gainera, bi etapatan hirugarren egin zuen.

2011ko abenduaren 20an, Ibonek Start Cycling Team-Atacama Flowery Desert taldearekin profesionaletan arituko dela iragarri zuen. Talde horrek Paraguaiko lizentzia du eta 2012ko denboraldirako sortutako Kontinental mailako taldea da. 39 urterekin Ibonen aldeko apustua egin zuen aurrekontu oso mugatuko talde batek, amateur izateari utzi zion txirrindularitzaz gozatzeko eta profesional egin zen, kobratu gabe eta berak baino hobeak eta baliabide gehiago zituen jendearen aurka lehiatzeko. Ibonek oso gaizki pasatzen zuen, eta esan ohi zuen bizi-erritmoa jasanezina zela; Bartzelonatik Londresera joaten zen, eta goizeko seietan jaikitzen zen klasiko bat korritzeko. Hiru ordu besterik ez zituen lo egiten, iturri batean ere garbitzen zen, eta poloniar talde baten auto batean sartzen zen, Nottinghametik Bruselaraino joateko, errepide eta ferry artean, eta horrela, ia Europa osoa trostan. Hala eta guztiz ere, beti eskertzen du 28 herrialdetan lehiatzeko aukera eman zion esperientzia. Beti aipatzen du garai hartako bere oroitzapenik onenetako bat gordetzen duela, San Luiseko Tourrean (Argentina) egin zuen debuta, non

momentuko txirrindulari onenak lehiatu ziren, horien artean, Alberto Contador eta Vincenzo Nibali.

2013an, 41 urterekin, mendiko bizikletako diziplinara itzuli zen berriz ere, eta sari ugari jaso zituen Europa osoan. 2013tik 2023ra bitartean lortutako garaipen batzuk azalduko ditut: Powerade Madril-Lisboa probako txapelduna 2013, 2014 eta 2015 urteetan. 2014ko Israel Epic probako eta 2014ko Eivissako txapelduna. Lehena 2015eko sailkapen nagusian: Powerade Non Stop, Powerade Madril-Lisboa, Powerade Bartzelona-Donostia Non Stop eta Garmin Barcelona Triathlon Olinpikoa, Errelebo-proba. Epika Atacama probako txapelduna banakakoan eta binakakoan (Txile 2016) Bike Transgrankanaria txapelduna 2016an.



2016ko Kataluniako Ibilbide eta Mendiko txapelduna, 2016ko Ripoll-Blanes Mendiko txapelduna, 2016ko BTTko Pitiusa txapelduna, La Mola 2016. 2017ko Argentinako Transcumbres txapelduna, 2017ko Scott Marathon Uruguai txapelduna, 2017ko Orbea Monegros txapelduna, 2017ko Transpyr Gran Raid Mtb txapelduna, 2017ko La Purito Andorra probako txapelduna, 2017ko Coll de la Gallina kronoigoera. UCI Gravel World Series, Lleidako Ranxo Gravel 2022ko txapelduna. Espainiako txapelduna XCO Master kategoria 50, 2022. Espainiako txapelduna XCM Master kategoria 50, 2022. Espainiako txapelduna XCUM Master kategoria 50, 2022. 2022 Gravel UCI Munduko Lehen Txapelketa Gravel Master modalitatean, Veneto eskualdean (Italia), Urrezko domina lortu zuen 50-54 Master kategorian, eta lehen Munduko Txapeldun bihurtu zen, 140 kilometro oso zaileko ibilbidean lehiatu ondoren, ostadar maillota etxera eraman zuen.

Karrera amaitzean esaten zuen mundu honetan bizitakoa adierazteko hitzik ez zuela, diziplina berri bat zela berarentzat, aspaldi ez zituen sentimenduak pizten zizkiola: "Errepideko txirrindularitzan nire hastapenetako sentsazioak berpiztu ditut, abiadura, estrategia, erritmo aldaketak nahiko gogorra zen ibilbide baten gainean", esaten zidan harro. Lasterketa irakurtzen jakiten zuen eta momentua itxaroten zuen azken esprintean dena emateko.

2023ko urtarrilean, erorketa larria izan zuen, bi orno hautsi zituen, eta bi hilabetez geldirik egon zen. Lehen hilabetean min handiak izan zituen, jasanezinak, Ibonek esan zidanez. Ez omen zuen amaiera ikusten, mina alde batera uzteko, baina ez zuen eskatzen. Martxoan, errekuperatu ondoren, Cape Epic mistoan lehiatu zen, eta 2023ko Cape Epic lasterketa mistoko txapelduna izan zen, etapaka izaten den proba

zazpi egunez, bertan Alice Pirard eta Ibon Zugasti ere lehiatu ziren. Munduko txapelduna Gravel XCM 50 Master, Australia 2023. Gravel 2022. urteaz geroztik goraldi betean dagoen diziplina da, errepideko, mendiko bizikletako eta kros zikloko alderdiak uztartzen dituena, eta modalitate hori ere nazioarteko tropelera iritsi da, eta txirrindulari asko abiatu ziren abentura horretan.



2024ko martxoaren 10ean, errepidean lehiatu gabe urte asko eman ondore. Lehen postuan iritsi zen, 50 urtetik gorako txapelduna izan zen, eta ostadar maillota eskuratu zuen. Txirrindularitza proba hau UCI Gran Fondo World Series delakoen barruan 178 kilometroko ibilbidea duen bakarra da Espainian. Gaur egun Orbea taldearekin jarraitzen du Master +50 kategorian lasterka.

Ibon Zugasti Arrese, txirrindularia eta youtuberra. Bere entrenamenduen, erronka pertsonalen, aholku praktikoen eta mendiko bizikletako txirrindularitza-egutegiko hainbat lasterketatan izandako parte-hartzeen berri emateko kanal bat du. "¿Qué pasa gallos?" telebistako saioaren aurkezlea ere izan zen ETBn. Bere txirrindulari izaera youtuberrarekin osatu da, eta horrek ospe handia sortu dio, Mavic, Oakle eta Orbea bezalako markak batez ere, bere aldeko apustua egin dutenak, eta txirrindularitzaren kalitatearen nahasketak eta kameren aurreko harrabotsak une barregarriak eta entretenigarriak oparitzen dizkigu bere kanalean, Ibonek milaka eta milaka jarraitzaile baititu bere marka eta jarraitzaileen konfiantza bereganatuz.

Gutxi dira beren benetako grinei bizitza eskaintzea lortzen duten pertsonak; kirolariak dira, zalantzarik gabe, zorioneko bakarrenetakoak. Haur bat jolasean ikusteak eta bere ametsei buruz hitz egiten entzuteak erakusten digu gizakiak benetan mugitzen eta inspiratzen dituztenak bere pasiorik sakonenak direla. Baina, zoritxarrez, hazten ari garen bitartean eta bizitzaren zirkunstantziek gidatzen gaituzten bitartean, haietatik urruntzen amaitzen dugu pixkanaka, bigarren maila batean utzi arte. Baina Ibon Zugastirentzat alderantziz izan zen, bizitzak berak bideratu zuen bere pasio handiari ekitea, txirrindularitzari, alegia.

Las instalaciones del archivo inauguradas el año 2002 incluyen una sala multiusos que está especialmente preparada para poder celebrar reuniones, cursos y jornadas. Así, las diversas entidades conveniadas con Eresbil han usado este espacio para programar algunas de sus actividades. Musikagileak inició el uso el mismo año 2002 con las I Jornadas de Composición de Música Contemporánea. AEDOM, la rama española de la Asociación Internacional de Bibliotecas Musicales ha impartido varios cursos, desde el de Catalogación de música impresa (2003), al de Encabezamientos de Materia. Igualmente se celebraron en el archivo varias reuniones del Grupo Gardano, con la asistencia de profesionales de Barcelona, Madrid, Salamanca, Toledo, Valencia y Zaragoza.

En el año 2004 se celebraron en Eresbil los Foros "Haurren koruak" y "Coros Jóvenes", organizados por la Federación de Coros de Euskal Herria.

Fruto de un convenio entre el archivo y Euskal Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco, se impartió en los locales del archivo y durante tres años consecutivos (cursos 2005-2007), la asignatura de Documentación Musical correspondiente a los Cursos de Doctorado en Musicología, coordinados por M. Carmen Rodríguez Suso.

La visita del especialista en cilindros de cera Franz Lechtleiner que trabajó durante quince días en la recuperación digital de la colección de cilindros que tiene ERESBIL, sirvió para la realización de un curso el año 2011, de restauración de fonogramas de 78 rpm. El curso fue un éxito de alumnos, procedentes de Bizkaia, Barcelona, Santiago de Compostela, Lisboa y Helsinki.

Diez años más tarde, en 2021 se ha impartido un curso a cargo de Xabier Erkizia, responsable del Laboratorio de sonido Audiolab de Tabakalera.

La segunda década de este siglo XXI ha conocido también en Eresbil los cursos de composición a cargo de los compositores Jan Maresx (Francia) en 2014 y Martin Matalon (Argentina) en 2015.

El ámbito de la danza también ha reunido en Eresbil a dantzaris de todas las provincias vascas dentro del programa Dantzazale – Dantza Tradizionaleko Monitoreen Formazio Ikastaroa.

A partir del año 2020, y como consecuencia de la pandemia, se ha hecho habitual el uso de las videoconferencias, también en Eresbil, formato especialmente utilizado para la realización de reuniones técnicas, cursos y participación desde el propio archivo en congresos internacionales.

El ingeniero austríaco Franz Lechleitner digitalizando los cilindros de cera en Eresbil.



VISITAS DE ALUMNOS DE DISCIPLINAS MUSICALES

Han sido constantes las visitas realizadas por grupos de alumnos de varios niveles, especialmente de estudios musicales de rango universitario. Ya en los antiguos locales del archivo realizaron visitas los alumnos de Musicología del Conservatorio Superior de Música de Donostia, con sus profesores Luchy Mancisidor y José Ignacio López de Luzuriaga.

Pero las visitas se han convertido en regulares con la nueva ubicación de Eresbil. Especialmente las procedentes de diferentes materias, especialmente las teóricas, impartidas en Musikene, Centro Superior de Música del País Vasco, con el acompañamiento de sus profesores Eli Etxebeste, Isabel Díaz Morlán, Itziar Larrinaga, Josep Cabré o Josu Okiñena. También fueron regulares durante algunos años las visitas de los alumnos de la Escuela de Profesorado de EHU/UPV con su profesora Aintzane Camara. Otros alumnos de la especialidad de Musicología han pasado por Eresbil, como los procedentes del Conservatorio Superior de Navarra, con Sergio Barcellona, o de la Universidad de Salamanca, con Joseba Berrocal. Igualmente han visitado el archivo alumnos y profesores de distintos niveles de estudio del Conservatorio Juan Crisóstomo Arriaga de Bilbao.

Visitas especiales han sido las de coros alemanes que recibíamos en Errenteria como intercambio con el coro Zariak, como lo fueron la del Coro del Instituto Max Plack, de Schondorf, ciudad alemana hermanada con Errenteria, o la del Coro Christophorus Kinder-und Jugendchor de Altensteig. También hemos recibido vistas de otros coros, como el Coro Lagun-Onak, de Buenos Aires, el Coro de Estepona (Málaga) o el Coro Sine Nomine (Cuba)



Mark Barnés mostrando el archivo a un grupo de estudiantes de Magisterio musical de la Universidad de Girona en 2023.



Pello Leiñena, mostrando las instalaciones a los miembros de la Asociación cultural Eragin en 2024.

VISITAS DE GRUPOS CIUDADANOS

No solamente las personas relacionadas con la música son las que han visitado Eresbil. Sus puertas han estado abiertas a grupos de estudiantes, como los recibidos del Instituto Peñaflorida de Donostia, del Centro de Formación de La Salle de Irun o de Antzuola Eskola. Igualmente a grupos ciudadanos, tanto errenteriarras, grupos de AEK, Xenpelar Bertso Eskola, como de otras procedencias, como el Aula de Promoción de la Mujer de Durango.

En resumen, Eresbil ha cumplido gustosamente en todas las visitas con la invitación que ya en el siglo XIX le hiciera Xenpelar al músico Iparraguirre:

...Errenterian bizi naiz eta, egin zaidazu bisita.

VALERIANO LECETAREN “ALEGORIA” OBRAK KALEA HARTU DU BERE 50. URTEURRENEAN



Errenteriako Udalbatza Aretoko Valeriano Lecetaren horma-irudiak 50 urte bete ditu 2024an eta Errenteriako Udala efemeride horretaz baliatu zen 2023an Xenpelar Tailerren sustatzailearen “Alegoria” obra zaharberritzeko. Taula gaineko olio margo horrek 6 x 3 metro inguru neurtzen ditu eta herriko garai historikoen alegoria da.

Egileak berak *Oarso* aldizkarian idatzi zuen bezala:

“El tema no podía desconectarse de la funcionalidad peculiar de una Sala Capitular de Ayuntamiento, y más de un pueblo con la conformación demográfica de Rentería, compuesto de un elevado porcentaje de gentes provenientes de otras regiones, sin ninguna vinculación con el pasado de la villa. En la Sala Capitular se han de debatir problemas del presente con incidencias para el futuro de la población. El presente debe ser el nexo de unión con el pasado y el futuro. No podemos renunciar al pasado porque el pasado es parte de nuestro YO ciudadano. Debemos conocerlo para deplorarlo, corregirlo, mejorarlo o copiarlo, según los casos. Creo que esta vinculación con

el pasado y el futuro debe ser una preocupación siempre presente en quienes por diversos motivos se reúnan en dicha Sala Capitular. Y por eso elegí como tema del mural una alegoría de la historia de Rentería".

Obraren 50. urteurrena dela-eta, Errenteriako Udalak kalera atera nahi izan du, herritarrek ezagutu dezaten. Horretarako, hainbat eragileei egin die gonbita parte har dezaten. Hemen duzue elkarlanean sortutako lan sorta oparoa, adinez antolatua.

2- 12 urte.

"KOADRO BAT TESTU ANITZ" ERAKUSKETA

Koldo Mitxelena ikastetxearen proiektu garrantzitsuenetako bat da "Koadro bat, testu anitz", non ikasle, langile eta familiek sorkuntzari bidea zabaltzen dioten obra batean oinarrituta.



Aurten Udaleko pleno aretoan kokatutako Valeriano Leceta Gabarainen "Alegoria" murala hartu dute oinarri haren inguruko testuak, esku lanak eta artelanak sortu eta erakusketa batean biltzeko. Lanak Merkatuzarreko Jose Luis Caso aretoan erakusgai egon ziren maiatzaren 10etik 18ra arte.



6-16 urte.

MADALEN SARIAK LITERATUR LEHIAKETA

XXXVII. edizioaren Madalen sariak literatur lehiaketaren bidez Errenteriako Udalak Errenterian bizi direnen edo ikasten dutenen artean euskaraz idazteko ohitura sustatzen du. Parte hartzeko baldintza bakarra da Errenterian bizitzea edota Errenteriako Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergo edo Lanbide Eskolako ikaslea izatea. 2024ko edizioaren gaia Valeriano Lecetak Udal Pleno Aretorako margotutako "Alegoria" izeneko muralaren ingurukoa da: Errenteriako iraganari, orainari eta etorkizunari buruzko hausnarketa. Sariak uztailaren 22an banatuko dira eta sarituak ezagutzeaz gain, gaur egungo gazteak gaur egungo Errenteria nola irudikatzen duten jasotzen dituzten idatzizko lanak irakurri ahal izango ditugu.

14-18 urte.
KULTUR ONDAREA BIDEO-LEHIAKETA

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak antolatutako sariak Kultura Ondarea ezagutaraztea (giza–adierazpen garrantzitsuak, izaera material edo materiagabekoak) du oinarri. Bertan, Euskal Hezkuntza Sistemako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) hirugarren eta laugarren mailetako, Batxilergoko lehenengo mailako eta Lanbide Heziketako Erdi Mailako Heziketa Zikloetako lehenengo mailako ikasleak, tutore batek ordezkatuak, parte hartu dezakete.

Aurten, Bizarain BHIko ikasleak animatu dira, Itsaso Izagirre Izagirre irakaslearen gidaritzapean, "Alegoria" obrarekin. Ez dute sorterik izan, bai ordea iaz, "Galleter" lanarekin, non lehenengo saria irabazi zuten.

Alegoria: Irati Gorrotxategi Miguel, Ainara Manchado Angulo, Aroa Marban Pedrote, Siham Oubdil, Eider Soutullo Prieto, Noa Vidal Pedrouzo / **Galleter**: Iratxe Iruretagoyena Lopez de Etxezarreta, Henar Duhart Lasa, Lucia Diez Pascual





Para todas las edades.
VIDEOMAPPING

La obra "Alegoria" de Valeriano Leceta saldrá, literalmente, a la calle en su 50 aniversario para contarnos cómo pasado, presente y futuro están vinculados. Dicha evolución será el tema central del *videomapping* que se proyectará en la fachada de la casa consistorial en otoño donde, partiendo del fundamental carácter marítimo para la creación de la villa, seguido de su gloriosa época industrial, será protagonista la diversidad cultural de la que se nutre hoy día la villa, reflejo fiel de dicha evolución.



2023ko kilometroak: URTE OSOKO FESTA

2023ko urriaren 1a egun seinalatua izan zen errenteriar askorentzat, Kilometroak, Gipuzkoako ikastolen jaia, gure herrian ospatu genuelako. Baina egun horretara bitarte, urteak asko eman du. Atzera begiratu eta Ibarran lekukoa hartu genuenetik urriaren 1era bitartean bizi izan dugunaren kontakizun laburra dugu hau, egindakoa gogoratzeko eta, batez ere, urtean zehar eta egunean bertan babesa eta laguntza eskaini zeniguten herritar eta elkarte guztiei eskerrak emateko.

Itziar Navarro Pikabea

Orereta Ikastolako lehendakari ohia



Añabitarte ingurua eta baserria.
Iturria: Orereta Ikastola.

Orereta Ikastolarentzat, Kilometroak urriaren 1a baino askoz lehenago hasi zen, hain zuzen ere, Gipuzkoako ikastolei 2023ko Kilometroak Errenterian izatea proposatzea erabaki genuenean. Ordurako, behin baino gehiagotan aztertua genuen gaia, urte asko igaro baitira 1999an bigarrenez Kilometroak antolatu genuenetik. Oraingoan, iruditu zitzaigun une egokia izan zitekeela eta Kilometroak jaia antolatzeak aukera emango zigula, alde batetik, ikastolaren ezaugarriak eta balioak azpimarratzeko (euskara eta euskal kulturaren garrantzia, nazio ikuspegia, berrikuntza, auzolana...); beste alde batetik, gure hezkuntza komunitatea indartzeko (elkarrekin erabaki eta elkarrekin egin); eta, azkenik, euskalgintzako eta herriko eragileekiko harremanak sendotzeko eta, gure ikastolaren 60. urteurrenean, urte hauetan guztietan jasotako babesa eskertzeko.

Gipuzkoako ikastolek proposamena ontzat eman ondoren, Orereta Ikastolako eta Kilometroak Kultur Elkarteko ordezkariak lanean hasi ginen. Lehenengo, urte osorako komunikazio ildoak landu genituen, eta ideiak biltzeko hainbat topaketa egin genituen familiekin, langileekin, ikasleekin eta herriko eragileekin.

Urte osoko ekintzak hiru ardatzen inguruan egituratzea adostu genuen: eskertza, komunitatea eta euskara eta euskal kultura. Eskertza, ikastolaren 60. urteurrenean, gure ibilbidean bidelagun izan direnei babesa eskertzeko eta izan garena ezagutu, garenaz jabetu eta izango garenaz gogoeta egiteko; komunitatea, batzen gaituena azpimarratuta, elkarrekin lan egiteko; eta euskara eta euskal kultura, ikastolaren oinarria eta izateko arrazoia direlako.

Kilometroak jaia ikastolen hezkuntza eredua eta gizarteari egiten dioten ekarpena agerian jartzeko ekimena ez ezik, baliabide ekonomikoak eskuratzeko aukera ere badela jakinik, balizko irabaziek aipatutako ardatzekin bat etorri behar zutela argi genuen. Horrela, Orereta Ikastolako



Lekukoa hartzeko unea, Ibarran, 2022ko urriaren 2an.
Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Artezkaritza Kontseiluak erabaki zuen hiru egitasmo hauetara bideratzea:

1. Zubiak Eraikiz egitasmoa sendotzera. Egitasmo honek biltzen ditu Orereta Ikastolak Hendaia, Biriatu, Urruña eta Ziburuko ikastolekin eta Bera eta Lesakakoekin dituen harremanak. Egitasmo hori sendotzeko, baliabideak bideratu nahi dira ikastola horietako gazteak, profesionalak eta familiak elkar ezagutzeko eta elkarrekin lan egiteko ekimenetara. Izan ere, ikastolen arteko elkarlana da ikastolen mugimenduaren oinarrietako bat; elkarri lagunduz egiten dugu aurrera, Euskal Herri osoan.

2. Herrian euskarari lotutako proiektu bat bideratzera. Orereta Ikastola eragile esanguratsua da herrian, hezkuntzaren, euskararen eta euskal kulturaren esparruan; esparru horretan egin du bere ekarpena, 60 urte hauetan. Eta Kilometroak jaiak gure herrian zerbait uztea nahi izan dugu: Kilometroak ez dugu ikastolarentzat bakarrik egin nahi, herriarentzat eta herriarekin egin nahi dugu. Horregatik, irabazien zati bat herriari itzuli nahi diogu, zehazki, euskarari lotutako proiektu bat bideratuz, herriko gainerako eragileekin elkarlanean.

3. Añabitarte ingurua eraberritzera. Añabitarte ingurua berezia eta kuttuna da askorentzat, gure komunitatearen erreferentzia eta bihotza da. Eta baserria, urte hauetan guztietan zutik iraun duen ikurra da, gure historiarekin lotzen gaituena. Horregatik, inguru hori egokitzera bideratu nahi izan da diruaren zati bat, Añabitartek eta baserriak ikastolako komunitatearen topagune izaten jarrai dezaten.

Erabaki horiek hartuta, 2022ko urriaren 2an hasi zen guretzat, ofizialki, Kilometroak urtea, Ibarrako Uzturpe Ikastolaren eskutik lekukoa



Aurkezpen ekitaldia.
Iturria: Orereta Ikastola.

jaso genuenean. Ikastolako komunitatearen izenean, lehendakariak, zuzendariak eta Xune eta Ani Zapirain Urdanpilleta ikasleek hartu genuen lekukoa, Beasainen 1977an lehen aldiz egin zenetik, herri guztietako izenak zizelkatuta dituen lekuko hori. Orduan aipatzen genuen urte osoko lanaren eta ekintzen bidez, ikastola zer den eta gure oinarriak eta bereizgarriak zein diren erakutsi nahi genuela. Eta dei berezia egiten genien Orereta Ikastolako komunitate osoari, herriko eragileei eta Gipuzkoako gainerako ikastolei Kilometroak elkarrekin pentsatzeko eta elkarrekin egiteko. Xenpelar errenteriarraren doinuan, Jare Antzizar Salvador ikasleak bertsotan gonbidatu zituen entzule guztiak urriaren 1ean gurera etortzera, "Errenterian, Kilometroetan, egin zaidazu bisita" kantatuz.

Lekukoa eskuetan, urriaren 12an elkartu ginen, Añabitarten, urteko ekimenetarako ideiak biltzeko. Euskal Herriko ikastolek urtero elkarrekin egiten dituzten ekimenez gainera (besteak beste, komikia edo liburu ibiltaria), hamaika proposamen jarri ziren mahai gainean, aipatutako hiru ardatzen inguruan: eskertza, euskara eta euskal kultura, komunitatea. Kilometroak egunetik Kilometroak urterako urratsa egin nahian, atera ziren ideiak urte osoan zehar banatu genituen. Nolanahi ere, aitortu behar dugu Gipuzkoako ikastolen apustu hori ez dela berria Orereta Ikastolarentzat; izan ere, atzera begiratuta, gogoratu besterik ez dago 1999ko Kilometroetan zenbat ekimen eta nolako mailakoak egin ziren, urrira bitarte.

Ekimen horiek guztiak aurrera eramateko egitura egonkorra osatzea zen hurrengo erronka. Erabaki organo nagusia Kilometroetako Batzorde Iraunkorra izango zen, Orereta Ikastolako bi koordinatzaileek, Kilometroak Kultur Elkarteko koordinatzaile eta teknikariek eta batzorde bakoitzeko arduradunek osatua. Gurean, batzorde bakoitzeko arduradun bakarra izendatu beharrean, bi-hiru arduradun hautatu ziren, gurasoek eta langileek elkarrekin lan eginez, lan zama arinagoa izan zedin.

Leloa eta logoa hautatzea zen hurrengo erronka. Komunikazio ildoekin bat etorriz, urte osoan zehar azpimarratu nahi genuena lantzen ibili ziren gure komunitateko "hitzaren" profesionalak (kazetariak, bertsolariak, komunikazioko teknikariak...). Eta proposamen borobila egin ziguten: "Erriola", errioa eta ola

hitzak elkartuta sortua. Errioa (edo *irriyua*) herriaren erdigunetik igarotzen da, herriaren bizimoduaren erdigunean dago; errioan, ura gora eta behera dabil, bi noranzkotan; ur gazia eta geza nahasten dira bertan; gorabeherak ditu, ez du beti aldarte bera, batzuetan bizi, beste batzuetan bare; eta zubiak behar ditu bi ertzak lotzeko. Olak gure historiaren parte dira, gure iraganaren eta orainaren erakusle, herritarren ahaleginaren eta sormenaren kabi. Ikastolak herrigunean dituen eraikinak ere, Esmalterian eta Linon, lehen olak zeuden tokietan daude. Eta iola, uretan dabilen egurrezko txalupa txikia da.

Eta erriotik herri eta olatik, ikastola. Errioa gara, herria gara. Erriola errioaren magaleko faktoria da, uraren gazi-gozoak, gorabeherek eta zubiek josten duten komunitatea.

Hori guztia (errioa, uraren gorabeherak, lantegiak eta etxeak, ur bazterrak eta zubiak) irudikatzeko logoa hautatzea izan zen hurrengo urratsa. Hainbat pieza geometriko konbinatuta lortu genuen irudia, bakarka hartuta beren izaera duten piezak; eta, elkarrekin, beste zerbait josi eta sortzen dutenak.

Mezu horiek guztiak plazaratu genituen 2022ko azaroan 4an Lekuonan egin zen aurkezpen ekitaldian. Ikastolarekin lotura duten herriko hainbat talderen laguntzaz (Ereintza Dantza Taldea, Kukai eta Zaria Koru Eskola, besteak beste) ekitaldi zaindua eta goxoa izan zen, Ikastolaren iragana eta oraina uztartzeko aproposa. Oholtza gainean izan genituen ikastolaren lehen urteetako gurasoak, ikasleak, irakasleak, gida batzordeko kideak, baita gaur egungo irakasleak eta ikasleak ere. Eta, amaieran, leloa eta logoa ikusi ahal izan genituen lehenengoz. Sorpresa txiki bat prestatuta genuen ekitaldiaren amaierarako: Albaola Itsas Faktoriako iola Lekuona parera ekartzea, baina itsaso txarraren eraginez, ez genuen horretarako aukerarik izan.

Aurkezpen ekitaldia Kilometroetako arroparen erakusleihoa ere izan zen. Denda biharamunean ireki genuen, Herriko Plazan bertan, Martinez Etxebeste familiak ikastolari, eskuzabaltasunez, utzitako lokalean. Gure modura apaindu genuen, Lide Gabarain Torrecillak eta Iñaki Zapirain Retegik gidatuta, irakasleek eta ikasleek egindako kubo, korapilo eta sokekin. Denda izan



Kilometroak txikiaren amaiera, errioaren inguruan.
Iturria: Orereta Ikastola.

da, urte osoan zehar, Ikastolako komunitatearen bilguneetako bat. Zenbat lagun ibili ote diren dendaren inguruan, arropa erosten eta prestatzen, txandak egiten, arropa Gipuzkoako txoko guztietara eramaten... Auzolanaren erakusle bikaina izan da denda, zalantzarik gabe. Eta auzolanean saldu dira, halaber, Tanta zozketa txartelak. Ikastolako familiek, langileek eta Gipuzkoako gainerako ikastolek lagundu dute Ikastolen jai guztiek elkarrekin ateratzen ditugun txartel horiek saltzen. Zozketa ikastolen proiektua ezagutzera emateko bideetako bat da, baita urteko jaietako gastuak finantzatzeko modu nagusietako bat ere, eta horren bidez, jaiaren eguneko emaitzarekiko mendekotasuna gutxitzen da eta eguraldi txarraren arriskua saihesten. Gainera, 2023an ikastolan saldutako txarteletako batek jaso zuen saria.



"Kantu bat gara" kontzertua. Iturria: Orereta Ikastola.

Erriola, errioaren magaleko faktoria, uraren gazi-gozoak, gorabeherek eta zubiek josten duten komunitatea.

2023. urteko lehen ekimena Kilometroak Txikia izan zen, ikastolako familientzako eta ikasleentzako jaia, ikasleak protagonista dituena. Urtarrilaren 28ko arratsalderako, tailerrak antolatu ziren Zumardian, Gabierrotan eta Gernika plazan, errioaren ondoan. Hotza eta euria izan genituen hasieran, baina iluntzerako atertu zuen eta errioaren inguruan bildu ginen guztiak, argi izpiak eskuetan, uretan gora zetorren trainerua ikustera. Ezusteko hunkigarri bat zekarren ontziak: ama euskararen irudia, ikastolak 1987. urtean antolatu zuen jai erraldoiaren protagonista.

Otsailak Kilometroetako ekimen sentituenetako bat ekarri zuen: *Egunkaria* itxi zela 20 urte bete zirenean, aste osoan zehar euskarazko prentsak euskaldunoi egin digun ekarpena aitortu eta eskertu nahi izan genuen, *Egunkariatik Berriara, 20 urte* astean.

Otsailaren 20an, astelehena, "Egunero behar genuen" liburua aurkeztu zuten, Lekuonan, Imanol Murua Uria egileak, *Egunkaria* itxi zutenean bertako langile zenak, eta Arantxa Iraola Alkortak, *Egunkari*ako eta *Berri*ako kazetari eta Orereta Ikastolako ikasle ohi eta gurasoak. Aizpea Otaegi Mitxelena Errenteriako alkateak eta Xabier Oleaga Arondo *Egunkaria* auzian inputatuak eta Orereta Ikastolako lehendakari ohiak ere hartu zuten hitza.

Asteartean, *Egunkari*ako langileek 2003an *Egunero*ren lehen zenbakia atera zuten egunean bertan, DBHko ikasleek prestatutako *Egun oro* kazeta argitaratu zen. Irakasleek lagunduta, ikasleek erreportajeak eta elkarrizketak egin zituzten, *Egunkari*aren itxieraren eta herrigintzako proiektuen inguruan. Bitarteko hori erabili zuten orain dela 21 urte gertatutakoa belaunaldi berriei transmititzeko. *Berria* barru-barrutik ezagutu ahal izan zuten, errotatiban izan baitziren, egindako lana egunkari nola bihurtzen zen ikusten. Oso esperientzia aberasgarria izan zen, *Berri*aren eta Orereta Ikastolaren arteko elkarlanaren emaitzetako bat.

Asteazkenean, Ozzinemarekin elkarlanean, "Paperezko hegoak" dokumentala ikusi ahal izan genuen Niessen aretoan eta Martxelo Otamendik azaldu zizkigun egun haietan bizi izandakoak. Eta ostegunean, herriko hiru tabernetan, hiru emanaldi izan ziren, hitza, musika eta arte grafikoak uztartuz. Azkenik, ostiralean, Jon Maia Soriaren "Kantu bat gara" kontzertua izan zen Lekuonan. Jonek ikuskizunaren zati batzuk tokian tokiko errealitatera egokitzen dituenez, gurean Jon Maya Sein aritu zen dantzan eta *Egunkaria*ko inputatuei omenaldi hunkigarria egin zitzaien. Haien izenean, Jose Mari Sorsek hartu zuen hitza, gertakari lazgarri haiek gogoratzeko eta euskal herritarrek erakutsi zieten elkartasuna eskertzeko. Astea bukatzeko modu biribila izan zen.

Hurrengo ekimena ere Euskal Herri mailakoa izan zen eta euskara izan zuen ardatz. *Batasunaren bidean* ekimenak, Errenteria eta Donostia lotu zituen, Euskal Herri osoko ikastoletatik etorritako ikasleek elkarri eskuak emanda. Ekimen alaia, koloretsua eta bizia izan zen, euskara bera bezala, euskara batuari gorazarre egiteko. Martxoaren 24an, lurralde bakoitzeko ikastola bateko ikasle ordezkarien hitzek eman zioten hasiera ekimenari eta Zumardian Koldo Mitxelenaren ohorezko eskulturan hasita, Donostiako Liburutegi zaharrerako bidea bete zuten zortzi milatik gora lagunek. Giza katearen hasieran izan ziren gurekin Andres Urrutia Badiola euskaltzainburua eta zenbait euskaltzain, horien artean, Adolfo Arejita Oñarte-Etxebarria, Itxaro Borda Xarriton, Xabier Kintana Urtiaga, Sagrario Aleman Astitz edo Miriam Urkia Gonzalez, udaleko eta euskalgintzako beste ordezkari batzuekin batera. Goizeko ekitaldiari amaiera emateko, ibilbideko bost plazatan elkartu ginen eta kolorezko puxika erraldoiekin koloreztatu genuen eguna. Azken urteetan ikastolek urtero antolatu ohi duten *Ikastolak herriari* ekimenean kokatu zen gurea ere eta eskertzekoa izan zen ikastolek, bereziki Gipuzkoakoek, eskainitako laguntza eta ibilbide guztia antolatzeko eta babesteko AEK-ko boluntarioek egindako lana.

Giza katearen hasiera.
Iturria: Orereta Ikastola/
Errenteria-Oreretako Hitza



Euskaltzaindiko eta ikastolako ordezkariek Añabitarteko jangelan bazkaldu genuen, ikasleekin batera, erakundeak berak hala eskatuta. Gozatu egin genuen LHko ikasleen naturaltasunaz, ikasle bat baino gehiago hurbildu baitzitzaigun guri kroketak eta bizkotxoa ekarri zizkigutelako kexu. Hori dugu oraindik zorretan! Bazkalostean, ikasgeletara hurbildu ziren euskaltzainak, Euskaltzaindia zer den eta zer egiten duen azaltzera. Eta orduan ere, ikasleak ez ziren lotsatu eta galderak egin zizkieten. LHko estalpean, argazki erraldoia atera genuen, arratsaldeko ekitaldi instituzionala baino lehen.

Arratsaldean, euskara batuaren ibilbidean ekarpenen bat egin zuten gizon-emakumeak omendu genituen Udaletxeko Batzar Aretoan. Udal txistulariek lagunduta, aretora sartu ziren omenduak, Euskaltzaindiako kideak eta erakundeetako ordezkariak. Aizpea Otaegi Mitxelena alkateak ongi etorria egin zien gonbidatuei eta Andres Urrutia Badiola euskaltzainburuak euskararen ibilbide luzean ekarpena egin zuten gizon-emakumeen lana aitortu eta eskertu zuen. Elene Mendizabal Goñi ikasle ohiak, herritarrak ordezkatuz, denok euskararekiko dugun konpromisoa gogoratu zuen. Xabier Kintana Urtiaga euskaltzainak eta Mauriñe Eizmendi Alvarez Jose Luis Alvarez Enparantza-

Txillardegiren bilobak oroigarria jaso zuten. Txistulariez gain irakasleek ere jarri zuten musika eta ahotsa. Errenteria, egun horretan, euskararen hiriburu bihurtu zen eta hedabide ugarik jaso zuten egunean zehar bizi izandako giro bikaina.

Maiatzaren 6an, *12 orduz Erriolan* ekimena izan genuen, Agirre Lehendakariaren plazan. Eskualdeko sortzaileei plaza bat eman nahi izan genien, euren lana erakusteko. 12 orduz jarraian, dantzariak, musikariak, akrobaziak, bertsoak... izan genituen, tartean, Herri Arte Eskolako taldeak, eta irakasleek, gurasoek edo ikasleek osatutako taldeak. Egunari amaiera emateko, Janus Lester taldeak dantzan jarri gintuen guztiak, *Erriola* kantaren lehen zuzenekoan. Bezperan eman zen ezagutzera kanta eta larunbaterako kontzerturako, ikasle mordoak ikasiak zituen hitzak! Jon Maia Soriaren hitzek eta Jokin Pinatxoren doinu dantzagarriak udako doinu ezagunenetako bat bihurtu zuten Erriola.

Maiatzak badu gure herrian beste hitzordu garrantzitsu bat: Musikaste. Euskal Musikaren Asteak tokia egin zion Kilometroak ekimenari eta, Landarbaso abesbatzako Iñaki Tolaretxipi Tejeria eta Maddalen Dorronsoro Amianoren ekimenez, eta Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioak eta Iparraldeko Euskal Kultur Erakundeak lagunduta, Hendaia, Ziburu eta Orereta Ikastolako ikasleak elkarrekin aritu ziren, hainbat kantu tradizional ikasten. Lan horren emaitza erakutsi zuten Baionan, apirilaren 2an, Herri Urratsen 40. urteurrena ospatzeko Pirritx eta Porrotx pailazoek egindako ekitaldian eta maiatzaren 20an, Lekuonan, Musikasteren barruan. Maila handiko musikari eta kantariz lagunduta, Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasleek emanaldi alaia eta koloretsua eskaini ziguten. Oraingoan, euskarak eta musikak lotu zituen Iparraldea eta Hegoaldea.

Udaldia opor garaia izaten da, baina 2023an, Kilometroetako batzordeek lanean jarraitu genuen, urriaren 1eko jaia txukun-txukun antolatzeko. Gozatzeko aukera ere izan genuen, Urmuga ekimenaren barruan, "Gure Añabitarte" kontzertua izan baikenuen, uztailaren 19an, Madalen jaien bezperetan.

Urmuga Euskal Herria mendebaldetik ekialdera zeharkatzen duen ekimena da, mendia eta musika lotzen dituena. Orereta Ikastolan mendizaletasunak duen tokia nabarmentzeko eta Añabitarteko parajeak ematen duen aukera aprobetxatuta, egun osoko egitaraua antolatu zen, bereziki ikastolako komunitateari begira.

Goizean, mendi ibilaldi musikatua izan zen, Oiartzungo Girizia Mendi Taldeak eta Errenteriako Urdaburu Mendi Elkarteak antolatuta. Talde bat Hendaia eta Irun batzen dituen Santiago zubitik abiatu zen eta beste bat, Lesakako Endarlatsa auzotik. Eguerdian, Oiartzungo Gurutze auzoan elkartu eta Beloagako gazteluan, musika emanaldi berezia izan zen. Arratsaldean, Albaola Elkarteak antolatuta, Patatxa ontzia San Pedrotik Lekuona Fabrikara etorri zen, Hibaika Arraun Elkarteko kideek eramanda, *Harien Zurdak* taldeko musikariak zeramatzala. Lekuona parean kontzertu goxoa eskaini zuten. Eta amaitzeko, iluntzean, kontzertu berezia izan zen Añabitarte baserriaren kanpoaldean. *Et Incarnatus* orkestrako musikariek eta Alaitz eta Maider, Alex Sardui, Olaia Intziarte, Arkaitz Miner, Aire Ahizpak, Xutik taldeak eta Janus Lesterrek kontzertu zoragarria eskaini ziguten. Magikoa izan zen, EITBren *Oholtzan* saioan ikusi ahal izan zen bezala. Natura, musika eta euskara, bat eginik. Eta amaitzeko, Iratzar taldearen

Urmugaren "Gure Añabitarte" kontzertua, Añabitarteko zelaietan. Iturria: Orereta Ikastola.



erromeria. Madalen jaiak hasteko modu bikaina!



Urtean zehar ikastolak antolatu ohi dituen ohiko ekintzetan ere izan zuten tokia Kilometroak jaiak eta Erriolak: Eguberrietako kalejira, Lilatoia, MoreretaON, Ikastolaren Eguna, Atlantikaldia (Erriotik herri erakusketa eta Errioartea tailerra)... Gainera, Madalenetako tabernak Erriola gunea izena hartu zuen eta jan-edanez gainera, musika eskaintza zabala izan zen bertan, gustu eta adin guztietarako. Udaberriko eta udako hilabeteetan, Erriola konpartsak alaitu zituen hainbat auzotako jaiak.

Ikasturte berriarekin batera, ikasle ohien bazkariak, irailaren 23an, oroitzapenez bete zuen Añabitarte. Gainera, beste bultzada bat eman zitzaion *Euskararen errioa* ekimenari: euroko txanponak elkarren segidan jarrita, zenbat metro estal daitezke? Hortxe erronka! Ekimenez ekimen metroetan aurrera egiten joan gara. Hortik aurrera, azkeneko txanpa besterik ez zen gelditzen.

Urriaren 1ean ere, urtean zehar nabarmendu genuen guztiari eman nahi izan genion garrantzia.

Jaia herrigunean antolatzea erabaki genuen, errioaren inguruan, garai bateko fabrika zaharrak zeuden plazetan (Esmalteria, Fabrika Handia, Olibet). Erabakia ez zen erraza izan, buruak esaten zigun Añabitartera igotzea zaila zela, trafiko eta segurtasun arrazoiengatik; baina bihotzak hara eramaten gintuen, aurreko bi Kilometroetan bezala. Hala, jaia herrigunean kontzentratzearen aldeko apustua egin genuen. Adin guztietarako eskaintza bilatu zen, errioko urak bezala, plaza batetik bestera mugitzeko egitarau zabala: kontzertuak, tailerrak, herri kirolak, puzgarriak, akrobaziak, pailazoak, artisau azoka, landa eremua, kale animazioa (dantzariak, musika, kantua...). Urtero legez, Erronka ere egin zen, Gipuzkoako ikastoletako ikasleen arteko lehiaketa.

Urtean zeharreko hainbat ekitalditan ez bezala, eguraldi iragarpenak onak izan ziren


Ikasle ohien bazkaria





eta, orduan, izugarrizko lasaitua hartu genuen. Ilusioa nagusitu zen aste horretan muntaian, antolaketan eta apainketa lanetan aritu ziren guztien artean.

Herria apainduta esnatu zen urriaren 1ean. Koloretako sareak eraikin batzuetatik besteetara zintzilikatuta, itxura dotorea eta bizia hartu zuten Zumardiak, Herriko Plazak eta beste hainbat kalek. Eta Lekuona Fabrikaren ondoan, hasierako ekitaldiaren abiapuntuan, ikurrina erraldoi ikusgarria jarri zuten *Gure Esku* ekimenekoek. Goizeko ordu horietan, oraindik oso jende gutxi zegoenean, ongi etorri hunkigarria egin ziguten.

Hasierako ekitaldia berritzailea izan zen, ibiltaria eta parte hartzailea. Lekuonaren kanpoko zubian, ikastolako lehendakariaren agurraren ondoren, Inge Mitxelena Garate ikasleak *Erriola* olerkia irakurri zuen. Alkatearen ongi etorriaren ondoren, txistulariek lagunduta, soka dantzarekin hasi genuen ibilbidea: agintari, ikasle, irakasle eta guraso, elkarri eskua emanda, elkarlana irudikatzen zuen irudi bikaina. Ohorezko sokadantza amaituta, Zumardira hurbildu ginen ikastolako guraso eta ikasleek osatutako txarangaren doinuekin.

Herriko Plazan, elizako eskaileretan jarrita, ezustean, bertara iristen diren hiru kaleetatik ikasle eta guraso mordoa atera zen, koloretako



Erriola koreografia, Herriko Plaza. Iturria: Orereta Ikastola.



kamisetak jantzita, irribarrea ahoan, *Erriola* kantua dantzatzen, Ikastolaren Egunean egin genuen bezala. Irudi indartsua eta bizi-bizia! Eguneko irudi gogoangarrienetako bat izan zen, oraindik oilo ipurdia jartzen zaigu gogoratzen dugunean.

Zumardira itzulita, Jare Antzizar Salvador ikaslearen bertsoak entzun genituen eta Agirre Lehendakariaren plazan, Mikel eta Esti Markezen *Konplize ditut eta*, Ereintza Dantza Taldeko dantzariekin. Pio Etxeberriaren etxetik, Ikastolaren lehen gela egon zen tokitik, igarota, Emakumeen Etxean bukatu genuen ibilbidea eta han hartu zuten hitza Nekane Artola Labordeta Kilometroak Kultur Elkarteko lehendakariak, Jokin Bildarratz Sorron Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak eta Eider Mendoza Larrañaga Gipuzkoako diputatu nagusiak.

Hain zuzen ere, amak izan ziren hasierako ekitaldiaren hari nagusia: Ama lurra, ama euskara, ikastolako amak. Artean emakumeak gizartean eta politikan lehen lerroan ez zeudenean, ikastolaren alde hainbeste lan egin zuten emakumeak oroitu eta omendu nahi izan genituen. Eta batukada feministak eman zien hasiera gune guztietako ekitaldiei.

Adin guztietarako eskaintza egin nahi izan genuen, errioko urak bezala, jendea plaza batetik bestera mugitzeko egitarau zabala.

Eguna amaituta, azken ekitaldia gelditzen zitzaigun: lanean aritu ziren guztiei eskerrak ematea. Eta horretarako, eskertza aperitifa antolatu genuen Añabitarteko baserrian, azaroaren 19an. Ekitaldi horretan izan genituen Azpeitiko Ikasberri ikastolako ordezkariak, 2024ko Kilometroak jaiaren antolatzaileak. Eta lekukoak Añabitartetik Azpeitirako bidea hartu zuen.

Ikastolen Elkarteko lehendakariak Kilometroen aurkezpenean esan zuen bezala, Kilometroak auzolan erraldoia da. Eta guk ere horrela bizi izan dugu. Auzolana, ikastolako komunitatea osatzen dugun guztion artean: gurasoak, langileak, ikasleak, ikasle ohiak, bazkideak, guztiak elkarrekin lanean. Egunean bertan, 1.200 boluntario aritu ziren trafikoan,



Kilometroak jaiaren lekukoa Azpeitiko Ikasberri ikastolako ordezkariei ematea. Iturria: Orereta Ikastola.

tabernetan, ikuskizunetan, garbiketan... Auzolana, Orereta Ikastolaren eta herriko eta euskalgintzako eragileen artean. Auzolana, Ikastolaren eta erakundeen artean (udalak, Aldundia, Jaurlaritza). Eta, azkenik, auzolana Ikastolaren eta Gipuzkoako gainerako ikastolen artean.

Lan horrek guztiak etekin ekonomikoa ere ekarri du. Zehazki, guztira 220.000 euroko etekina izan dugu, eta horietatik, 175.000 gelditu dira Orereta Ikastolarentzat. Orain, erronka da diru hori behar bezala erabiltzea, hasieran erabaki genituen hiru helburuetarako.

Egindakoaz harro eta pozik gelditu gara. Lan handiko urtea izan da, zalantzarik gabe. Baina askoren artean egiten denean, arinagoa da zama eta errazago gainditzen dira gorabeherak eta arazoak. Horregatik, esker oneko hitzak besterik ez ditugu modu batera edo bestera urte osoan zehar lagundu diguzuen guztientzat. Gustuko baduzue, QRaren bidez ikus dezakezue urteak eman duenaren laburpen bideoa.



URDABURU Y LAS FEDERACIONES DE MONTAÑA

Tomás Pérez

Iñaki Prieto



Cursillo de rescate 1972
(Manolo Díaz)

Este año 2024 nuestra federación de montaña está celebrando el centenario de su fundación. Por ello, hemos visto oportuno escribir un artículo sobre la aportación de Urdaburu Mendizale Elkartea, durante sus 82 años de historia, a las federaciones de montaña. Y más concretamente, sobre la participación directa de socios y socias, que han dedicado su tiempo y ocupado puestos en los diferentes eslabones federativos. Pero como hablaremos de épocas, denominaciones y ámbitos territoriales diferentes, conviene aclarar un poco el organigrama histórico de las federaciones de montaña y el contexto en que se crearon.

El origen del montañismo vasco se debe a la afición de ascender cumbres desde hace poco más de un siglo. Primero por nuestro entorno más cercano de Euskal Herria y, posteriormente, en el transcurrir de los años; viajando, ascendiendo y conociendo infinidad de montañas y parajes de todo el mundo. Eso hizo que las asociaciones y clubs de montaña de aquella época se unieran, hace precisamente 100 años, para crear y sustentar las federaciones de montaña.

Y cómo no, también en nuestro entorno más local, en nuestro pueblo, surgió Urdaburu Mendizale Elkartea en 1942. Al igual que la federaciones, lo hizo por la necesidad de juntarse para organizar sus salidas al monte de las personas que por aquellos años tenían la inquietud de conocer y ascender a las cimas de Euskal Herria.



Placa conmemorativa en Elgueta

La actual Federación Española de Deportes de Montaña y Escalada (FEDME) se fundó en 1922. Algunas federaciones "regionales" se crearon en esa misma época (ahí donde el montañismo tenía mayor arraigo), llegando a tener bastante autonomía y a veces mayor protagonismo social en sus zonas. Es al menos nuestro caso. Las actuales Federación Vasca de Montaña (EMF-FVM) y Federación Navarra de Deportes de Montaña y Escalada están celebrando en 2024, mediante actos conjuntos, el centenario de su fundación. Pues ambas echaron a andar el 18 de mayo de 1924 en Elgeta, como Federación Vasco-Navarra de Alpinismo (FVNA), con el fin de crear la unión de todos los grupos deportivos que practicaban por aquel entonces el alpinismo o la montaña por Gipuzkoa, Bizkaia, Araba y Nafarroa. Con todo, gran parte de su historia y andadura fue en común, hasta la Asamblea de 1993 en la que se separaron. Pero han persistido lazos y actividades conjuntas, más allá de las tareas puramente administrativas. Por otra parte, en el caso actual de Euskadi, tenemos también federaciones territoriales, que al estar financiadas por las Diputaciones, las tareas y competencias que se les atribuyen dependen en buena medida de nuestro peculiar (y quizás intrincado) entramado institucional.

El cargo más antiguo y relevante de un socio de Urdaburu fue, por mucho, el de Pedrotxo Otegi, quien hace 60 años ocupó la presidencia de la entonces FVNM durante 9 años. Otras muchas aportaciones son de épocas mucho más recientes y la mayoría están ligadas a la Escuela de Alta Montaña y la Federación Guipuzcoana.

PEDROTXO OTEGI

Pedrotxo Otegi fue uno de los fundadores y primer presidente de Urdaburu, desde 1942 hasta 1954. En ese mismo año, Ángel Sopeña (enton-


Pedrotxo Otegi, Pepín, Adolfo Leibar y Boni Otegi



Pedrotxo en la fiesta del Finalista en Urdaburu. 1951

ces delegado de la FVNM) le solicitó a Pedrotxo que se hiciera cargo de la subdelegación de Gipuzkoa de la FVNM (en sustitución de José María Peciña, muerto trágicamente en Mont Blanc). Pedrotxo aceptó y desempeñó este cargo entre 1954 y 1957, año que dio el salto a la presidencia del alpinismo vasco en sustitución de Sopeña. Fue elegido presidente de la FVNM en diciembre de 1957 y tomó posesión del cargo en febrero de 1958, ocupándolo hasta 1967, año que dimitió por el conflicto de una ikurriña en una expedición vasca a los Andes de Perú; caso que merece un breve resumen:

Se trataba de la primera expedición vasca fuera de Europa, con Pedrotxo como gran impulsor del proyecto, y que tuvo un gran éxito deportivo (se subieron tres montañas inexploradas), pero también social, obteniéndose financiación de instituciones públicas, grandes empresas, pequeño comercio y clubes de montaña. Pero si mediático fue el aspecto deportivo, más lo fue el llamado "escándalo de la ikurriña". Tras proyectarse las polémicas fotos de la expedición con la llamada "bandera separatista vasca", se denunció el caso en la Federación Española y se pidieron explicaciones a la Vasco-Navarra. Pedrotxo Otegi fue destituido y, al igual que los expedicionarios, detenido durante días u horas. La directiva en pleno dimitió. Se produjeron roturas de carnets masivas en protesta por lo ocurrido. En definitiva, las instituciones del montañismo vasco, que acababan de conseguir un éxito enorme, se tambalearon originando un gran vacío de poder.

En cuanto a la labor federativa de Pedrotxo, los clubs vascos le organizaron un acto de bienvenida en Elgeta como nuevo presidente, el 18 de mayo de 1958. Puede decirse que fue un presidente innovador, que dotó de más modernidad al hasta entonces vetusto montañismo vasco.



Entre las actividades más innovadoras durante su mandato figuran, la 1ª Marcha de Orientación, 1er. Congreso Vasco-Navarro de Montañismo, 1er. Curso de Montaña Invernal y 1er. Campamento Regional, entre otros.

Igualmente, hay que destacar que hizo de mediador para que vinieran a Euskal Herria, y en muchas ocasiones a nuestro pueblo, las grandes figuras del alpinismo mundial de aquella época; como el caso de Lionel Terray, Walter Bonati, Gaston Rebufat, Royal Robbins, entre otros; y también de figuras del estado como, José Manuel Anglada, Guillamon y Pons.

Pese al abrupto final que tuvo su presidencia, ya mencionado, hubo reconocimientos posteriores para Pedrotxo. En 1970 la Junta Directiva de la FVNM lo nombró Presidente Honorario Perpetuo; y para terminar, en 1975, la Federación Española de Montañismo le otorgó la Medalla de Oro por los servicios prestados al montañismo vasco-navarro durante su periodo como presidente. La entrega tuvo lugar en el Día del Recuerdo, que suele celebrarse en Besaide todos los años; al que acudieron numerosos socios y socias de Urdaburu Mendizale Elkartea.



Marcha Regulada del Fortuna. 1955.
Antontxu Sainz, Esther Gómez de Segura y J. María Salaverria.



Marcha Regulada del Fortuna 1950.
Antonio Sainz Echeverria (Antontxu), J.M. Salaverria y Boni Otegi.





Expedicionarios vascos a Perú en Barajas 1967 (J.M. Feliu)



A PRIMERA EXPEDICIÓN
SE CUMPLEN **CINCUENTA AÑOS** DE LA
ALIDA PIONERA A LOS ANDES

Antxon Iturriza

EMMOA

Pocos son ya los rincones de la orografía del planeta que no hayan conocido la presencia de alpinistas vascos; desde las tierras heladas de la Antártida a los desiertos de África, desde las grandes paredes americanas a las cumbres más elevadas de Asia. Ha sido una sucesión apasionante de experiencias que tuvo su inicio hace ahora medio siglo en un entorno entonces muy lejano como era la cordillera de los Andes.

30 del 24 de abril de 1967, abandonaba el muelle del
Santurce el buque alemán Barenstein con una derrota
aba al otro lado del océano Atlántico. Desde su cubier-
dian de amigos y familiares tres montañeros vascos:

Ángel Landa, Ángel Rosen y Juan Mari Feliú. En las bodegas de
carguero se apilaban 51 cajas de madera que llevaban pintada una
inscripción: "Vasco Navarra expedición Andes-Perú. 1967".
Tras 23 días de singladura transoceánica cruzando el canal de

OTRAS ANTIGUAS APORTACIONES DE URDABURU

Hay que añadir que, en el trascurso de tantos años de colaboración con las federaciones, ha habido también aportaciones en otras actividades, como la escalada y el esquí. En la escalada, ahí por los años 70-80, cinco escaladores de nuestro club: Joseba Olaciregui, Manolo Díaz, Conrado Garcés, Txema Mujika y Pepe Roma ejercieron de instructores de la Escuela Vasca de Alta Montaña, en su sección de Gipuzkoa en las modalidades de escalada en roca y glaciar. En esquí, Pello Arzelus y José Luis Aduriz ejercieron durante algún tiempo como delegados en la Federación de Deportes de Invierno.

SIGLO XXI

Tras un relativo "vacío", podemos considerar que el resto de las aportaciones recopiladas entran de lleno en el actual siglo XXI, aunque hubo algunas tan longevas que abarcaron también las dos últimas décadas del anterior. Con algún pequeño matiz, todas estas aportaciones están ligadas a la federación de Gipuzkoa.

Mikel Irasuegi:
El 1 de diciembre de 2008 entró en la Junta Directiva de la GMF como Vicepresidente. El 19 de diciembre de 2011 fue nombrado Presidente de la GMF, puesto que ocupó durante un año, hasta las elecciones del 12 de diciembre del 2012. En este periodo fue también responsable de los apartados de Medio Ambiente y Senderismo. Como presidente de la GMF, formó también parte de la Junta Directiva de la EMF. Y entre 2012 y 2016 fue representante en la asamblea de la FEDME.

Hermanos Patxi y Juan Lasarte:
El 1 noviembre de 1987 ambos hermanos entraron a formar parte de la Escuela Guipuzcoana de Alta Montaña. El 13 de diciembre de 2018 Patxi se dio de baja. Y el 11 de febrero de 2019 Juan se dio de baja.

Txingu Arrieta:
El 15 de mayo de 1994 entró a formar parte de la Escuela Guipuzcoana de Alta Montaña, dándose de baja el 24 de enero de 2022.

Igor Lasa:
El 29 de marzo de 2003 entró a formar parte de la Escuela Guipuzcoana de Alta Montaña. Del 6 de noviembre de 2018 hasta el 22 diciembre de 2020 fue el Director de la Escuela. Y el 22 de diciembre de 2020 se dio de baja, para ocupar el puesto de Coordinador Técnico de la GMF, puesto que ocupa en la actualidad. Durante 20 años, también ha desarrollado otras tareas como las de monitor de montañismo escolar y reequipador de zonas de escalada.

Desde el 20 de marzo de 2023 es también miembro del Consejo de Igualdad de la GMF.

Aitor Rufo:
El 28 de octubre de 2006 entró a formar parte de la Escuela Guipuzcoana de Alta Montaña. Del 9 de mayo de 2014 hasta 6 de noviembre de 2018 fue Director de la Escuela, y desde el 30 noviembre de 2022 hasta la actualidad también. Desde 2007, ha desarrollado además otras tareas como las de monitor de montañismo escolar y reequipador de zonas de escalada, que sigue ejerciendo en la actualidad.

Bixen Madotz:
El 29 marzo de 2003 entró a formar parte de la Escuela Guipuzcoana de Alta Montaña. Actualmente sigue en activo.

Jaione Karrikiri y Arantxa Juanena:
Desde el 20 marzo de 2023 ambas forman parte del Consejo de Igualdad de la GMF (al igual que el ya mencionado Igor Lasa).

Esperamos no haber pasado por alto ninguna otra aportación.

RECONOCIMIENTOS EN ACTIVIDADES MONTAÑERAS DE LA EMF

Hasta ahora hemos hablado de socias y socios que han trabajado directamente como miembros o en labores federativas. Pero queremos abrir también un hueco a aquellos socios y socias que, en lo puramente montañero, han tenido una destacada participación en actividades organizadas e impulsaldas por las federaciones,



Tarjeta del Concurso de los 100 de 1949

Diploma de los Centenarios

especialmente las que requieren una larga y fiel dedicación.

Hermandad de Montañeros Centenarios vs. "tachamontes centenarios"

Explicado sin mucho detalle, desde 1950 existe un concurso de ascender 100 montañas diferentes (de un listado oficial de unos 600 montes de Euskal Herria) con una serie de normas: en 100 excursiones, durante 5-10 años, contabilizando un único monte por día y con un máximo de 20 montes al año. Al terminarlo se envían los datos a la EMF y se obtiene el diploma de miembro de esta hermandad. Hasta la fecha, hay 41 socios o socias de Urdaburu con esta distinción, con lo que no vamos a nombrarlos.

Existen también montañeros "tachamontes" que utilizan dicho listado para un reto todavía mayor, en cuanto a años de dedicación y planificación: ascender todos los montes "centenarios" de Euskal Herria. Pues más allá del puro coleccionismo, los montes están tan bien y homogéneamente repartidos (la filosofía es evitar montes demasiado cercanos y que sean representativos de cada zona), que ofrece un conocimiento

completo de toda Euskal Herria. Cabe aclarar que se trata de un reto informal, al margen del concurso oficial de la EMF, porque sus requisitos (un monte al día y 20 al año) complican y multiplican los muchos años que de por sí supone. Al tratarse de algo extrafederativo, es difícil saber cuánta gente lo ha realizado. Pero en Urdaburu tenemos constancia de que, al menos, 6 socios lo han completado. Incluso, dos de ellos unieron sus listas para terminarlo juntos por 2ª vez, el 31 de diciembre de 2008. Y a uno de ellos le falta (desde hace seis años) un único monte para completar la 3ª vuelta.

Circuito de Marchas de Largo Recorrido

La EMF elabora cada año un calendario "oficial" de marchas, organizadas por clubs de montaña, y cuyo recorrido cumpla ciertos requisitos mínimos de aproximadamente 40 kms de longitud y 2.000 metros de desnivel. Se declara "finalista" a quien completa 8 marchas durante un año, pero al menos una en cada territorio: Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa e Iparralde. Desde 2010 han sido "finalistas" Iñaki Zapirain (2016, 2017, 2018, 2019, y 2023), Nerea Rodríguez (2016 y 2017) y Carlos Elkarte (2010).

Cabe mencionar que nuestra marcha que organizamos cada dos años, la Vuelta a la Cuenca del Río Oiartzun, ha figurado en dicho circuito desde 2011.

ACTOS DEL 100 ANIVERSARIO

El 24 de abril de 2024 se entregó la insignia de oro a los federados y federadas de Gipuzkoa con una trayectoria superior a 40 años ininterrumpidos federados. Los socios de Urdaburu premiados fueron Patxi Lasarte, Juan Lasarte y Joseba Olaciregui. Hemos constatado que, sin ese detalle de "ininterrupción", bastante más restrictivo de lo que parece, hubiéramos tenido un número de socios y socias bastante mayor con dicho periodo cumplido.

100 años 100 montes:

Consistió en un reto colectivo para los clubs de montaña. Se eligieron 100 montes de Euskal Herria (entre los aproximadamente 600 de la citada lista del "concurso centenario") para que el 27 y 28 de abril se subieran entre aproximadamente 100 clubs, "apadrinando" cada cual un monte. Como Urdaburu ascendimos al monte Arthanolatze (1531) en el Irati de Zuberoa.



Cima de Arthanolatze



Oarso Boleibol Taldeko batzordekideak

OARSO BOLEIBOL TALDEAREN LEHEN URTEA

Duela urtebete Oarso Boleibol Taldeak ekarri zuen boleibola Errenteriara, baina gure historia urte batzuk lehenago Hernaniko Boleibol Taldean hasi zen. Errenteriako 20 neska inguru Hernanira gerturatu ziren boleibola probatzeko asmotan. Oso gustura aritzen ziren bertako taldean. Eta pixkanaka-pixkanaka neska gehiago hurbildu ziren Eusebio Lizarazuk aspalditik zuzentzen duen klubera. Haiek izan ziren Errenterian boleibol taldea sortzera animatu gintuztenak.

Jaione Lizarzu

Oarso Boleibol Taldeko batzordekidea

Lizarazuk jarri gintuen gaur-gaurkoz gure klubeko entrenatzaileetako bat den Jose Vicente Holgadorekin harremanetan. Jaiotzez Salamancakoa bada ere, gaztea zela Errenteriara etorri zen. Oso ibilbide luze eta oparoa izan du boleibolaren munduan. Iaz erretiratu zenez, sortzen hasi berria zen egitasmo honetan buru-belarri sartzeko aukera izan du. Bere lanari esker, hein handi batean, talde hau aurrera eramatea lortu dugu.

Hernanin genbiltzan jokalarien gurasook pare bat batzar egin genituen eta 7 pertsonaz osatutako batzorde iraunkor bat sortu genuen. Eta ordutik honako lana eta esfortzua handia izan da: paperak, izen emateak, entrenatzaileak bilatzea... baina ilusioa eta gogoa gure alde genituen, eta orain arte egindako lanaz oso harro gaude. Gaur-gaurkoz 75 jokalari ditugu gure elkartean, bost taldetan banatuak: bi, haur mailan; beste bi,

kadete kategorian; eta bat, gazte mailan. Dendenak, emakumeen kategorian jarduten dute.

Zailtasun nagusia, halere, talde hauen entrenamenduak eta partidak jokatzeko instalazioak aurkitzea izan da. Hainbat leku ikusi, neurtu eta aztertu ondoren, Errenteriako Udalaren bitartekaritzari esker, Koldo Mitxelena institutuko gimnasioan entrenamenduak egin ahal izan dira, eta partidak, berriz, Orereta Ikastolako DBHko eraikineko estalpean dagoen kantxan. Ez dira boleibolean aritzeko lekurik egokienak, baina gure taldea aurrera atera ahal izateko zelai hauek erabiltzeko aukera erabakigarria izan da.

Datorren ikasturteari begira, Beraungo pilotalekuko pista balioztunean hiru pista berri prestatu dira, eta horrekin herrian bertan partidak jokatzeko aukera izango dugu. Horri esker, gure partidetara senide eta zale gehiagok gerturatzeko aukera izango dute, eta pixkanaka-pixkanaka boleibolak gure herrian ikusgarritasun eta zaletasun handiagoa lortzea espero dugu.

Kirol jarduerei dagokienez, gure jokalariek eta gurasoek, OCISA Harok gonbidatuta Emakumeen Iberdrola ligako partida profesional bat ikusteko aukera izan genuen, martxoan. Gazteen mailako Euskadiko Txapelketarako Gipuzkoako Aurreko fasean lehen postuan gelditu ginen, eta Gipuzkoako Federazioko Kluben ligan hainbat txapelketatan parte hartu dugu, haurren mailan lehen postua lortuz. Ekainean OCISA Harok antolatutako "Haro, Capital del Rioja" txapelketan parte hartu zuten Oarso Boleibol taldeko haur eta kadete mailako jokalariek, eta haur mailako gure taldeak lehen postua lortu zuen.

Bestalde, udako boleiboleko ikastaro trinkoak antolatu ditugu eta 80 gaztek baino gehiagok izena eman dute eta plaza guztiak agortu dira.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Errenteriako Udaleko Kirol Saileko politikari eta teknikariei eskainitako laguntzagatik. Eskerrak ere Orereta Ikastolari eta Koldo Mitxelena ikastetxeari bere babes eta konfiantzarengatik. Eskerrak halaber, jokalariei, haien familiei, zuzendaritzako kideei, entrenatzaileei eta, nola ez, gure esker beroenak ere gure babesleei.



Beraungo pilotalekuko pista balioztuneko instalakuntza berrien aurkezpena



Hurrengo urteari begira boleibolarekin dugun konpromisoa indartu nahi dugu, hainbat erronkari aurre eginez: ekipo kopurua handitu nahi dugu, beti ere egun ditugun instalakuntzek eta giza baliabideek ahalbidetzen duten neurrian. Gainera, zuzendaritza-batzordera kide berriak erakarri nahi ditugu ikuspegi freskoekin erabakiak aberasteko. Entrenatzaile-talde teknikoa sendotzea ere funtsezkoa da, entrenamendu-mailari eta motibazioari eusteko. Azkenik, gure helburua kirol honetaz gozatzen jarraitzea eta boleibolaren komunitatera zale berriak erakartzea da, horrela gure inguruko gizarte eta kirol sarea indartuko dugu. Etorkizunari ausardiaz eta gogo biziz aurre egingo diogu, guztion parte-hartzearekin erronka horiek Oarso Boleibol Taldearen hazkundea eta arrakasta ekarriko dutela ziur baikaude.



50 urteko elkarbizitzari omenaldia Lekuona Fabrikan 2023

Eguerdiko 11:30etan hasi zen, Udalak iaz 50 urteko elkarbizitza ospatzen zuten bikoteei egin zien omenaldia Lekuona Fabrikan. 33 bikote izan ziren omenaldia jaso zutenak eta bertan izan ziren Aizpea Otaegi alkatea eta baita udalbatzako ordezkariak ere.

50 AÑOS DE CONVIVENCIA EN LEKUONA FABRIKA

14 OARSOALDEA
Miércoles 23.08.23
EL DIARIO VASCO
ERRENTERIA



De celebración. Los mayores se lo pasaron estupendamente en un acto lleno de homenajes y sonrisas. FOTOS ANNA ERRO

PAREJAS HOMENAJEADAS

Paul Martin	Juan Regadera
Mª Carmen Escalante	Saúl Martín
Victoria Lucas	Emiliano Arnedo
Aurora Torres	Juan José Lizarazu
Rosita Hernández	Tomas Gabaldón
Maritxu Burgoa	Ramon Mª Ugarte
Edurne González	Txema Arenzana
Xoxo Mirakleta	José Manuel Otaegi
Mª Rosa Ruiz	Iñaki Amenabar
Luisa Mendoza	Ferndo García
Maite Izuregi	Pedro María Fernández
Mª Luisa Serrano	Juan Miguel Salvador
Pedri Muñoz	Herminio Sierra
Mª Isabel Artieta	Moises López
Mª Teresa Martín	Infante de La Cruz
Mª Carmen Pereira	Lutri Iparbide
Mª Luisa Ochoa	Carlos Núñez
Carmen Echenagusia	Florencio Soriano
Nieves Barrenetxea	Ignacio Cruz Manso
Pilar Alvarez	Mikel Lizarralde
Rosa Elosegerrieta	Mariano García
Joaquina Guerrita	Francisco Álvarez
Ana María Campano	Joaquín Ulloso
Josefa Domínguez	Leocadio Carretero
Mª Isabel García	Jose Hidalgo
Mentxi Calderón	Felipe Castillo
Julita Diaper	Jose María García
Jasone Elsoderrieta	Antonio Bravo
Mª Pilar Orbiloidegui	José Angel Ruiz
Mª Carmen Rafaél	Jose Luis Gracia
Mª Dolores Sarquiz	Salvador Benpetrez
Mª Lourdes Lizeriz	Félix Gutierrezmendi
Elena Gabarrez	Nicanor Moriano

50 años juntos y que sean muchos más

Zorionak! Miembros de la corporación municipal y familiares rindieron homenaje en Lekuona a las treinta y tres parejas que este año celebran medio siglo de convivencia

IKER CASTAÑO

El año 1973 se recuerda por la crisis energética mundial que se produjo como reacción de la Organización de Países Productores de Petróleo (OPEP) a Occidente, además del asesinato de ETA a Luis Carrero Blanco. Asimismo, en el ámbito cultural la censura continuaba en España y se debía pasar a Francia para ver la película 'El último tango en París', prohibida en este país por su alto contenido erótico. España finalizó segunda en Eurovisión con la canción 'Tanto tiempo' de Mocedades, una sintonía que dio la vuelta al mundo cosechando grandes éxitos. En lo deportivo, Luis Ocaña ganó el Tour de Francia.

Pero más allá de todo eso, el año 1973 fue sin duda el año del amor, donde treinta y tres parejas que hoy en día residen en Errentería decidieron dar un paso más allá y se casaron. Prometieron ser fieles en las alegrías y en las penas, en la salud y en la enfermedad, todos los días de su vida.

Han pasado cincuenta años y el amor que les unió un día sigue vigente y no tiene fecha de caducidad. Las parejas siguen estables y todas ellas disfrutaron de un merecido homenaje el día de la Magdalena –el pasado 22 de julio– junto a familiares y amigos en la sala de Lekuona.

Allí, disfrutaron de la música y recordaron juntos anécdotas e historias de este último medio siglo en el que han estado juntos. Como no podía ser de otra manera, también hubo besos y abrazos para recordar que esta generación dio muchas alegrías en 1973, hace 50 años. Casi nada.

Fueron numerosas las muestras de cariño recibidas por parte de los miembros de la corporación municipal, que no faltaron ese día con el fin de hacer disfrutar a los mayores de un día para el recuerdo. «No lo olvidaremos jamás», comentaban Luisa, Mariano, Félix, Mari Carmen o Marivi, entre otros.



Varias parejas posan con un ramo de flores después del acto.



Edurne González y Txema Arenzana disfrutaron en el homenaje.

'El Pirata' se une a la fiesta

Hubo tiempo para todo. Primero se reunieron en el exterior de la nueva sala Sortelan de Lekuona, se pusieron cara, vieron con sus propios ojos la evolución de las parejas en aspecto físico y mental y después se lanzaron las típicas preguntas de '¿Cómo te va la vida?' o incluso cuestionándose sobre los hijos y nietos. Hubo desayuno para todas las parejas homenajeadas.

Tras la primera puesta en escena, se adentraron en el lugar del homenaje y esperan año para disfrutar de una cita única y especial. La alcaldesa Aizpea Otaegi les dio una cariñosa bienvenida y Luis Mari Moreno 'El Pirata' y Ainara Ortega, la doble voz musical que puso fin a las Madalenas en la Alameda, pusieron la música después amenizando el acto con canciones del 73. Les hicieron reír y disfrutar, recordando viejos tiempos. Según transcurría el acto, las parejas esperaban su momento de gloria, cuando fueran llamadas una a una para recibir un ramo de flores y un cuadro con la foto que se sacaron unos días antes.

Entre ellos, Txema Arenzana, junto a su mujer Edurne González. «El acto salió muy bien, además coincidiendo con el día de la Magdalena. Disfrutamos y recordamos viejos tiempos», detalla emocionado. Pues que sean muchos más.

Zorionak! Miembros de la corporación municipal y familiares rindieron homenaje en Lekuona a las treinta y tres parejas que este año celebran medio siglo de convivencia

50 años juntos y que sean muchos más

Ondorengoak izan ziren omendutako bikoteak 2023an:
Las parejas homenajeadas en 2023 fueron las siguientes:

Paki Marín Gil eta Juan Regodón Fernández
Mª Carmen Estefanía Vázquez eta Saul Martin Casado
Victoria Lucas Marcos eta Emiliano Armella Jiménez
Aurora Torres San Martín eta Juan Jose Lizarazu Bengoechea
Basilia Hernández Martín eta Tomas Gabaldón Campos
Maritxu Ibarguen Albistur eta Ramon Mª Izagirre Iruretagoiena
Edurne González Badostain eta Txema Arenzana García
Koro Mitxelena Kintana eta Jose Manuel Otaegi Otaegi
Mª Rosa Bua Caldas eta Juan Jimenez Huici
Luisa Megino Megino eta Fermín García Arroyo
Maite Jauregi Atondo eta Pedro María Fernández Otero
Mª Luisa Serrano Vicente eta Juan Miguel Bailador Vélez
Poldi Muñoz Muñoz eta Honorio Sierro Bernárdez
Mª Isabel Antelo Herrero eta Moisés López Rodríguez
Mª Teresa Martín Sánchez eta Antonio Pedro Infante de La Cruz
Mª Carmen Pereira Moreira eta Lumi Barbado del Amo
Mª Luisa Ochoa Zubiria eta Carlos Nuñez González de Galdeano.
Mª Carmen Echenagusia Iturbe eta Florencio Jacinto Jacinto.
Mª Nieves Barrenetxea Leunda eta Ignacio Cruz Manso Berasarte.
Pilar Álvarez Mínguez eta Mikel Lizarralde Rekarte.
Koro Etxezarreta Yanci eta Mariano García del Sur.
Joaquina Guerrico Sánchez eta Francisco Álvarez García.
Ana María Campano Campos eta Joaquín Edroso Vicente.
Mª Josefa Domínguez Domínguez eta Leocadio Carretero Gordillo.
Mª Isabel García Martín eta José Hidalgo Gómez.
Marivi Calderón Seco eta Felipe Carrillo Anibarro.
Julita Duque Paunero eta José María García Agudo.
Justini Etxeberria Guruzelain eta Antonio Bravo Alvarado.
Mº Pilar Oficialdegui Ruiz eta José Ángel Ruiz Huici.
Mª Carmen Balañá Echeverría eta José Luis Gracia Burgaña.
Mª Dolores Soriano Alonso eta Salvador Bengoetxea Mora.
Mª Lourdes Urresti del Valle eta Félix Gaztelumendi González.
Elena Gutiérrez Ovejero eta Nicanor Moruno Alcón.

Auzoetako emakume elkarteen programaren 40. urteurrena

Oarso aldizkariaren erredakzio batzordea

Auzoetako emakume elkarteen programak 40 urte bete ditu ikasturte honetan. Horregatik, urte hauetan guztietan egin duten lana omentzeko ekitaldia antolatu da ekainaren 15ean Lekuona Fabrikan.

En dicho homenaje se proyectó un vídeo elaborado por Mendi Urruzuno y Axun Ertzibengoa en el que, mediante testimonios y vivencias de las protagonistas, se dio a conocer la evolución histórica de las asociaciones de mujeres en los diferentes barrios de Errenteria.



Al final del mismo, se entregó un recuerdo a las representantes de las once asociaciones que históricamente han existido:

1. Agustinak. Alai emakume taldea
2. Beraun. Erlontzi emakume taldea.
3. Galtzaraborda. Gure leku emakume talde.
4. Olibet. Itzazu emakume taldea.
5. Gabierrota. Laguntasuna emakume taldea
6. Pontika. Lore toki emakume taldea.
7. Zentoa. Patxiku zelaia emakume taldea.

---

8. Iztieta. Gurekin emakume taldea.
9. Ondartxo. Bidexka emakume taldea.
10. Alaberga. Ekinez egin emakume taldea.
11. Kaputxinoak. Gure goizalde emakume taldea.

2019/20 ikasturtean, Alabergako Ekinez egin emakume-taldea bidean geratu zen. Pandemiaren ondorioz, elkarte guztiak itxi ziren, eta, gerora, hainbat arrazoirengatik, berriro ireki ahal izan zirenean, Kaputxinoseko Gure goizalde emakume-taldeak, Iztietako Gurekin eta Ondartxoko Bidexka ez ziren berriro martxan jarri. 2021etik, beraz, zazpi taldek jarraitzen dute programan.







Hemos querido recoger en este artículo fragmentos tanto de las reflexiones hechas por las representantes de cada barrio en el vídeo como de las palabras de agradecimiento que les dedicó la alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena en dicho acto. Sirva esta breve reseña también de reconocimiento por nuestra parte.



"Helburua zen auzoa pixkat animatzea. Etxetik atera eta elkartu, ezagutu eta lagunak egitea". Pili Bakaikoa – Gure Leku (Galtzaraborda).

"El objetivo era la reunión, que las mujeres se empoderaran, salieran de casa, se juntaran, hicieran amistades". Espe Encinas - Gure Goizalde (Kaputxinoak).

"Lortutakoa kontatzen dudanean esaten didate "hau ezin da galdu". Baina noiz eman behar digute erreleboa? Guk hori nahi dugu". Espe Arangoa – Lore-Toki (Pontika).

"Es verdad que a veces pensamos que somos imprescindibles, y que no nos van a relevar... pero yo tengo esa esperanza. Manoli Espiño – Patxiku zelaia (Erdialdea).

"Cuando empecé hace 27-30 años las de la directiva decían "si no seguimos nosotras ¿quién va a seguir?". Así entré yo, y así se fue sustituyendo el grupo que había antes. Loli Barcenilla – Laguntasuna (Gabierrota).

"Denok gara hemengoak, baina kanpotik etorri direnak eta hemengoak direnak orain, ez ditut [auzoetako emakume taldeetan] oraindik ikusi. Akaso, parte hori moldatzeko dago, zeren integratzeko leku eder ederrak dira". Enara Novillo – Laguntasuna (Gabierrota).

"Yo no veré nunca de sobra que haya un sitio donde se puedan reunir las mujeres". Esther Redondo – Alai (Agustinas).



"Zuek aldatu zarete eta zuen ingurua aldatu duzue, herria bera aldatzeraino. Eta herri osoaren eraldaketa eragin duzue, bizitzako gauza sinple baina ezinbestekoenak erdigunean jarriz: norbere burua ezagutzea; elkar-laguntzea; konplizitatea, sareak sortzea; belaunaldi arteko harremanak; ongi pasatzea; autoestimua landu eta kezkak deskargatzea. Hartu eta eman, finean. Orain hainbeste errepikatzen den, elkarren zaintza, finean. Horixe baita bizitza. Jasotzea bezain inportantea baita ematea. Ematea bezain garrantzitsua baita jasotzea.

Izan ere, zuek, zuen buruak eraldatzearekin batera, zuen ingurua ere eraldatu duzue. Eta utzidazue bereziki aipatzen eta nabarmentzen hemen zaudetenen artean, helduenek egin duzuen lana eta ondoren etorri garen belaunaldiei egin diguzuen ekarpena.

Gaur 50 urtetik behera ditugunon ama, izeba eta amona zaretenak gure erreferente izan zarete eta ez dakizue ongi zenbateraino ireki diguzuen bidea!

Hace unos días, tras las elecciones mejicanas, Claudia Sheinbaum, la que va a ser la primera presidenta de México, decía "No llego yo, llegamos todas! Nuestras ancestras y nuestras hijas". Y me parecieron unas palabras tan hermosas y tan ciertas, que quisiera decíroslas hoy a todas vosotras, en nombre de todas las que somos vuestras hijas, sobrinas y nietas:

No llegamos nosotras. Nosotras, cuando llegamos ¡llegamos con todas vosotras!

Eskerrik asko!" Aizpea Otaegi – Errenteriako Alkatea.



Quintos
1973 - 2023











La tradicional cómida de quintos es un encuentro clásico en nuestro pueblo y con la llegada del otoño se multiplican las convocatorias. Pero si hay una especial ésa es la de los

CINCUENTA

El pasado año le tocaba el turno a los nacidos en 1973 y que por tanto cumplían sus **cincuenta años.**

En Errenteria son muchas las fiestas y celebraciones que se organizan a lo largo del año. También son muchos los grupos que se reúnen para celebrar algún acontecimiento. Sin embargo, una de las celebraciones con más participación es la que se refiere a la comida de las y los quintos cuando celebran su 50 cumpleaños. Un día para reencontrarse con









muchos amigos, otros conocidos, algunos más y otros menos, pero que a partir de ese día los serán más.

El acto contó con una participación de 200 "jóvenes" de 50 años dispuestos a pasar un día inolvidable. Poteo matinal, comida en Egi Luze sagardotegia, fiesta en Limerick para finalizar a altas horas de la madrugada. Aunque como en todo, en esto también hay quienes se llevan la palma...

Al no haber foto del grupo en las escaleras de la parroquia, algo tan tradicional como la propia celebración, hemos optado por incluir fotografías de los diferentes grupos. Y en esta otra imagen de la derecha los "cuatro" que han tirado del carro en la organización del evento: Jesús, Paula, Koro y Pirata.

Eskerrik asko por las fotos:
@pelukaspelukitas



OARSOALDEA ESKUALDEKO GARAPEN-AGENTZIAK 30 urte



Oarsoaldea garapen agentzia

1993an, eskualdea astintzen zuen krisi ekonomiko sakon baten erdian, Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaiako udalerriek elkarrekin lan egitea erabaki zuten, aurrez aurre zituzten erronkei aurre egiteko. Langabezia-tasa, maila kezkagarrietara iristen zen, eta tokiko enpresak bizirik irauteko borrokatzen zuten.

Testuinguru horretan sortu zen Oarsoaldea eskualdeko garapen-agentzia, eskualdea ahanzturatik erreskatatzeko eta beste eskualde batzuetarako eredu bihurtzeko. Plan estrategiko ausarta egin zen, eta erakundeen lan-presentzia handia hasi zen, egoera aldatzeko sentsibilizatu eta laguntza lortzeko.

Hasieratik, Oarsoaldea langabetuei eta tokiko enpresei zerbitzuak ematera bideratu zen. Urteak igaro ahala, lan horrek zabalkundea izan du hainbat arlo hartzeko, hala nola enpresa, ekintzailetza, enplegua, gizarteratzea, turismoa, energia, mugikortasuna, hiri-berriztapena eta euskararen eta kontsumo-bulegoaren eta energiaren eskualde-mailako sustapena, betiere erakunde, eragile eta inguruko beste eskualde batzuekin lankidetza estuan jardunez.

Hiru hamarkadatan zehar, Oarsoaldea Garapen agentzia eskualdearen aurrerapen- eta garapen-motorra izan da, ekimen berritzaileak bultzatuz eta eragileen arteko lankidetza sustatuz. Haren dedikazioak eta ikuspegiak asko lagundu dute eskualdeko errealitate sozioekonomikoa aldatzen, eta eskualde-garapeneko politiketan erreferente bihurtu dute.

PERTSONENTZAKO ARRETA/ENPLEGUA

Urteetan zehar, langabetuei arreta emateko eredu integral bat sortu dugu, Lanbiderekin eta udaleko gizarte-zerbitzuekin lankidetzan aritzeko egitura sendoa ezarri dugu, bai eta enpleguaren eta gizarteratzearen arloan diharduten beste eragile batzuekin ere. 2000. urteaz geroztik, talde-lanaren ikuspegi berritzaile bat ezarri dugu, enplegu-programa ugari garatzeko aukera eman duena.

Programa horiek hainbat talderi zuzendutako ekimen ugari biltzen dituzte, hala nola gazteei, emakumeei, ezgaitasuna duten pertsonei, iraupen luzeko langabetuei, DSBE laguntzen onuradunei, 45 urtetik gorako pertsonei eta lana bateratzeko neurriei. Ikuspegi inklusibo eta dibertsifikatu hori funtsezkoa izan da langabetuen sektore bakoitzaren berariazko beharrei erantzuteko.

Azken urteotan, eskualdeko gizarteratze-sarea sortzea izan da gure lanik aipagarriena, lankidetza-proiektuak garatzeko eta gobernantza-eredu berri bat ezartzeko aukera eman digun mugarria. Larzabal auzoan



hitos
EMPLEO

En 1993 la tasa de desempleo era de 22,6%, en la comarca en estos momentos es de 8,7%.

Forjamos un modelo integral de atención a personas desempleadas, en colaboración con las oficinas de Lanbide, los servicios sociales municipales así como con los diversos agentes que trabajan en el ámbito del empleo y la inclusión, desarrollando numerosos programas de empleo e inclusión.

Destacamos en este sentido la creación de la red de inclusión comarcal y el lanzamiento del CENTRO DE INNOVACIÓN PARA EL EMPLEO Y LA INCLUSIÓN OARSOLAN, fortaleciendo nuestro compromiso con la inserción laboral y el bienestar social.

Anualmente atendemos una media de 1.800 personas llevando a cabo con ellas unas 2.500 acciones.

dagoen OARSOLAN ENPLEGURAKO ETA GIZARTERATZEKO BERRIKUNTZA-ZENTROA berriki irekitzea funtsezkoa izango da eskualdean laneratzeko eta gizarte-ongizaterako dugun konpromisoarekin jarraitzeko.

EKONOMIA- ETA LURRALDE-GARAPENERAKO ESTRATEGIA

Administrazioa bultzatzeko lan-ildoaren barruan, 1996an, lehen urratsak eman genituen pertsona ekintzaileentzako zerbitzua abian jarrita. 2001ean, Enpresa Berrien Zentroa inauguratu genuen, gure eskualdean ekintzailetza sustatzeko funtsezko gunea. 2011. urtea mugarria izan zen gure erkidegoan espiritu ekintzailea sortzeko diseinatutako TPA proiektua martxan jarri, zenean, 2009ko finantza-krisiaren ondorengo une kritikoan. Garai zailetan ekintzaileei laguntza emateak duen garrantziaz jabeturik, 2013an HERRILAB pertsona ekintzaileen komunitatea sustatu genuen.

2016. urtean, eskualdeko sektore estrategiko gisa kultura- eta sorkuntza-industriak bultzatzeko apustuaren barruan, Errenteriako Udalaren eskutik, Errenteriako Torrekua eraikin enblematikoan inauguratu genuen, lankidetzazko HABIAN! Inkubagailua, enpresa horietan baliabideak eta laguntza eskaintzen dizkiegu ekintzaileei beren enpresa-ibilbidean. Proiektu hori ARTISAU AUZOA abiaraztearekin osatu zen 2018an, Errenteriako hirigune historikoa birgaitzeko estrategia gisa eta lokal hutsen balioa ezagutarazteko, sormen-jarduerak ezarriz.

2022-2024an, Eusko Jaurlaritzaren Berpiztu funtsen bidez, jarduera handia izan zuten ekintzailetza eta enpresa txikiak bultzatzeko jarduerek eta kultura-industrien eta hazkundearen aldeko apustuak. ICCen aldeko apustuak, betiere Errenteriako Udalaren eskutik, beste dimentsio bat hartu du, eta jauzi kualitatibo berri bat eman du, Agustinak eremua abian jarri baita kultura- eta sorkuntza-sektorearen lehiakortasuna bultzatzeko.

hitos
ECONOMÍA

En 1998, iniciamos el servicio para personas emprendedoras. En 2001, abrimos el Centro de Nuevas Empresas, impulsando el emprendimiento. En 2011, lanzamos el proyecto TPA para fomentar el emprendimiento en momentos de crisis financiera. En 2013, creamos HERRILAB, en 2016, inauguramos HABIAN! Y en 2024 el centro Agustinak para apoyar a personas emprendedoras.

En 2021, establecimos el programa SUSPERTUZ y TALKA Bulegoa para enfrentar y reactivar el tejido empresarial frente a la crisis del covid. En 2022-2023, los fondos Berpiztu han ayudado de manera específica a facilitar el emprendimiento y la competitividad de las microempresas así como a impulsar las apuestas estratégicas comarcales. Desde 2023 trabajamos para facilitar las tres transiciones en las empresas.

En 2023 trabajamos con 378 empresas en diferentes proyectos y con 98 personas emprendedoras.



Enpresen eta erakundeen lehiakortasuna hobetzeari dagokionez, enpresen dinamizazioa eta berrikuntza sustatzen ditugu, azpiegiturak, zerbitzuak eta jarduerak abian jarriz.

1999an, Oarsoaldeko Industrialdea jarri zen martxan, industria-lurzoruaren eskualdeko apustuaren barruan, eta, haren eta udalen eskutik, lurzoru publikoko zenbait industrialde jarri dira martxan: Oiartzungo eta Lezoko Industrialdeak, Errenteriako Txirrita-Maleo, Masti-Loidi eta Egiburuberri, Oiartzungo Lanbarren eta Pasaiako Navalaldea. Geroago, 2012an, aldameneko Bidasoa eskualdearekin bat egin zuen, eta Bidasoa Oarsoko Industrialdea izena hartu zuen.

Agentzian jarduera hasi zenean, enpresen lehiakortasuna hobetzeko laguntza-zerbitzu bat jarri zen martxan, gure enpresa-sarearen garapena bideratu eta erraztu duena.

2019an, pandemiaren ondorioz sortutako erronkei erantzunez, COVID gailua ezarri genuen eskualdeko enpresei laguntza emateko.

2021. urtea funtsezkoa izan zen ekonomia suspertzeko; izan ere FORO SUSPERTUZ sortu zen, eskualdeko enpresek eta industria-eragileek osatutako lan-taldea. SUSPERTUZ eta TALKA BULEGOA programak ere jarri genituen abian. Azken urteotan, enpresei orientazioa eta laguntza estrategikoa emateko izan dira.

Covidaren krisiak, horniduren krisiak eta energia-krisiak eragindako etapa kritikoaren ondoren, erronka garrantzitsuei aurre egiten jarraitzen dugu, hala nola klima-aldaketari eta trantsizio soziodemografikoari. Testuinguru horretan, hiru trantsizioei (digitala, berdea eta soziala) erantzungo dien enpresen lehiakortasun jasangarria bultzatzen jarraitzen dugu.

Alde horretatik, ETE DIGITALA eta OTEI proiektua nabarmentzen dira, eskualdeko enpresen trantsizio digitala eta energetikoa bultzatzeko, edo Pasaiako portuan Euskadiko lehen portuko sare adimendunaren inaugurazioa, itsasoko mugikortasun elektrikorako eta jasangarritasunerako urrats garrantzitsua.

Erronka soziodemografikoari dagokionez, BERRABIATU ekimenak belaunaldi-segidaren erronkari lagundu nahi dio negozioetan, eta LANAREN ZENTZUAK gure enpresetako pertsonen kudeaketa hobetu nahi du, talentua "zaintzeko" estrategia gisa.

Eta, amaitzeko, azpimarratu behar da, kultura- eta sorkuntza-ekonomiaz gain, itsasoarekin eta populazioaren zahartzearekin lotutako beste bi sektore-apustu estrategiko ere badaudela, Ekonomia Urdineko Poloa eta Adinberri proiektuak, 2022-2024 aldian Berpiztu funtsen bidez ere garapen berri bat hasi eta lortu dutenak.

HIRI-BERRIZTAPENA, ENERGIA ETA MUGIKORTASUNA

1997-tik aurrera Eskualdeko Hiri zaharberritzeko bulegoak etxebizitzen biziberritzea sustatu du gure eskualdean. 2019tik aurrera, 50/50 proiektua ezarri dugu ikastetxeetan, espazio horietan energia-kontsumoa hobetzeko jarduera eta ekintzen bidez. 2021ean, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, Oarsoaldeko Energia Bulegoa jarri genuen martxan, energiari buruzko zalantzak argitzeko eta energiaren arloko diru-laguntzen izapideak egiteko doako zerbitzua.

2022an, NEXT Birgaitze Bulegoa inauguratu genuen, etxebizitza-parkea energetikoki hobetzeko Europako diru-laguntzak bideratuz. Agentziak funtsezko eginkizuna izan zuen etxebizitzak zaharberritzeko orduan, eta nabarmen handitu ziren birgaitze energetikorako diru-laguntzen eskaerak, Next Generation laguntzen bidez. Gainera, Europako SCORE proiektuak, non Oarsoaldeak aktiboki parte hartzen duen, kostako hirien erresilientzia hobetu nahi du klima-aldaketaren mehatxuen aurrean, estrategia berritzaileak garatuz laborategi bizidunen sare baten bidez.

Gainera, Andonaegiko Hurbiltasun Bulegoak (Pasaian) eta Beraun auzokoak (Errenterian) jarri ditugu abian, auzoak erabat lehengoratzeko eta gure eskualdeko bizi-kalitatea hobetzeko. Ekimen

hitos

REGENERACIÓN URBANA, ENERGÍA Y MOVILIDAD

En 1997 se puso en marcha la Oficina comarcal de rehabilitación de viviendas. Desde 2019, el proyecto 50/50 se implementó en centros escolares para mejorar el consumo energético. En 2021, lanzamos la Oficina de Energía de Oarsoaldea con la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En 2023, inauguramos la Oficina de Rehabilitación NEXT para financiar mejoras en eficiencia energética en viviendas. Además, participamos en el proyecto europeo SCORE para mejorar la resiliencia de las ciudades costeras ante el cambio climático.

La Inversión total promovida por el departamento en la comarca en el año 2023 en rehabilitación de vivienda ha sido de 13.724.459,50 € con las ayudas del Gobierno Vasco y de 9.546.808,63 € con los fondos Next Generation.

horiek Oarsoaldeko garapen jasangarriarekin dugun konpromisoa islatzen dute.

EUSKARA

1997an, 4 udalek eskualdeko euskara-batzordea sortu zuten, 1999an garapen-agentzian. Harrezkero, era askotako proiektuak ezarri dira euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko, merkataritza, ostalaritza, aisialdia edo eskola kirola bezalako esparruak hartuz. Ekimen horien artean daude eskola kirola euskalduntzeko eta profesionalizatzeko plana, Kuadrillategi proiektua eta lan esparrua euskalduntzeko OLA plana. Garapen-agentziaren barruan, 2005ean hizkuntza-politikako irizpideak ezarri ziren, eta 2008an hizkuntza-eskakizunen plana onartu zen. Zilarrezko BIKAIN ziurtagiria lortu zuen agentziak 2015ean, urrezko ziurtagiria 2018an eta mailarik gorena 2021ean.

2023an, enpresetako hizkuntza-kudeaketaren gaia indartu egin zen, Languages Lanean Nazioarteko I. Biltzarrean eta antzeko ekitaldietan parte hartuz, eta euskararen erabilera sustatu da hainbat sektoretan eta gazteen artean, Asmazank eta Eskatu, eskaini euskaraz eta Euskaraz Barra Barra bezalako proiektuen bidez, azken biak Eusko Jaurlaritzaren ekimenak izanik.



KONTSUMOA

Azken 30 urteetan, Kontsumo Bulegoak lan integrala egin du eskualdean herritarrak hezteko eta haiei laguntzeko. Erreklamazioak kudeatzeaz gain, kontsumitzailearen eskubideei eta eskubide horiek erabiltzeko moduari buruzko informazio zehatza ematea izan da haren ikuspegia. Hezkuntza-lan hori funtsezkoa izan da kontsumo-erabakietan herritarrak ahalduntzeko eta iruzurretatik babesteko. Gainera, bulegoak hezkuntza- eta sustapen-kanpainak egin ditu, hala nola Gabonetan eta 2023an Black Friday-n egindakoak. Kanpaina horiek ekonomia zirkularra, erosketa iraunkorrak eta kontsumitzaileen eskubideen defentsa sustatu dituzte, kontsumo arduratsuaren arloan komunitatearekin duen konpromisoa sendotuz.

TURISMOA

Azken 30 urteotan, Oarsoaldeak hazkunde nabarmena izan du bere turismo sektorean. 1997an, industria hori eskualdean ezartzeko eta indartzeko ahaleginak hasi ziren, garai hartan gutxi garatuta baitzegoen. Pixkanaka, nortasun turistikoa sortu da eta eskaintza hainbat eragilerekin landu da, eta bisitari-kopuruak etengabe egin du gora. Informazio turistikoko bost bulego daude eskualdean, eta bisitariei laguntza eta orientazioa ematen zaie. Gainera, sektore pribatuan lan garrantzitsua egin da, turismo enpresen kalitatea, lehiakortasuna, jasangarritasuna eta digitalizazioa hobetzeko programak ezarriz. Gaur egun, eskualdeak 33 ostatu-establezimendu ditu, guztira 1.000 plaza, 17 zerbitzu turistiko eta 9 baliabide bisitagarri. Digitalizazioaren arloan, gida birtual interaktiboa, 3Dko birsorkuntza eta joko didaktikoak garatu dira, eta esperientzia aberastu egin da, bai bisitarientzat, bai herritarrentzat. Digitalizazio-ekintza gehigarri bat lantzen ari dira, sakelako telefonoaren bidez eskualdea hobeto esploratzeko, Oarsoaldean turismo jasangarria eta berritzailea sustatzeko etengabeko ikuspegiaren zati gisa.

hitos

EUSKERA

En 2023, se fortaleció la gestión lingüística, participando en el I Congreso Internacional Languages Lanean y promoviendo el euskera en diferentes sectores con proyectos como Asmazank y Euskaraz barra barra.

En 1997, los 4 ayuntamientos crearon la Comisión de Euskera, integrada en la agencia de desarrollo en 1999. Desde entonces, se han implementado proyectos para promover el euskera, como el plan de euskaldunización del deporte escolar y el plan OLA del ámbito laboral, alcanzando certificaciones BIKAIN en 2015, 2018 y 2021.

El número de familias alcanzadas por los programas de promoción del euskera en 2023 fue de 3.600

GAURKO ETA BIHARKO OARSOALDEA

Pandemiaren eta azken urteotako krisien aurrean, erakunde publikoen konpromisoa indartu egin da, eta haien babes baliogabea nabarmendu da. Oarsoaldea Garapen Agentzia berrikuntza- eta aurrerapen-faroa da, bere proiektu irudimentsuekin. OARSOLAN GIZARTE ETA LAN MUNDUAN SARTZEKO ERREFERENTZIA ZENTROAREN bultzadatik hasi eta BASERRI BERRI eta SCORE bezalako Europako ekimenetan parte hartu arte, etorkizuneko erronkei ausardiaz eta etorkizunari begira aurre egiteko prestatzen ari da eskualdea.

OLI, LURRALDE-ADIMENA eta BIRATU bezalako proiektuen bidez Silver Economyren promozioa eta praktika jasangarriak sustatzeak garapen zuzen eta jasangarriarekiko konpromisoa erakusten du. Gainera, sormenaren eta kulturaren alde egiteak, EKONOMIA URDINA eta UDALSAREA 2030 bezalako ekimenetan parte hartzearekin batera, haien ikuspegi integrala islatzen du.

30 urtetik gorako ibilbidearekin, Oarsoaldea agentziak egokitze-gaitasuna eta garapen sozioekonomikoaren sustapenean duen lidergoa ditu ardatz. Aurrerabide horretan lagundu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, eta elkarrekin aurrera egiten jarraitzen dugu etorkizun oparo eta jasangarrirantz. Mila esker!



hitos CONSUMO

Durante las últimas tres décadas, la Oficina de Consumo ha liderado la educación y asistencia a la ciudadanía en la comarca, enfocándose en informar sobre los derechos del consumidor y fortalecer la toma de decisiones. Además, ha realizado campañas educativas y promocionales para promover la economía circular y las compras sostenibles, reforzando el compromiso con el consumo responsable. En 2023 atendimos a 1319 personas y de las reclamaciones atendidas un 76% fueron resueltas.

hitos TURISMO

Desde 1997, Oarsoaldea ha impulsado su sector turístico, consolidando su identidad y oferta turística. Con 5 oficinas turísticas que ofrecen orientación y apoyo, y un énfasis en la mejora de la oferta y de la calidad y la digitalización de las empresas turísticas; el número de visitantes aumenta año tras año.

Actualmente Oarsoaldea cuenta con 33 alojamientos, 17 servicios turísticos y 9 recursos visitables. También ha avanzado en la digitalización turística, con la implementación de una guía virtual interactiva, recreaciones en 3D y juegos didácticos enriquecen la experiencia, mientras se desarrollan acciones adicionales para mejorar la exploración a través del teléfono móvil, promoviendo un turismo sostenible e innovador.



Euskararen alde lan egiten duten pertsona edo erakundeen alde hainbat sari eta aintzatespen ematen dira, argazki honetan bezala, iazko Oarsoarrak Sarien banaketan.

JARDUN ETA JARDUN, GEUREAN EGIN DEZAGUN

Arantxa Zabala Huizi

Azken urteotan Errenteriak aniztasun linguistiko-kultural zabala jaso du eta egun jatorri anitzeko herritarrek osatua dago. 2021ean Soziolingustika Klusterrak *Hizkuntzen mapa* izenarekin ezagutzen dugun azterketa[1] egin zuen hizkuntza aniztasuna egoki kudeatzen hasteko ezagutza eskuratzeko helburuarekin. Errenterian 70 hizkuntza inguru hitz egiten direla ondorioztatu zuen, batzuk hizkuntza komunitate handiagokoak eta beste batzuk, berriz, hiztun gutxi batzuk baino ez dituztenak.

1 ERRENTERIAKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNAREN MAPA: Immigrazioko biztanleriaren jatorriaren araberako hurbilketa (https://herribizia.errenteria.eus/2022/04/05/errenteriako-hizkuntza-aniztasunaren-mapa-aurkeztu-dute)



Udalak aniztasun horren errekonozimendua egin nahi die etorri diren herritar guztiei, bizikidetzaren izenean; izan ere, herriko hizkuntza aniztasuna aberastasun gisa ulertzen du eta aitortza egin nahi die hizkuntza guztiei, betiere euskara, bertako hizkuntza, aniztasun horren erdian jarri eta bizilagun berriak euskaraz ikasi eta erabiltzera bultzatzeko, komunitatean integratzeko modua baita hori. Finean, helburua da euskara ardatz izango duen komunitate eleaniztuna eratzea eta bizikidetza linguistiko egoki batean sakontzea.

Hori horrela izanik ere, Errenteriak bi hizkuntza ofizial ditu, euskara eta gaztelania, eta bere jarduera bietan gauzatu behar du herritar guzti-guztien eskubideak bermatze aldera.

Udaletxera joaten banaiz, euskaraz artatuko naute? Telefonoz deitzen badut, euskaraz egin ahal izango dut? Ulertuko al dit telefonoa hartuko didan langileak? Eta idatziren bat euskaraz aurkezten badut, nola erantzungo didate?

Inoiz zeure buruari galdetuko zenion Udaletxera joatean nola artatuko zaituen arreta ematen duen langileak, edo/eta idatziren bat aurkeztuz gero, zein hizkuntzatan jasoko duzun erantzuna.

Gaur egun ohikoa da Udaletxera joan eta langileekin euskaraz egitea. Euskaraz egingo dizute sarreran dagoen udaltzainak eta harrera postuan dagoen langileak. ZU! Arreta zerbitzura iristen zarenean ere, lehenengo hitza euskaraz egingo dizu artatuko zaituen langileak, euskaraz egitera gonbidatuz. Hortik aurrera, elkarrizketa zuk aukeratzen duzun hizkuntzan izango da. Tramiteak ere euskaraz egin ahal dituzu. Euskaraz aurkituko dituzu eskura ematen dizkizuten inprimakiak, baita etxean obraren bat egiteko lizentzia edo dirulaguntza eskatzerakoan jasotzen dugun jakinarazpena ere. Udaletxean ikusgai dauden errotuluak edo iragarki oholean dauden iragarkiak ere euskaraz edo ele bietan ikusiko dituzu, euskarazko testuari ikusgarritasuna emanez, gainera.

Errenteriako Udalak ibilbide luzea egin du euskararen erabileraren normalizazioan, langileak euskalduntzetik eta alfabetatzetik hasita, gaur egun herritarrentzat zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, lan-hizkuntza eta erakunde publiko zein pribatuekiko harremanetarako hizkuntza izatera iristeraino.

Baina, hizkuntzen erabileraren auzia ez da oraintsuko kontua, euskara erabiltzearen gaineko lehenengo aipamenak askoz zaharragoak dira Errenterian eta horietako batzuk udal akten

liburuetan daude jasota, Errenteriako Udal Artxiboan.

Lehenengo aipamenak XVI. mendean

Egin dezagun denboran atzera, XVI. mendera arte, eta ikusiko dugu garai hartako, euskara erabiltzeko aldarrikapenak jaso zirela, elizan euskara erabiltzearen inguruan gehienak. Hona batzuk:

- *Se encarga al vicario que trate con el convento de San Telmo el contratar un predicador para la Cuaresma. Se establece que sepa euskara porque la gente común de la villa no entiende castellano.* (1569. urtea, AL A/1 Lib. 9 0123V-0123V)

- *Se comunica que Blas de Sarasa ha aceptado dar en euskara los sermones de los domingos de la Cuaresma, después de vísperas* (1647. urtea, AL A/1 Lib. 16 0344-0345)

- *Se acuerda pedir al provincial de los Capuchinos que se envíe un predicador que sepa euskara, para que los vecinos oigan la palabra de Dios en la lengua natural de la tierra».* (1649. urtea, AL A/1 Lib. 16 0399-0400)

Baina, elizatik aparteko konturik ere bada, eguneroko bizimoduarekin zerikusia duten gaiak direla-eta:

- *El regidor Martín de Ezcurra solicita que las reuniones del concejo sean en euskara, pues él no entiende el castellano; en caso contrario, se exime de cualquier responsabilidad.* (1547. urtea, AL A/1 Lib. 4 0120-0121)

- *Se manda al procurador síndico que esté en la presentación de testigos de Nicolás y Sebastián Sancena en el proceso en torno a su pretensión para ser admitidos como vecinos concejantes, y que ponga su traductor de euskara para el receptor de la Chancillería.* (1649. urtea, AL A/1 Lib. 16 0391-0393)

- *1704-02-10, Errenteria, registro de la publicata realizada en euskera, de los capítulos establecidos por el concejo de Errenteria, al objeto de reunir a los soldados desertores* (35r-36r). (1704. URTEA, AL A/1 Lib. 27 0029-0036)

- *Se acuerda la adquisición de un ejemplar del diccionario vasco-español Euskarati erdarara burtzeko itztegia.* (1882. urtea, AL A/1 Lib. 171 0131V-0133R)

Eta aurreko horiek euskara erabiltzea bilatzen zuten neurriak baziren ere, segidan jasotakoa bestelakoa da:

- *Se acuerda librar a José Antonio de Echeverria, maestro de niños, el último tercio de su salario, y que se le aperciba para que los niños no hablen en euskera ni entren en los soportales de la casa concejil.* (1760. urtea, AL A/1 Lib. 83 0166-0187)

1771tik aurrera, udal jarduerari buruzko aipamenak hasi ziren jasotzen:

- *Se acuerda publicar el edicto en euskara* (1771. urtea, AL A/1 Lib. 94 0003R-0006R)

- *Se acuerda que se pueda debatir en los plenos en euskera* (1890. urtea AL A/1 Lib. 177 0086V-0088V).

- Segidan etorriko ziren: *Se acuerda publicar los bandos municipales también en euskera* (1894. urtea, AL A/1 Lib. 179 0191R-0192V); *Se acuerda realizar la forma en la que han de inscribirse o denominarse las calles y plazas en euskera y castellano autorizándose al alcalde a adquirir las placas si fuese conveniente* (1896. urtea, AL A/1 Lib. 181 0104V-0105V) eta *Se aprueba por la Comisión Provincial la inscripción de calles en euskera y castellano encargándose la compra de placas con su rotulación.* (1896. urtea, AL A/1 Lib. 181 0109V-0111R).

Erregistro horien bidez iritsi zaigun informazioaren arabera, dokumentuak

gaztelaniaz egin arren, euskara erakundearen jardueran sartzen hasia zen, apal-apal bazen ere.

Euskara erabili ahal izateko lehenengo aldarrikapen eta erabakiak izan ziren horiek, Errenterian toki mailan erregistratuak, eta urte asko itxaron behar izan dugu euskararen erabilera babesteko jaio diren arauak etorri arte. Hala, 1978an Espainiako Konstituzioak euskara, derrigorrez jakin beharreko gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofizialtzat hartu eta 19 urtera, 1997an, herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautu zuen Dekretua, 86/1997, etorri zen. Tartean, 1982an, 10/982 Legea, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa, onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. Euskadiko herritar guztiei, norbanako zein agintari, legea bete eta betearazteko agindua eman zuen lehendakariak.

1997. urtean Udalak Errenteriako Udalean euskararen erabilera normalizatu eta sustatzeko udal ordenantza onartu zuen

1997an Errenteriako Udalean euskararen erabilera normalizatu eta sustatzeko udal ordenantza onartu zuen Udalbatzak.

Honela zioen Jose Maria Erkizia garai hartako Kultura batzordeko lehendakariak:

Gaur aurkeztu eta zabaltzen ditugun orri hauek Udaletik egiten ari garen lanaren berri-emaile bihurtu nahi ditugu. Udalean dauden talde politiko guztien onarpenarekin onartu dugun Udal ordenantzaren berri eman eta herrian zabaldu nahi dugu.

Gure helburua: hizkuntza mailan, herriaren beharretaz [sic] denok hobeto jabetu eta Udaletik egiten ari garen ahalegina ezagutaraztea da, euskara denon hizkuntza bihurtu eta Udaleko zerbitzuak gure hizkuntzan ere eman ahal izatea, herritarrok behar eta eskatzen dugun neurrian. Ez baita nahikoa Udalak bakarrik egitea; herritar guztiok bultzatu behar dugu euskara, nonahi eta beti erabiliz.



Baina, zer ekarpen egin zion Ordenantzak euskarari?

Bada, bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu, babestu eta gerora Udalak hartu dituen erabaki eta arauen oinarri izan da.

Gaur egun ohikoa da, arruntzat jotzen dugu Udalarekin euskaraz egitea eta Udalak ere guri euskaraz egitea, baina 27 urte atzera eginez gero, Ordenantza eman zen urteari begira jarriz gero, orain ohikotzat jotzen dugun hori guztia egiteko zegoen. Udalak gehienbat gaztelaniaz funtzionatzen zuen eta langileak ez zeuden prestatuta erronka horri heltzeko.

Horren jakitun, 1997an Errenteriako Udalak bi hizkuntza ofizialen parekotasuna lortzeko, bien arteko oreka lortzeko, euskarari aparteko eta lehentasunezko tratamendua ematea erabaki zuen, egoera sozial eta juridiko desberdinean



Euskaraldia. Euskaraldia programari laguntzeko plataformaren aurkezpena, Gamon Zumardian, 2018ko maiatzaren 22an. Ezkerretik eskuinera: manu Maritxalar, Ainhoa Gurrutxaga, Mikel Albisu, Nora Barroso, Txelo Berra, Mikel Markez, Elixabete Perez Gaztelu, Andoni Agirregomezkorta, Jony Camacho, Maria Izquierdo eta Mikel Martin.

zeuden bi hizkuntzak berdin tratatzeak ez zuela parekotasuna ekarriko kontsideratuta. Lehenengo eta behin, euskara, gaztelania bezala, babestutako hizkuntza ofiziala zela aitortu eta herritarren hizkuntza eskubideak onartu zituen eta, era horretan, herritarrei bide eman zien harremanak euskaraz izateko, dokumentazioa euskaraz jasotzeko eta bileretan euskaraz parte hartzeko, besteak beste. Eskubide hori benetan bete zedin neurri eraginkorrak hartzeko konpromisoa bereganatu zuen Udalak eta, horretarako, bere jardunaren esparru guztiak arautu zituen: lanpostuetan hizkuntza eskakizunak jarri, zerbitzu- eta lan-hizkuntza definitu, gainerako erakundeekiko harremanak nola gauzatu, diruz lagundutako jardueretan hizkuntza irizpideak kontuan hartu, kaleko errotulazioa eta kale-izendegia onartu...

Bi hizkuntzen erabilera normalizatzeko, hizkuntzen arteko erabilera orekatua lortzeko bidearen hasiera-puntuan kokatu zen Udala.

Plangintzaldiak

Bide hori, jakina, ez da egun batetik bestera egitekoa, planifikazioa eskatzen du. Pasa diren 27 urte hauetan, bi hizkuntza ofizialen erabilera normalizaziorako emandako legeak aintzat hartuta, Udalak plangintzaldietan antolatu du lana. Plangintzaldiak 5 urteko epeak dira eta Udalak bere buruari jartzen dizkion helburu estrategikoak jasotzeko tresnak dira, baita euskara eta gaztelania erabiltzeko irizpideak eta horiek gauzatzeko neurriak ere. Irizpide eta neurri sorta hori Hizkuntza ofizialen erabilera normalizatzeko plana izenarekin ezagutzen dugu.

Lehenengo plana 2003an onartu zuen Udalak eta euskararen erabilera areagotzea hartu zuen eginkizun nagusitzat.

Lehenengo eta behin, herritarrei zerbitzua ematea bermatzeko, langileek zerbitzua euskaraz ere eman zezaten lehenengo trebakuntza plana jarri zuen abian, eta jendaurrean lanean ari ziren langileak lehendabizi, eta udal barruko jarduna zuten gainerako langileak ondoren, trebatzaileen laguntzarekin lanerako behar zuten formazioa jasotzen hasi ziren. Hala, eguneroko eginkizun guztiak euskaraz zein gaztelaniaz egin zitzaten gaitu ziren langileak.

Gerora, plangintzaldietan zehar, 2011n, 2013an eta 2018an, hurrenez hurren, bidezko planen bidez gauzatu ditu ezarritako helburuak. Horrela, urrats baten ondoren beste bat emanda, eta beste bat, eta beste bat... 2024ra iritsi gara.

Gaur egun langileek, oro har, euskara gaitasun egokia dute eta hizkuntza batean zein bestean jarduten dute, herritarrek egiten duten hizkuntza hautuari erantzunez.

BIKAIN ziurtagiria

Bide horretan ezin aipatu gabe utzi BIKAIN ziurtagiria. Ordura arte normalizaziorako bidean emandako urratsak ebaluatu nahian,

2015ean Errenteriako Udalak Bikain ziurtagiria eskuratzeko prozesuan izena eman zuen, kanpoko aditu talde baten eskutik egoera ahalik eta zehatzen ezagutu eta helburuen betetze mailan jauzia emateko asmoz. Kanpoko begirada hori beharrezkoa zuen Udalak norabide egokian ari zen jakiteko.

Aditu taldeak Udalaren indargune eta hobetzeko nagusiak identifikatu zituen eta bide eman zuen hizkuntzen erabileraren gaiari astindu bat emateko. Indargune nagusitzat jo zuten, adibidez, langileen hizkuntza gaitasun handia eta planarekiko atxikimendua, baita ordezkari politikoena ere. Hobetu beharrekoetan, berriz, adierazi zuten gaitasuna handia izanda ere, erabilera ezagutzaren azpitik zegoela eta gako garrantzitsutzat jo zuten horretan aurrerapausoak ematea.

Identifikatutako hobetu beharrekoei heldu eta planean txertatu ziren helburu gisa.

2015ean Udalak urrezko maila lortu zuen, goreneko maila.

Gaur egun zertan ari gara?

